

ESTEBAN URKIAGA 'LAUAXETA' JAUNARI OMENALDIA

Mungia, 2005-X-21

ONDOETORRIA EUSKALTZAINDIA!

*2005eko urriaren 21an,
barikua*

*Jose Antonio Torrontegi,
Mungiako alkatea*

Arratsalde on jaun-andreok:

Ondo etorriak gure herrira, Mungiara.

Aspaldian ez dogu euki hain garrantzi handiko talderik gure artean.

Andres Urrutiaren esanetara, gure herrira gogo onez etorri zarielakoan, mungiarrok poz handiz agurtzen zaituegu.

Ikusten da zuen batzarrak mamintsuak dirala. Hainbeste gauza egin dozuez gaur bere, eta euren artean honako honeek:

– Batetik, Lauaxetari omenaldi ona egin deutzazue.

– Bestetik, emakume bat ekarri dozue zuen artalde honetara. Hain zuzen bere, Ana Toledo. Zorionak danori!

Ana nire atxinako lagun kuttun baten emaztea da, Jose Juan Gonzalez de Txabarrirena. Bera Jaurlaritzan ezagutu neban (orain 25 bat urte), sasoi haretan euskerazko eskolak udaletxeei eskaintzen, gero HABE izango zana. Eta guk daukagun eskolan (l e h e n g o e t a r i k o a) hasikera hartan behar izan genduzan magnetofoiak berari esker lortu ziran. Gero Madrilen eta beste leku batzuetan bere izan gara alkarregaz. Zorionak ba Ana!

– Amaitzeko, eskerrak emoten deutsueguz, zuen harretari esker gaur Mungia euskal kulturaren erreferentzia-gune bihurtu dozue-eta.

Beste barik, geure gogoia adierazoten deutsuegu: *Ekin eta Jarrai* dazi-zuela holantxe luzeroan.

Eskerrik asko danori bihotz-bihotzez.

LAUAXETA ETA *EUZKADI* EGUNKARIAREN EUSKAL ATALA

Xabier Altzibar

Sarrera

Lauaxetaren mendeurreneko Omenaldi honetan haren kazetari alderdia hobeto ezagutzeko asmoak gidatu gaitu, ogibidez kazetaria baitzen. Haren kazetaritaz azterketa batzuk egin dira (J. Kortazar: 1982; A. Mallona: 1991). Guk ere saio bat egin berri dugu (1). Lauaxetak 600 bat artikulu, bereak, klase guztietarikoak, idatzi eta argitara zituen, batez ere *Euzkadi* egunkarian eta zenbait kazeta eta aldizkari abertzaletan. Ordea, aipatu egunkarian eta bere zuzendaritzapean idatzi zuten ehundik gora euskal idazlerekin eginiko lanaz ez dugu azterketa berezirik.

Izan ere, orain arteko Bibliografia eta literaturaren historiako liburuetan (J. Bilbao, J. San Martin, S. Onaindia, N. Cortazar (N. Alzola Gerediaga), E. Amezaga...) *Euzkadi* egunkariko euskal idazlerik asko ez dira aipatuak, eta kazetalan edo idazlanik gutxi. Gerra osteko bibliografo askok *Euzkadi* nekez baitzuketen eskura edo bestela zentsuragatik ezin berririk eman. Idazle horiek ezagutzeko beste eragozpen bat ere badago: ia beti ezizenak ageri dira, egileen izenik ia ez. Tamalez oraindik ez dugu *Euzkadiren* euskal ataleko idazleen bibliografiarik, ezta Lauaxetaren kazetalanenik, argitaraturik behintzat. Zorionez egun *Euzkadi* egunkaria artxibo, biblioteka edo hemeroteca batzuetan irakur daiteke, adib. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian (Artea, Bizkaia). Bide batez, nire eskerrik beroenak bihurtu nahi dizkiot artxibo horretako Iñaki Goioanari, emandako laguntza eta informazioagatik.

Euzkadiren euskal atala gure kultura, literatura eta kazetaritzaren historian urrats bat dela uste dugu: besteak beste, gerra ondoko idazleak, bai eta egun oraindik bizi diren asko, eta horien ondorengook, haiengandik abiatu garrelako. Hortaz hemen aztertuko dugu: zer zen euskal atala eta nondik abiatua zen, zer lan egin zuen Lauaxetak herrietako berriemaile eta idazleekin, zer ha-

(1) «Lauaxetaren kazetaritza» artikulua, Andolin Eguzkitzaren Omenaldi liburuan argitaratzea.

rreman izan zuen eta zer egitasmo bultzatu, zer sail, genero, gai eta idazle agertarazi zituen euskal atalean, zer parte izan zuen euskarak *Euzkadi* egunkarian, zer auzi eta eztabaida izan ziren ataleko idazleen artean euskararen inguruan eta zer ekarri zion atal horrek *Eguna* lehen euskal egunkariari.

I. Lauaxeta, Euzkadi egunkariko kazetari eta euskal atalaren artezkaria

1. Jesuita karrerari utzi ondoren, 1928an hasi zen Lauaxeta *Euzkadi* egunkarian idazten, hain zuzen Kirikiño jubilatua baino 2-3 egun lehenago, Primo de Riveraren diktaduraren azken aldia. Hain zuzen, Kirikiño (1866-1929) hasi zen *Euzkadin* euskaraz idazten (1913), kazetari profesional gisa, eta berak antolatua zuen egunkariaren *euskal atal* («euzkel-atala») edo *arloa* zeritzona; euskal *sail* eta *orria* ere deitzen zuten, baina gutxiagotan.

Lehenbizi kolaboratzaile gisa idazten bide zuen Orixeren ardurapean, hau baitzen euskal atalaren zuzendari, eta aurki, 1930ko Olerti Egunean «Maitale kutuna» olerkiarekin lehen saria jaritsirik, kazetari idazle edo erredaktore sartu zen. 1931an, Orixeren ordez Lauaxeta jarri zuten euskal atalaren arduradun. Orduko EAJkoa bide zen.

Lauaxetaren kazetari-lan eta arduraldia Espainiako II. Errepublika garaian gertatu zen. Errepublikak, Alfonso XIIIren monarkia garaian Primo de Riveraren diktadurak kazeta eta hedabideei kendutako libertate eta aukerak ekarri zituen berriz. Diktadura aldia euskara debekatu zuten (*Euzkadi* egunkarian behintzat, 1926 arte ez zen deus argitaratu euskaraz, eta gero gaztelaniara itzuli behar izaten zen euskaraz idatzitako guztia, zentsura pasatu ahal izateko). Errepublikan ere sei hilabetez debekatu zuen Bizkaiko gobernadoreak Bizkaiko egunkari eta aldizkari guztietan 1934-1935 negualdian, zer da kontua eta Asturiasko iraultzagatik.

Izatez, eta jakina denez, *Euzkadi* EAJren egunkari ofiziala zen (Aberri eta Comución Nacionalista Vasca berriz bildu ondoren). EAJ alderdi abertzale nagusia zen, ez bakarra: 1930ean alderdiko zati batek beste alderdi bat sortu baitzuen, Euzko-Abertzale-Ekintza-ANV, alderdi akonfesionala. Horrek, batez ere, bereizten zuen ANV EAJtik. Gero, 1934ko maiatz-uda aldean beste zatiketa bat izan zuen EAJk, Jagi-Jagi-rena; ordura arte talde horretan egon eta izen bereko astekarian idatzi zuen Lauaxetak –gaztelaniaz batez ere– baita haren beste kazetarikide batzuek (Imanol Enbeita, Abeletxe etab.). *Euzkadi* goizeko egunkaria zen, Bilbon argitaratua eta bilbotarra, nahiz Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako berri ugari ekarri. Beste alderdien kazetak bezala, alderdikaria zen, esan gabe doa. Zortzi orrialdekoa 1931an, geroago hamarrekoa, are hamabikoa ere, baina euskaraz orrialde bakarra, 4, 5, 8, 12. orrialdean. Pantaleón Ruiz de Olano zuen zuzendari.

Zergatik orrialde bat bakarra alderdi abertzale nagusiaren egunkari ofizialean? Arrazoi nagusietarik bat garai hartan abertzale alderdien ikuspuntu «ofiziala» zatekeen: euzko herria (euskaldunak eta erdaldunak) pizkortu, euzkozaletu, abertzaletu eta behin abertzaletuta gero, berez euskalzaletuko zirela uste zuten, baina hor zegoen koska: abertzaletasuna gehitu beraz euskalzaletasuna gehitu? Ez dirudi hala gertatu zenik. EAJko abertzaleek (eta Lauaxetak ere, «ofizialki») kontzientzia politikoa jartzen zuten nagusi; abertzale eta euskaltzale askoren ikuspuntua, ordea, bestelakoa zen. Hogeitahamar urte lehenago ere, adib. Azkuek euskara jarri zuen nagusi; S. Aranak, abertzaletasuna.

Euzkadi ez zen euskal atala zuen bakarra. Beste egunkari batzuek ere, abertzale edo ez, bazuten: abertzaleen artean, Donostiako *El Díak* (1930eko ekainean hasia, Aitzolek zuzendua, A. Arzelus «Luzear» euskal atalaren artezkari); *La voz de Navarrak* (J. Agerre Santesteban «Gurbindo» zuen zuzendari, bera ere idazle, Larreko, Manezaundi, A. Tapia-Perurena etab.ekin); *Tierra Vasca* EAE-ANVrenak ere bazuen berea. Abertzale ez ziren batzuek ere bai, tradizionalistek adib., hau da, Bilboko *La Gaceta del Nortek* (Zamarripa Kirikiñoren garaian eta gero M. Arruza «Arrugain» idazle); Donostiako *El Pueblo Vascok* (Zubimendi idazlea atalaren artezkari).

Euskarazko kazetalaran bilduta ageri ziren orrialdea edo tokia zen euskal atala. Halakoak Francoren diktaduraren ondorengo egunkariek ere (*Deia*, *Egin*, *Diario Vasco*) izan dituzte (gazt. «la página vasca del diario X»). *Euzkadi* egunkarian kokalekua zuen: 1931n 4. edo 6. orrialdean; 1933an, 4. edo 8. or.; 1933tik aurrera azken orrialdean (atzetik hartuta, lehen or.). *Egunekua* saila salbu, hau 1. or. eta 1. zerrendan ageri baitzen, lehen tokian beraz, Kirikiñoren denboratik hasita; noizbehinka beste orrialderen batean ere euskaraz idazlanen bat edo beste agertzen zen (adib. «Página agrícola»n, Euzk 1931-6-10).

Beraz 1931ko urri-azaroan euskal atalaz kargutu zen Lauaxeta. Urriaren 7an «Idazliai» zuzendu zitzaien, hots, bere ardurapekoei, idazkera kontuak argitzeko (Euzk 1931-10-7, 5. or., ap Kortazar: 1984: 13). Aurretik ere hasia zitzaien eduki eta forma aldetik (ortografia, morfologia, sintaxia) nola jokatu behar zuten adierazten. Ofizialki, azaroaren 3tik hasita, Orixeri agur egin ondoren (Lauaxeta, «Orixerri agurra», Euzk 1931-11-3).

Imanol (edo Manu) Enbeita «Uribitarte'tar Ibon» izan zen Lauaxetaren ordezkaria euskal atalaren artezkaritzan. Kirikiñoren garaiko kazetaria zen, haren bulegoan idatzi zuen egunero (lehenbizi *Egunekua* eta gero *Gayak* sailetan). *Bizkaitarran* ere bai, astero, eta gerra garaian *Egunan*. Aipagarria da hark euskal idazleekin eginiko lana, artezkari-orde gisa (2). Batez ere 1934-1936

(2) «Entzutea dogunez, egunkarirako hainbat lagunek bialtzen ebezan euskal lantxuei «Orixerri»k ez ei eutsen jaramon handirik egiten. Eta jakina, idazle hasibarrien eta gitxi ikasien lan hareek orraztuteko preminea euken, eta Manu (Uribitarte'tar Ibon), orraztuten arduratu zedin jarri eben. Mañariarrak egin ohi ebana egiteko, izan be, idazle barriei lagundu, berberak idaztelanak argitaratuz ganera.» (E. Erkiaga, «Lauaxeta»-z barriren barri», *Idatz & Mintz*, 7, 1984, 30. or.)

urteetan, artezkaria idazbulegotik kanpoan zegoenean, I. Enbeita arduratzen zen euskal idazleen lanak argitaratzeaz, haren bidez jasotzen zituen Lauaxetak idazleen mezuak, eta artezkariaren ordeztatu zituen zuzendutako oharrik idazleei (adib. 1935ko urrian Lauaxeta Bartzelonan izan zenean, baita gerra hasita beste zeregin batzuk eman zizkiotenean). I. Enbeita Bilbon bizi zen, berak dioenez (Euzk 7004, 1935-6-7). Nago, bera ez ote zen askotan herrietako berriemaileen lanak zuzentzen zituena, eta agian batzuetan Lauaxeta berarenak ere. Olerkaria ere bazen (ik. Eraskinak (III): Euzkadi egunkariko euskal idazleak (1930-1936).

Lauaxeta eta I. Enbeita, baita A. Ruiz de Azua «Ogoñope» Euzkadi Irrati-koa, kazetari profesionalak eta soldatapekoak ziren. Euskal ataleko gainerako idazlerik ba ote zen ordaindua zenik, ez dakigu ziur baina ez dirudi: herrietako berriemaileek borondate hutsez eta deus hunkitugabe idazten bide zuten, euskaraz ari zirelarik bederen; hori dela-eta euskal idazleak sarritan kexatu ziren (3).

Kirikiño izan zen *Euzkadi* egunkariaren euskal atal edo arloaren sortzaile, bere lanari esker tokia irabazita –ez oparirik egin ziotelako–. Lauaxetak estimatu zeukan Kirikiñoren ahotik jasotako bultzadaxoa (Mallona: AB 88-89). Kirikiño maisu ezagutua zen idazle eta kazetari abertzaleen artean. Lauaxetak berak dio urtero urtarrilaren 31an joaten zela Mañarira, maisuaren hilobira. Egunkariaren euskal ataleko idazleek ere Kirikiñoren ikasletzat daukate beren burua («idazlion irakasle», Euzk 6940, 1935-3-22). Izan ere, mordoxka bat Kirikiñoren hazitikoak dira edo haren garaikoak (Z. Jemein «Jadarka», J. Altuna, M. Arruza, Garro «Otxolua», F. Belaustegigoitia, Tx. Arruti «Mendi-Lautta», G. Osoro «Aberri» etab.). Hark irakatsi zien berriemaileei euskaraz idazten, kazetari idazkeran behintzat (Altzibar: 1997 a).

Kirikiñok markatu ildotik ibili zen Lauaxeta euskal atalaren artezkari zereginetan. Bai herrietako berriemaileen eta idazleen sarea osatze-lanari dagokionez: berrehun bat ezizen ageri dira Kirikiñoren berriemaile; handik hamar urtera, ehun eta berrogei bai gutxienez Lauaxetaren berriemaile. Bai artezkariaren zeregin nagusiari dagokionez: Kirikiñok bezala, Lauaxetak ere berriemaile eta idazleak idaztera bultzatu zituen beti, herrietako berrien zolan edo argitaraturiko olerkienean idazleari oharrak eginez. Baita genero nagusien lantze eta argitaratzeari dagokionez: berriak edo *izparrak* eta berri laburrak alde batetik, iritziak edo artikulak «sakonak» bestetik, idazkeran batzuk eta besteak garbi bereizita; ipuin eta kontakizun atsegingarriak; euskal kulturako sail (adib. *Temas Vascos*) eta gaiak. Halatsu gaiak eta gaien tratamenduari dagokionez: politika (Euskadikoa, Espainiakoa, nazioartekoa), EAJ alderdiaren deialdiak,

(3) Berriemaileak, ordainduak izan behar zirela garbi ikusi zuten aspaldi idazleek, batez ere geroako egunkariari begira: ik. Euzkel-Idazle-Batzako arautegi-gaiak dioena («Euzko Idazleei», Euzk 6478, 1933-9-12; A. Irigarai «Irular»ek («Nabarra», Euzk 6670, 1934-4-2); «Etxekua»k, («Nora guaz? Euzkel-idazlien alde», Euzk 6789, 1934-9-13); Ibar-ek, *Genio y Lengua*, 74-75. or.).

gizarte-gaiak, erlijioa, literaturlanak (olerki eta bertsoak). Orobat tonu eta idaztankerako ezaugarri batzuetan (hizketa tonua, zirikadak,...).

Orixe ere euskararen maisu eta idazle eredugarri ezagutua baitzen (Altubek, Mokoroa «Ibar»ek etab.), haren joera edo idaztankeratik ere zerbait hartuko zuen, agian estilo literariorako isuri handiagoa. Lauaxetak literatura-lanei eskua gehiago zabaldu zien egunkarian Kirikiñok baino. Nolanahi ere, Orixe-ren ordez Lauaxeta artezkari jartzean, gauza batzuk aldatu ziren egunkarian: adib. abertzaletasun jeltzaleari indar eta idazleei arreta handiagoa hartzea eta sabindar eskolaren idazkera nagusi ezartzea.

II. Herrietako berriemaile eta idazleekiko lana

II.1. Lauaxetak herrietako berriemaileak eta idazleak bilatu, antolatuta eta haien gogo berotu eta idatzarazi zien. Hartara, *Euzkadi* egunkariaren euskal herrietako berriemaileen («izparkarien») eta euskal ataleko idazleen sarea –Kirikiñok hasia, diktadura urteetan agian endekatua– berriztatu eta biziarazi zuen, I. Enbeitaren laguntzaz.

Idazle berrien, bereziki herrietako berriemaileen bila ibili ohi zen. Mitin eta hitzaldietan –euskaraz eginak baitziren– idazle ezagunak agurtzen zituen, berriak bilatzen eta *Euzkadi* egunkarian idaztera erakartzen. Alderdikideetara joko zuen, berriemaile asko alderdikide izango zituen. Izatez, Lauaxetak euskalzaletasuna ez ezik, abertzaletasuna ere bultzatu nahi zuen: abertzaletasun euskaltzalea beti. Euskal ataleko idazle gehienak, euskaltzaleak ez ezik, aberzaleak ere baitzirakeen.

Ikerketa zehatzik egin gabe ere, 89 herrietako 156 ezizen ezagutzen ditugu, nahiz horien arteko batzuk berriemaile berarenak izan daitezkeen. Bizkaiako 56 herri eta hiritako berriemaileak dira, Gipuzkoako 27takoak, toki garrantzitsuenetarikoa; Araba, Gaztela, Santander, Logroño eta Txiletik bana. Ik. Eraskinak (I): Herrietako berriemaileak.

Herri batzuetako berriak astero-astero eta urtero-urtero ageri dira, berriemaile jarraiek bidaliak. Hona herri eta berriemaile aipagarri batzuk (herriak hurrenkera alfabetikoan jartzen ditugu; berriemaileak parentesi artean, gehienak ezizen hutsez): Akorda (A. Ruiz de Azua «Ogoñope»); Andoain (Buruntza); Areatza-Billaro (Akatza); Aretxabaleta (Muru-Mendi, Aitza); Arrasate (Udalaitz; Peli: Peli Markiegi?; Ikasle); Azpeitia (Kirol); Bermeo (Urkidi, «Arraintzale»); Donostia (Atarrene); Durango (Tabiratarra, Ibaizabal); Elgoibar (Gotzon Osoro «Aberri», Aixexixa, Ixaka, Mirentxu); Errenderi (Andoni); Gaztelerría (Nabarriztarra); Gernika (Belumendu); Lasarte (A-Bi); Lazkano (Iramendi); Legazpi («Zar-zale»: Gr. Mujika?; Kepa Gurtubai «Ilintxa»); Lekeitio (E. Erkiaga «Endaitz»); Logroño (J. Garmendia «Jeltzale» edo «Zeleta» ezizenez ezagunagoa); Mañari (E. Bustintza «Mañariko» 1931-1936 urteetan);

Markina (Ete); Mendaro (I'tar, Agiis-arte, Kaiku); Motriku (J.M. Burgaña, Andoni, Gurutz-ondo, Arno-Mendi, Idrole); Ondarroa (J. M. Ituarte «Artibai» 1931-1936 urteetan, Txori-etxea, Txori-Erreka, Ibai-ondo, Edurbero); Santander («Otzategitxuko Jon»: Zabala-Arana?); Segura (Otarra); Soraluze (Drisdras); Urretxu (Arri Gotzon); Zarautz (Basarri); Zeanuri (Baserritar bat, Atzurkulu'ko Mirue, Arregi'tar bat); Zumarraga (K. Linazasoro «Altzeta»).

Ohargarri denez, Bizkaiko eskualde, hiri eta herri ia guztietako berriak ageri dira *Euzkadin*, Enkarterri eta Ibai-Ezkerrekoak izan ezik, herri horietakoak gazteleraz agertzen baitziren; eskualde batzuetako ia herri guztiek zuten beren euskal berriemailea. Adib. Bizkaian kosta aldean, Gernika aldean, Mungia eta Txorierrin, Arratian, Durango eta inguruetan. Gipuzkoan, Deba Barrena, Deba Goiena, Urola, Urretxu-Zumarraga, Lazkao, Donostia, Oria (Lasarte), Errenteria, Tolosa, Zarautz, Oiartzunen... Herri batzuetan berriemaile mordoxka bildu zuen egunkariak: esaterako Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Gernika, Kortezubi, Ondarroa, Zeanuri edo Lazkaon. Emakume berriemaileak ez bide ziren gutxi, hori ezizenek nekez erakutsi arren: Mañari herriko «Mañariko», Elgoibarko «Mirentxu», Markinako «Ete», Ereñoko «Emakume bat», Foruko «Ibai-gane»? , Gernikako «Bixiko-etxe»? , Urretxuko «Andere bat»? , Muxikako «Matxalen»? , «Atxondo» etab.

Berriemaile eta gainerako idazleei eginiko ohar izenpetuen bidez (Errijetatik saileko kroniken zolan agertzen zirenak, era honetara: «Uarra. (...). Lauaxeta» edo «L.» izenpetuta), eta halaber noizbehinkako «(Euzkel) Idazliai» sail modukoaren bidez, Lauaxetak haiek idaztera bultzatzen eta gidatzen zituen egunoroko lanean, haien lanak argitaratzen saiatuz ahalik eta egokien. «Idazliai» horien bidez artezkariak dei eta ohar garrantzitsuak egiten zizkien (argitaratze-aldakuntzak, aldi baterako joera berriak...) (4).

Lauaxetak *idazle* (edo *herri-idazle*) deitzen zituen horien eginkizuna herriko kronika bidaltzea bazen ere, herrietako folklorea, toki-izenak etab. batzen lan egin zezaten ere nahi zuen («Euzko-Erri-Jakintza» sailerako). Eta onentsuenek egunkariko toki jakinean sail edo iritzi-artikulu bereziak idaztea ere, baita olerki/bertso edo literaturlanak. Beste era batera esanda, *idazleok* zeregin askotarikoak betetzen zituzten: batzuek herriko kronika igor edota herri-jakintza gaiez soilik idatziko zuten, beste batzuek iritzi-artikuluak, beste batzuek literaturlanak; askok, denetarikoak.

Ohar izenpetu eta noizbehinkako «Idazliai» sail horren bidez, Lauaxetak idazleekiko komunikazioa sustatu eta biziarazi zuen. Zuzendaria idazleekin, idazleak zuzendariarekin eta elkarrekin komunikatzeko mintzatoki izan zen «euskal atala». Esaterako, zuzendariak idazleei idazlanak eskatzeko, zuzen-

(4) Beti-beti ez zituen izenpetu oharrok, ezin izan bide zituen politika-kontuengatik: adib. Gatikako «Aberri-zale»ri idatzitakoak, honen «Gernikako espetxian» artikulua zolan, Lauaxeta izan behar du, ik. Errijetatik, Euzk 6805, 1934-9-30).

tzeko, zirikatzeke, gogo berotzeko, letrari buruzko oharra egiteko («izki argiz, tintaz eztatorzanak atzera juango dira», Euzk 6338, 1933-3-31), zergatik argitaratu ez duen edo berandu argitaratu duen azaltzeko, idazleei berriro idaztera deitzeko (1934-1935ko debekualdiaren ondoren) etab. Berdin idazleekin iritziak trukatzeko, elkarren asmoak azaltzeko etab. Askotan, Lauaxetak azaltzen ziren zergatik moztu ziren idazlana, edo nahi baino beranduago argitaratu. Beste batzuetan, Kirikiñok bere garaian bezala, berriak nola idatzi behar zituzten erakusten ziren, eta, orohar, egin beharreko aldaketak adierazten (5).

Hain zuzen, berriemaile eta idazleekiko komunikazio horri esker, haiei entzunda, aldaketak eta sail, genero, egitasmo berriak bultzatu zituen Lauaxetak: antzerki, nobela edo irakurgai laburrak, folklore gaiak, haurrentzako irakurgaiak 1934 aldera... (6).

Idazleek, berriz, batzuetan zerbait galdetzen zioten Lauaxetari, edo beren kontuak edo familiarenak jakinarazten (batek anaia hil zaiola edo osasunez gaizki dabilela, besteak seme edo alaba bat izan duela eta ez dakiela zer izen ipini), edo abertzaleen edo jeltkideen arteko kontuak, edo berriemaile abertzaleak espetsuean daudela, adib. Gatikako Aberri-zaleak, Urretxuko Arri-Gotzonek, edo esker ona adierazten diote (adib. Bedoñako «Txorizale»k maisutzat hartzen du Lauaxeta «Agur Maixu! Agur lagun!» olerkian, ik. *Errijetatik*: Bedoña, «Txorizale», Euzk 6719, 1934-6-22).

Beraz Lauaxetaren oharra, kazetako berriemaile eta sail, genero edo toki jakinako idazleen kasuan, gehienetan ziren: idaztera eta irakurtzera bultzatzeko, zerbait aholkatzeko edo berriren bat emateko. Batzuetan, bide batez, bestelako abertzale/euskalzaile ekintza batzuei buruz mintzatzeko ere (adib. Euzko Langillien Elkartasunaren aldeko lana txalotzeko (*Errijetatik*: Deba «Burni-Bide», Euzk 6407, 1933-6-21).

Aipagarriak dira, esaterako, geroztik ezagunak gertatu diren idazle batzuei eginiko oharra, haien idazlanak txalotuz eta gogo berotuz: J. Azpeitia «Arri-tokieta»ri (Euzk 6275, 1933-1-17; 6299, 1933-2-14); Joseba Altunari (Euzk 6317, 1933-3-7); Jose Garmendia «Zeleta»ri (*Errijetatik*: Logroño «Ze-

(5) «Uar bat. Bere idazkiak argitaldurik ikusi gura dabezanak, bialdu begiz ainbat laburren, moztuen. Izparrak giarrenak, muinenak batu begiez» («Idazleai uarra», Egunekua, Euzk 5685, 1931-2-28). «Uarra. Aldaketeak. Geure idazle adizkidiak igarri ixan dabez oraingo, orri onetan egin doguzan aldaketeak (Izpar Urtenenak saila hasi, Errijetatik saila 7. orrialdera pasatu, etab.) (...) ondikarren aldaketa geyago be egin gura geunkez. (...) kontura beziz Errijetatik deritxon sallan, zerbait moztu biar-ixango dogula. / Erri-izparrak labur-labur agertuko dira. Gaur asi ta agertuten diran eran (...)» (Uarra, L(auaxeta), Euzk 6512, 1933-10-21).

(6) «Ainbat errijetakuak eskatuten dauskubez euzkeraz *antzerkitxubak* (...). *Azkatasun-bidian* (antzerkiño laburra), Endaitzena. Garrok L. Leon-en *Maturriño kapoyak*, euskera erraz, labur ta bizkorrean. Gipuzkoatik, «Ustekabezko sendagilea», Baltzetegi'tar Bittorenek. / «Euzkerazko *nobelatxu* edo *irakurgayak* argittaltzen be, asiko gara. / *Euzko-Erri-Jakintza* arlua be sendotu gura dogu, aspaldijon isil samar gagozalako. Asmo oneik ta beste gorengo batzuk atzalduko dautseguz irakurle adizkidiai» (Euzk 6515, 1933-10-25).

leta», Euzk 6369, 1933-5-7); «Atarreneri» (Euzk 6403, 1933-6-16); Aingeru Irigarai «Irular»i (Nabarra «Irular», Euzk 6670, 1934-4-2), etab. Denak ez dira oniriztekoak. Inoiz, eztabaida batean, alderdiaren jokaera zurituz norbaiti kontra egiten dio. Adib. Barrensorori, alderdiak euskara gehiago egitea eskatu zuelarik (7).

Adiskide edo ezagunei konfiantzaz eginiko oharrak ere badira, kontuak kontatzeko (elkar-ikuste, familia arteko kontu, sortze-heriotze...). Batzuekin hitanoz mintzatzen da (Gatikako Aberri-zalerekin, Sabin Muniategi olerkariarekin etab.), euren arteko konfiantzaren seinale. Lauaxetaren beraren familia arteko kontuak jakiteko ere balio digute (aitabitxi dela, arrebaren ebakuntza: Euzk 1931 urtarril-ots., Eu 5680, 1931-2-22). Lauaxetaren ohar eta artikuluetako iruzkin/iritzietan ageri da: idazle batzuekiko harremanak adiskidantza-zakoak zirela, bereziki A. Zubikarai «Arteta»rekikoak (ik. *Errijetatik*: Mendexa «Arteta», Euzk 6361, 1933-4-28; *Errijetatik*: Mendexa, Euzk 6411, 1933-6-25). Beste batzuk ere adiskidetzat hartzen ditu: J. Abando «Erletxue», A. Ruiz de Azua «Ogoñope», M. Ziasolo «Abeletxe», F. Irigarai «Larreko», «Irular», I. Enbeita, E. Erkiaga.

Beste ohar mordoxka bat, olerkarietara eginikoak dira, gehienetan haien olerkiei oniritzia emateko eta gogoia berotzeko. Lauaxetak uste zuen olerkarietara elertizaleai tokia egin behar zitzaizela egunerokoan (Euzk 7141, 1935-11-14). Hortaz bere olerkiak ez ezik besterenak argitaratu zituen. Adib. ondoko olerkarietara zuzendu zituen oharrak: Zubimendi (*Egunekua*: Euzkel orria atala, Euzk 5669, 1931-2-10); S. Muniategi (Euzk 7016, 1935-6-21; Euzk 7061, 1935-8-13); Erletxuerei (Euzk 7343, 1936-7-9); Satarkari (Euzk 6556, 1933-12-12; Euzk 6717, 1934-6-20; Euzk 7171, 1935-12); Euzk 7171, 1935-12-); L. Jaurregi «Jautarkol»i (Euzk 6659, 1934-4-12); «Txorizale»ri (*Errijetatik*: Bedoña «Txorizale», Euzk 6719, 1934-6-22); «Lotsati»ri (Euzk 7129, 1935-10-31).

Oharrotan Lauaxetaren iritzi borobil batzuk ageri dira. Hiru aipatuko ditugu. Lehena, ondo idazteko, asko irakurri behar dela (8). Bigarrena, euzko kultura nahi duenak, euskarara jo behar duela (9). Hirugarrena, olerkariak bere nortasuna gorde behar duela, guztien kontra bada ere (10).

Lauaxetak idazleei ongi esan eta ongi hartzen zituen, begirune eta ikusateara erakutsiz. Bazekien jendearekikoa egiten. Baita batzuei errieta egiten ere,

(7) «BBBko landoletan, *Euzkadi*'ko aretoetan eta beste toki gustijetan be, amaikatxu euzkera entzun daruagu (...). «Lauaxeta.» (Euzk 7161, 1935-12-7).

(8) Ik. *Errijetatik*: Mungia «Beti-Zuzen», Euzk 6406, 1933-6-20. Lotsati-ri: Olerkari onen lanak irakurri egitez, edertijaren arauak, be, adiraldu. Lauaxeta.» (Euzk 7129, 1935-10-31)

(9) «Euzko-kultura nai dabenak, euzkerara jo bihar-dabe Jakintsu geyenak euzkeratza aztu dira-edo. "L"» (J. Garateren euskarazko artikulua bat txalotuz: «Sendagilleak eta landarabere ikasleak», «Eneko», Euzk 6776, 1934-8-28).

(10) «*Gustijen kontra bada be, olerkarijak aurrera egin biar dau*». Lauaxeta.» (*Errijetatik*: Bedoña «Txorizale», Euzk 6717, 1934-6-20).

abertzaletasunaren izenean. Berriemaileak berriz, maizko kexu ziren idazlana berandu argitaratu zitzaizela-eta, edo batere ez. Lauaxetak behin hauxe erantzun zion bati:

«Eta zeuk zegaitik idazten dozu? Neugaitik ala aberrijagaitik? Aberrijagaitik idazten badozu ondo eralgiak dira diru gustijak (posta zigiluetarakoak). Otzara barrura jaurti bada be (bialduriko lana), ezta inor mindutiarren. Ez: aberrijagaitik asko jasan bihar da» («Idazliai», Euzk 1931-10-29, ap Penades: 1997: 98).

Bazekien berriemaileek zer nahi zuten gehienik:

«Gustijen naya zein dan badakit: igandian euren erritxuba ikustia. Tamalez orontzat eztago tokirik. (...) / Aste osua dauke, bai?, eta idatzi dagijela beste egunetan be. Zelan edo alan konponduko dogu oker au. Lauaxeta» («Idazliai», Euzk 6489, 1933-9-24).

Lauaxeta eta idazleen elkarlanaren ondorioz, *Euzkadiren* euskal atala iturri aberatsa bihurtu da: a) euskal herrietako berriak, garai hartakoak, jakiteko. Beraz, euskal kazetaritzaren tradizioari jarraituz, esan dezakegu, gure herrietako eta garai bateko berriak euskaraz idatziak direla, erdaraz baino askoz gehiago. Gainera, herrietako berriemaileek euskaraz irakurtzeko zaletasuna ekarri edo behintzat biziarazten lagundu zuten. b) Euskal folkloreko, «herri-jakintza»ko gauza asko argitaratu zirelako. c) Orobat, literatura landuko emaitza ugari, baita liburu, idazle, egile argitaraberrien berri eta kritika. Hori guztia Lauaxetaren bultzada eta sustapena gabe ez zatekeen gertatuko.

Hona, Lauaxetaren arabera, idazleekin eginiko lanaren sakoneko arrazoiak: «abertzaletasunaren gurasoak», «aberriaren gudari punteregoak» omen dira.

«Eta zetarako gura dozu idazlia, ba? Ludi osua dozu idazliena. Matxiñadak eta asaldak ezтира egitten ukubilakaz, idazlenakaz baño. Adimenak argiz betetu daruaz idazliak. Geure Euzkadi onetan zelako lan ederra eztabe egitten idazliak. Eskerrak eurai abertzaletasuna aurrera dua. Egunero tanta-tanta ixuri daroe aberrijaren ezaupidia.

Eta idazlien artian, azkenenguak ezтира erri-idazliak. Erri bakotzeko izparrak eta gora-berak bidalduten dabezanak, lan gurena egin daroe. Eliaren alde ez-eze ekandu onaen eta erri-ixate gustijaren alde aleginduten dira.

Euzkel-idazliai etxake eskerrik emon oindiño, baño gaurko abertzaletasunaren gurasorik onenak eurak dira. Urtero-urtero zenbat azi erein ez ete dabe? Izlarijak egiten eztabena, eurak egin daroe. Lenago ezer etzan irakurten geure ele onetan, orain geitxubago. Zegattik? Erriko izparrak ikustian-edo, asko zaletu diralako.» (Lauaxeta, Euzk 6440, 1933-7-29 «Aberri»ri omena»).

«Zegattik ara (Aberri'en Omenaldira) jua nintzan ittaundu eustan bati erantzun neutson: «Aberri»ri dautsodan mattasuna dala-ta. Euzkel-idazliai zor yaken bijotzeko mattasuna erakutsi gura dautsegu. Aberrijaren gudari punterenguak doguz.» (Lauaxeta, «“Aberri”ren omenari buruz», Euzk 6444, 1933-8-3).

Ik. Eranskinak (II) Oharrak: Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari.

II.2. Lauaxetak idazleen antotolaketa bultzatu zuen. *Euzkadiren* euskal ataleko idazleek Kirikiño zenaren Omenaldian parte hartzen zuten (11). Gero, Kirikiñoaren garaietan hasita, urtero edo urte batzuri behin ospakizuna egin ohi zuten *Euzkadiko* euskal idazleek behintzat (eta dirudenez *El Diakoekin* batera ere, 1933, 1934, 1935 urteetan): meza, batzarra, bazkaria, mus edo pilota partida (12).

Omenaldi eta idazleen batzar horien ildoari jarraituz, 1933ko udatik hasita (ik. Euzk 6444, 1933-8-3), eta Gotzon Osoro «Aberri» Elgoibarko berriemailearen omenaldia aprobetxatuz (1933-7-30), euskal idazleak elkarte batean (Euzkel-Idazle-Batza) bil eta antolatze ahaleginak egin zituen Lauaxetak: gai honetaz artikulu mordo argitaratu zen 1933ko uztail-abuztu-irail-urrian. Ahaleginak egin zituen ere asmo zaharrak («Euzko-erri-jakintza») eta berriak suspertze (13).

Sortzekoa zen idazleen elkarte horri buruz bi joera agertu ziren: batzuek euskaltzaletasuna lehen ezarri nahi zuten, beste batzuek abertzaleatasuna (14). «Aberri»ren omenezko egun horretan idazle elkarte bat sortzeko asmoz behin-behineko batzorde bat izendatu behar zela erabaki zen, bi hilabeteko epean arautegi bat asma zezaten. Arautegi horretako puntu nagusiak ziren: Euzkel-Idazle-Batza elkartearen sortzea, alderdi gabekoa; izparkari ordainduen bidez

(11) Adib. 1931ean, martxoaren 16 edo 15ean, Kirikiñoaren omenezko egunean hitz egin zuten: Otxoluak, euskal idazleen izenean; J.M. Garatek, Euzko-Gasteditaren izenean; Jemein'dar K.ek, Kirikiñoaren euzko-ikasleen izenean, ik. Errijetatik, Euzk 1931-3-10. Agian Kirikiño Sarian ere parte hartzen zuten.

(12) Hona 1934ko ospakizunaren egitasmoa «Gero, esaterako, Lauaxetak edo eratzallik gura dozuben batek, itzalditxu bat geuretzat, euzkel-idazlontzat, ikaskixunen biar gagoz asko-ta. Au, bardin goxetik. Arratsaldian, bertsoak: Basarri, Enbeita'tar Ibon, Enbeita'tar Kepa». Gero, olerkiak eta kantuak (Euzk 6774, 1934-8-25. Ik. ere «Idazle-Batzarra», Euzk 6775, 1934-8-26).

(13) «Aberri»ren omenaldira 90 pertsona baino gehiago joan ziren, gehienak idazleak; horietako gehientsuak izengoitiz aipatzen ditu Lauaxetak; kanpokoan 18 telegrama jaso omen zituzten. Batzarra ondo atera omen zen, batez ere A. Arzelus «Luzear»-i esker. (Lauaxeta, «Aberri»ren omenari buruz», Euzk 6444, 1933-8-3).

(14) Lauaxetak «Atarrene» ren iritzia, *El Día*-n agertarazia, jasotzen du: «Nere uste txiroaz, orain sortu nai dan euzkel-idazle batza ori, jeltzale alderdikoa izan bear du. / Biar bada, uskurtz, aberri, azkatasun ta jeltzaleatasuna gorrotatzeko, euzkera darabilkiten idazleak, idazle batza orretan ez. Orlako batza, Euzkeltzale, E.-Esnalea, E.-Ikaskuntza, edo Euzko-Pizkundeak sortu bezate. / Euzkera-alde beti ta beti, baña ez euzkera dalako bakarrik, gure Aberriko zorion ta azkatasun alde jarritta baño. / «Aberri» omenduaz, sortu nai dan euzkal-idazle batza, Jel ta azkatasun eguzkiak, bero-bero egindako asmoz sortu bedi. Auxen da nere uste zintzoa.».

Eta ondokoa eransten (Lauaxetak): «Euzkeraz idazten dogunok, aberriaren elia dalako baño eztozu idazten. Eta neketuta gagoz beti abertzale eztiran iru edo laugattik, geure aberriari ezetz egitten. «Aberri» azkarra, abertzale zintzua ixan da beti, idazle ona, baña abertzale obia. Eta geure aintzarik andijena, abertzale ixatia da, ez idazle ixatia. Gai onetzaz zerbait esan biarko dogu. (Lauaxeta, Zirika, Euzk 6429, 1933-7-16).

(Euzkel-Idazle-Batza uztail bukaeran edo abuztu hasieran sortuberria delarik, I. Enbeitadio, *El Diaren* arabera bi iritzi daudela: joera zabalekoak eta joera estukoak, azken hauek euskaltzaletasuna abertzaleatasunarekin elkartzen zutenak. *Euzkadiko* idazle gehienak, joera estukoak alde omen («Uribitarte'tar I», Egunekua, Euzk 6444, 1933-8-3).

egunkarietako euskal atalak biziarriztea; literatura, liburu argitaraberi, sariketa, ospakizun eta idazleen kontu eta harremanak aipatuko zituen aldizkari bat sortzea, emakumeekiko gai eta asmoak berezki erabiliko zituen atal bat izango zuena; elkarte horrek euskal aldizkari guztiei eustea, batez ere haurrentzako egin nahi zen aldizkaritxoari (15).

Bizkaiko idazleen ordez Lauaxeta hautatu zuten (16). Beraz arautegigai hori eztabaidatzeko edo onartzeko Lauaxetak Elgoibarko batzarrera dei egiten du, 1933ko urriaren 1erako, Euzkel-Idazle-Batza elkarte eratu behar dela behin eta betiko esanez («Euzkel-Idazliai», Euzk 6492, 1933-9-28). Baina 1933ko urriaren 1eko Elgoibarko batzar horretara Bizkaiko askok huts egin zuten («Euzkel-Idazle-Batza», Euzk 6497, 1933-10-4). Behin-betiko Batzorderako hautatuak izan ziren: Bizkaitik Lauaxeta, M. Ziarsolo «Abeletxe», T. Agirre «Barrenso. Euzkel-Idazle-Batza berehala euskararen egoeraren inuruko auzi eta eztabaidak sortu ziren.

1934-1935ko sei hilabeteko debekualdiaren ondoren, Lauaxetak berriro idaztera dei egitean, herrietako berriemaile guztiek ongi erantzun eta berriro berriak bialtzen hasi omen ziren (Euzk 6948, 1935-3-31). Hala ere, batzuek erderaz berriak bidali zituztela-eta, denak ez zeuden pozik; askok «erriko izparrak euzkeraz bakarrik» nahi (Euzk 6948, 1935-3-31). 1935ko apirilean ospatu zen Motrikun Euzkel-Idazle-Batza (edo Batzarra)ren bilera, Joseba Arruti «Arnobe» berriemailearen omenez (Euzk 6957, 1935-4-11). Ordezkaritza hautatu zituzten: Bizkaitik E. Erkiaga «Endaitz» eta B. Garro «Otxolua»; Gipuzkoatik «Iribe» ta «Txaldatxu»; Nafarroatik Manezaundi eta A. Irigarai «Iru-lar» («“Arnobe”ren omen-jayak», Euzk 6972, 1935-4-30).

(15) «Euzko Idazliei» artikuluan Behin-behineko Batzordeak hauxe dio: Aberri eginiko Omenaldian (uztailaren 30ean) idazle Bazkun bat sortu behar zela eta behin-behineko Batzordea izendatu zen, bi hilabete barru Araudi-Gai bat asmatu eta *Euzkadi* eta *El Dian* argitaldu. «Araudi-Gaya euzko-idazle guzien aurrera dakargu» (Ondokoa).

«1. Euzkel Idazle Batza deritzan elkarte bat sortzea.

2. EIB politika alderdi gabeko bedi ta elburutzat izango ditu: Euzkadi gure aberria irakurgai ta idazlanen bidez bizkortu ta sendotzea ta idazleai elkarren artean laguntza ematea. (...).

6. Egunkari ta aldizkietan euzkerari zor zayon lekua eman dezayoten arretaz arduratuko da. Batez ere egunkarietako euzkel-atalak, bizi, mamitsu, ta berri ta azken-jazoeraz beteak etorri ditezen, egunkariak dagokien eran. Onetarako bear diran euzkel-izperrari ordainduak izan bitzate. Au da biderik bakarra gerora euzkel egunkari utsa sortu al izateko.

7. Euzkel-Elertiarren gora-berak, liburu berrien albiste, sariketa, jai ta euzkel idazleen arteko artu-eman guziak jakin erazi ta aztertze EIB'k aldiz beingo «deya» edo «Errebis-ta» bat argitaratuko du. Aldizkari onek izango du atal bat emakumeekiko gai ta asmoak berezki erabiliko ditua.

8. Ontaz gañera EIB'k euzkel aldizkingi guziaz eutsiko dio, ta batez ere aurrek irakurtzeko egin nai litzaken aldizkingitxoari» (Behin-beñeko Batzordea, Euzk 6478, 1933-9-12).

(16) «Bizkaiko idazlien ixenez autu ninduben ezker, neure gardiz egokijaguak diran aldakuntzak egin dodaz (...).» (Euzkel-Idazle-Batza. Uarra. Lauaxeta, Euzk 6487, 1933-9-22).

II.3. Idazleen formakuntza hobetzeko, idazle berriak eta irakurleak ugaltzeko, bereziki liburu eta kazeten bidez, azpiegitura-proiektuak asmatu eta antolatu zituen Lauaxetak. Bereziki, euskal euskal ataleko idazleen formaziorako, euskal idazleen biblioteka bat –idazle onen liburu bilduma baten argitalpena– egitea asmatu zuen 1936an: Euzkel-Idazti-Alde egitasmoa (17). Ideia horrek hasieran arrakasta gutxi izan zuenez, indartzeko euskal liburuen argitalpenaren aldeko kanpaina egin zuen, harpidedun sare bat osatu ahaliz, gutxienez 500 bat irakurlerena, liburuak argitaratu eta merke saldu ahal izateko (1-2 pta). *Euzkadiko* hiruzpalau idazlek baino erantzun ez zutela ikusirik, etsita agertzen da baina J. Abando «Erletxue» eta Ogoñope adiskideek beren artikulu bidez lagundu eta adore ematen diote:

«Lauaxetaren asmoagaz Euzkel-Idazti-Aldek batu dagiazala lanik onenak, (...) euki daigun biblioteka aberatz bat. (...) / Or dagoz *Euzkadi*’ko orrietan ainbeste ipuin eder Mañariko, Arritokieta, Muniategi, Endaitz, Uzturre, Otxolua, Barrensoro, Enbeita’tar Imanol eta beste askorenak. (...) Ez deritxazu lotsagarria dala oindiño, esate baterako, Enbeita’tar Kepa’ren bertso liburutxu bat eztozola egin?» (Erletxue, «Entzun ondo ta ez aitzu!», *Euzk* 7346, 1936-7-12).

Lauaxetak bere egitasmoa aurrera ateratzeko kanpaina egiten du, 1. or. ere erdaraz idatziz, arazoa zein zen ezkutatu gabe (18). Irakurleak nahi dituzte, edo behintzat ahalik eta erosle gehien. Propaganda egiten dute, harpidedun agiri batekin; helbidea: Correo kalea, 17.a. Helburua: euskal idazleei laguntzea lotsa ken eta hobeto idatarazteko, elertia aberasteko etab. Horretarako liburuari garrantzi handia ematen zaio, hizkuntza biziartzten duela-eta. Moko-

(17) Lauaxetak baino aurretxoago «Ibar»ek (J.M. Mokoroa) euskal idazleen biblioteka egitasmo bat diseinatu zuen, Lauaxetarenaz bestelakoa, *Genio y lengua*, 1935, 255. or. Lauaxetak ezagutu zukeen Ibarren liburua.

(18) «Los escritores vascos están en sazón. Cada uno de ellos ha escrito poesías, teatro, novela, ensayos. ¡Pero nada se edita! Las razones son varias y opuestas. Por algunas torpezas iniciales y atentados contra el idioma, los lectores vascos son muy escasos. Nos encontramos sin mercado para el libro. «¿Cómo no habeis editado todavía un libro de poesías de Enbeita?», nos interrogaron días pasados. / Y el fino abertzale aquel ignoraba que tenemos preparada una antología del ruiseñor de Muxika; pero el editarla es correr el albur de buenas pérdidas económicas. Alguien nos ha incitado a buscar soluciones a tan grave problema. Mientras en nuestra tierra no surjan hombres de la talla intelectual de quienes han levantado las fundaciones de Bernat Metge y las pulquérrimas versiones de los clásicos griegos y latinos, tendremos que idear leves pero prometedoras empresas. / Euzkel-Idazti-Alde se denomina esta tentativa. Enmarcada en normas esencialmente vascas, emprende la edición de libros euzkéricos. Pero ello reclama urgentemente la ayuda de cuantos aman y aprecian el idioma. ¿Nuevas cuotas? En modo alguno. / Las ediciones serán populares, dos pesetas o menos el coste de cada ejemplar, pero con fundamentos de estabilidad. Necesitamos quinientos vascos que se comprometan a comprar un ejemplar de cada libro editado por Euzkel-Idazti-Alde. Al comienzo saldrán de dos en dos meses. Con esa base de suscriptores, sin otro compromiso que pagar el ejemplar, que se les enviará a domicilio, se pueden editar sin miedo a pérdidas los libros que hoy yacen inéditos. / Muchos de los escritores que guardan para mejores tiempos los trabajos de su ingenio podrán ver en letras de molde lo que con tanto afán y entusiasmo patriótico lo redactaron. Contamos ya con doscientas suscripciones, casi todas ellas logradas en Bilbao. (...)» (L(auaxeta), *Euzk* 7349, 1936-7-16, «A favor del libro euzkérico», 1. or. Beste pasarte batean dio: «Hay veinte buenos escritores al menos.»).

roa «Ibar» eta J. Garateren kritika batzuk, euskaldunen ardurarik ezaz, aintzat hartzen dituzte (ik. Erletxue, «Entzun ondo!», Lauaxetaren oharra, Euzk 7344, 1936-7-10; Belostikalekoa, «Entzun...? Bai zera!», Euzk 7345, 1936-7-11).

Beraz hasieran Lauaxeta etsiak jota ageri da, Bizkaian 200 bat harpidedunek baino ez dutela hitza eman-eta, baina «Erletxue» eta «Ogoñope»ren artikuluko zirikatzaileek apurka-apurka harpidedun berriak eginarazten dituzte (ik. Erletxuereen aipatu artikulua eta Ogoñope-ren «Entzun ba! Entzun!», Euzk 7349, 1936-7-16). Egitasmo hori eta Olerti-Atalak argitaratzen harrapatu zuen gerrak eta orduan Lauaxetaren egoera errotik aldatu zen, beste zeregin eta ardua batzuk hartu behar izan baitzituen.

Bestalde, idazleen formakuntzari begira, Lauaxetak sail eta artikuluko ugarri argitara zituen: Temas Vascos, Esaerak (I, II, Eu 6278, 6279, 1933-1-20/21). Ik. aurrerago, III. atalean.

III. SAIL, GENERO, GAI, IDAZLE

Euskal ataleko idazlanak Lauaxetak argitaraziak dira eta askotan haren lanaren ondorio. Atal honetan bere artezkaritzapean, euskal atalean (edo *ingostijan*) agertarazi zituen sail, genero, gai eta idazleak (non zer nork) azalduko ditugu, generoei dagozkien bilakera edo aldaketez zerbait erantsiz. Aipatu dugu Kirikiñoren genero nagusietatik abiatzen dela Lauaxetaren garaiako euskal atala. *Sail* hitza erabiliko dugu (gazt. *sección*, fr. *rubrique*) kazetalan mota edo gai jakinekoak kokatzen dituzten toki egonkorak izendatzeko; Kirikiñok eta Lauaxetak *sail* nahiz *arlo* deitzen zuten.

Lehenik, berez beti kazetaritzari dagozkion generoen artean:

III a. Iritzi artikulua. Iritzi artikulua nagusia Azalpenak izeneko saila da (1931-1932). Hau da Lauaxetaren sail ezagunena. 1931-2-27an hasten da. Gaiak gehienetan alderdiaren politikak markatuak dira: hauteskundeetan katolikoek boza EAJri; elebitza (uste ez bezalako aukerak ematen baititu); Autonomi Araudia (*Euzko Araudia*); Udalak (Euskal Herriko tradizio demokratikoari jarraituz), Lizarrako Batzarra eta Estatutoa, etab. Gaiok politika eta ideologia jeltzalearen ikuspegitik aztertuak dira. Azalpenak aranatar idazkeraz idatzia da. Hasieran sail honetako artikuluek ez dute izenburu berezi bat, gero bai. Noiz edo behin «Tabiratarra» delakoak ere idazten du sail horretan (Euzk 6303, 1933-2-18) edo A. ta Agirre'tar J.k ere, SJ.

Bilakaera dagoke sail honetan, J. Kortazarrek azaldu duenez (1982: 16). Sail honetako batzuk, kontakizun modukoak, satira eta umoredunak dira («Salatarijak» Euzk 6268, 1933-1-8/10/12). Azken aldian etsaiei zirikadak sartzen hasten da Lauaxeta eta horregatik sortzen du Zirika edo Zirikadeak saila, bata eta bestea txandakatuz (azkena, 1933-V-24tik aitzina, aldika; eta berriro

1934-V-tik aurrera, adib. Euzk 7163, 1935-12-10). Sail horretako artikulua ere Lauaxetak izenpetuak dira. Generoa bestelakoa da: izenburuak dioenez, gertaeren eta etsaien jokaeraren komentario labur ironiko-sarkastikoak, argudiatzeko premiarik gabe. Politika gaiak dira nagusi. Asmoa, etsai politikoak (tradizionalistak –Olazabal, La Constancia–; sozialistak –Prieto, Laiseka, Meabe– farregarri uztea. Euskal Herrikoak eta Espainiakok ez ezik, mundukoak ere (kasu honetan ez dira ironikoak, berriak laburki baizik). Sail honetako artikulua izenburu gabeak dira, glosa multzo batek osatuak, bata bestetik marra batez bereziak. Interesgarriak dira Lauaxetaren balioak, filiak eta fobiak ezagutzeko (arrotzak, nudismoa). Ik. sorta bat in Altzibar 2005.

Hizkuntza aldetik Azalpenak baino ulergarriagoa da: hitz mordoiloak ageri dira (*multa, denuntzia, enbargau, «excomulgata»*). Kalifikatibo gogorrak (abereekiko konparazioak, gutxiesgarriak) alde batetik, umorea bestetik (eufemismoak, metaforak hiztegi politikoan: *sosolistoak, margaritak-margaritoak, hauspogileak* «salatariak», *basurdeak* («Udal-ixunak»). Zirikalari ospetxoa hartu bide zuen egileak («Lauaxeta zirikalari ospetsubak, (...)), «Ni nok», Errijetatik: Mallabia, Euzk 7249, 1936-3-19). 1936an inoiz itzultzen da, beste tonu batean, sinatu gabe (adib. Zirikadak, Euzk 7224, 1936-2-19; Lauaxeta ote idazle?). Beste iritzi artikulua batzuk ere, sinatu gabeak, Lauaxetarenak dirateke, adib. 1936ko otsaileko hauteskunde ondorengo batzuk, edo agian Iritzijak noizbehinkakoa (Euzk 6513, 1933-10-22/24).

Berriak interpretatuta (edo iritziarekin nahaste): Egunekua saila (1931-1935). Eguneko 4-5 berri garrantzitsu, hurbilenak, komentatuta. 1931an hiru zatitan banatua agertzen da: 1) Euzkadi'tik (hiruzpalau izenburutxo zituen Euskal Herria ukitzen zuten gai nagusiei buruzkoak: «Politika arazuak», «Euzkel ixenak», liburu/aldizkariaren baten izena, haren argitalpen berria kari; erlijio/Eliza Katolikoaren inguruko kontuak, adib. misioak (*belguntzak*). 2) España'tik (politika-, gizarte-gaiak: berri laburrak, esaldi bat edo bi, bere izenburutxoarekin, are berri hutsak. 3) Atzerrietatik. Egunkarietatik hartutako gai eta zeresanak darabiltza.

Egunekuaren kokapena: 1931ean 5. or., batzuetan 6. or.; 1933an 1. or., lehen zerrendan eta lehen tokian, hoberenean (euskal ataleko gainerakoak 8.ean). Sail hori Kirikiñok hasia eta biziarazia zen; 1934 aldean Lauaxetak lehen orrialdetik kendu eta euskal orriaren barnean kokatu zuen, gainerakoekin batera. Gehienetan «Uribitarte'tar Ibon»ek (I. Enbeita) izenpetua zen, haren saila baitzen. Inoiz, «Utarra»k (Euzk 5786, 1931-6-30). Izenpetu gabe datorenean, batzuetan Lauaxeta da egilea (1931), berriz eta noizbehinka itzultzen dena (1933-abuztuan, 22^a arte, izenpetuz edo gabe; irailean 13-24 bitartean ere; 1934ko irailean, ik. Euzk 6781, irailaren 10 arte). Baliteke kasu batzuetan I. Enbeitak oporrak hartzen dituelako izatea. Abeletxek ere idazten du noizbait (Euzk 1931-7-1).

Gayak saila Egunekuaren jarraipena da eta beraz «Uribitarte'tar Ibon»ek idatzia. 1935 urri ingurutik 1936ko amaiera arte iraun zuen (Euzk 7491, 1936-12-31), orduan M. Enbeita *Egunako* idazle bihurtu baitzen.

Beste iritzi-artikulu nagusi batzuk, 1936 otsail ingurutik aurrerakoak, toki berezian kokatuak dira: edo erdian, edo negritaz, horietako batzuk behintzat zirikadak. Susmatzen dugu Lauaxetarenak izan daitezkeela. Edo behintzat hark iritzi-artikulu ugari idatzi zituela, izenpetu gabe. Propaganda-artikuluak eta artikulu sailak batez ere hauteskunde aurrean ageri dira. Ugariak dira 1936ko otsail erditsukoak, sinatu gabeak noski baina agian Lauaxetak idatziak.

Beste kazetalan batzuk: irakurleekiko harreman-generoak. «Itaun-erantzunak» sailak (Euzk 6939, 6940/ 6944, 1935-3-21/22/27) irakurleen galderak edo eskutitzak zuzendariari, eta zuzendariaren erantzuna kokatzen ditu. Egungo «Zuzendariari eskutitzak» modukoa da («Lauaxeta jauna...»). Lauaxeta ez da erantzule bakarra: A. Zatarain ere bai (Euzk 6949?).

III b. Berriak: Erri(j)etatik saila (1931-1936). Hau da euskaraz idatzitako sail garrantzitsuen eta iraunkorrena *Euzkadin*. Herrietako berriak dira, herriak: jaiotzeak, ezkontzeak, heriotzeak, gorabeherak, liskarrak etab., ataletan banatuta, izenburu labor-laburrekin (1-2 hitz). Batzuetan 7. or. kokatua; beste batzuetan 12.ean, azken orrialdean.

Berri laborrak ugari eman zituen Lauaxetak. Izpar Urtenenak, Jakingarrienak edo Gai Jakingarrienak dira hark idatziak bide diren berriak kokatzen dituzten sailak. Izenpetu gabekoak dira, batez ere politikakoak eta 1934, 1935 urteetakoak. Berrien ziurtasuna egiaztatzea eragozpen bat zen, askotan amenomenkako berriak baitziren («ei», «omen»). Izpar Urtenenak saila da aipagarriena (1933), lan handia egin baitzuen sail honetan berriak laborri eta orrialdearen erdi-erdian kokaturik emanez. Bera da itzultzaile edo moldatzaile, bera kanpoan denean ez da sail hori ateratzen. Ik. sortatxo bat in Altzibar 2005: 165-168, 171-174. Jakingarrienenak (1934-IV-4 – 1934-V-8) sailekoak ere berri labor soilak dira, berri ugari, mundu guztikoak. Izenpetu gabe egon arren egilea Lauaxeta da hizkera eta idazkeraz; izenpetu gabe argitaratzeak ere haren egileta on egiten du nolabait, hura baitzen atal osoaren arduraduna. Gai Jakingarrienenak (1935-V-5 – 1936-V-20) aurrekoaren jarraipena da.

Badira izenpetu gabeko beste berri-sail batzuk, iraunkorrak ez direnak. Lauaxetak beteak izan daitezke, horietako batzuk bederen. Berriak laborri ematen dituzte horiek ere. Hona: Atzerrijetako Erriketea izenekoak (1933) nazioarteko politika gaiak hartzen ditu, informazioa eta iritzia emanez; Tantaka» (1933); Politika-Sailla (1935); Aste Onetako Barriak (Euzk 6954, 1935-4-7tik hasita), nazioarteko eta Espainiako gaiak erabiltzen dituena; Eztakixu...? (1936, gerra hasi arte), 1. orrian agertarazia); Autu-Mautuka (1936), aurrekoaren garai bertsukoa.

Gerra hasi zenean, Lauaxeta idaz-bulegotik aldendu eta I. Enbeitaren ardurapean Matxinada-Izparrak-Eta saila agertzen da abuztu hasieran, hau baita gerra garaiko iraunkorrena. Berri laburrak dira, 2-3 esaldikoak. Geroago, Geurre Guda-Oñetako Izparrak atera zen, «Ogoñope»ren ardurapean eta batzuetan hark berak sinatuta; gero *Egunan* agertuko den sail beraren aitzindari dateke. 1936ko urte amaieran Zer-Esanak saila (Euzk 7484, 1936-12-22).

Itzaldijak zen beste sail moduko bat, noizbehinkakoa (adib. 1933ko maiatzean, «Itzaldi pilloa!», Euzk 7019, 1935-6-25). Batzokian, Euzko-Gastedijan etab. emandako hitzaldien berri eta laburpen zekarren eta hor A. Ruiz de Azua «Ogoñope» eta agian besteren bat ziren idazle. Iparraldeko berriak ere agertarazi zituen Euzkadik: Zortzitik Zortzirat saila, «Haur Prodigoa» (J. Elissalde) idazle jarraikiak sinatua. Hamabostean behin edo, ateratzen zen.

III c. Iritzi sail bereziak

III c. 1. Politika-gaiak. Estatutoari (*Euzko-Araudia*) buruzkoak, eztabaidagai edo hautagai zelarik argitaratuak (1932, 1933, azaroaren 5eko plebiszito garaikoak). Idazle: Lauaxeta, J. Garmendia «Zeleta» (Euzk 6511, 1933-10-20), J. Peña «Aitza» (Euzk 6522, 1933-11-2). Iritzijak sailean kokatu ziren beste batzuk: Euzk 6513, 1933-10-22; Euzk 6514, 1933-10-24. Hona artikulua batzuk: «Euzko Araudia ta euzkera» (Euzk 6516, 1933-10-26); «Euzko-Araudijaren guredea» (Euzk 6526, 1933-11-7); «Euzko-Araudija ta emakumeak» (Euzk 6526, 1933-11-7); «Araudija ta izparringiak» (Euzk 6527, 1933-11-8). Hauetako gehienak ez dira sinatuak.

Ideologiazko artikulua edo artikulua ideologiko-politikoak gutxi dira. Idazleen artean aipa daitezke: Jemein'dar K., bere «Euzko-Laterri-Itungidetz» artikulua bildumarekin, 1933 apiril-maiatzekoa (Euzk 6361, 1933-4-28; Euzk 6364); «Gatarjon» (J. Garmendia «Zeleta»?), karlismoari buruzko artikulua sortu batekin (1933); Barrenso. Ik. Eraskinak (III) *Euzkadiko* euskal idazleak.

Filosofiazko batzuk ere argitara ziren, adib. «Zaizuri»ren «Aberearen arima ezta gozkoak» (Euzk 6434, 1933-7-22).

III c. 2. Gizarte-gaiak: haur- eta emakume-gaiak. Baserri-, langile-, sindikatugintza-gaiak. Haurren hazkuntza eta hezkuntzaz idazten zuen Euzkotar Umien Aldez sailean «Arritokietak» (Julene Azpeitia), ipuin, irakurgai eta irakaskuntza gaiak erabiliz.

Emakume Bizitza saila (1931). Idazleak: E. tar J. (Euzk 5639, 1931-1-6, 1931-6-10, 1931-6-26); «Maite» (Jule Gabilondo Mungiakoa, Beasainen bizitza, EABkoa), E. Mujika «Tene» (Euzk 5757, 1931-5-27). E(makume) A(bertzale) B(atza)ri buruz eta erakunde horretakoek idatzitako artikulua zenbait argitaratu zuen Lauaxetak eta berak ere idatzi («Emakumiak», Azalpenak, Euzk 6292, 1933-2-5). Jakingarria da euskal idazle batzuk (Sorme Unzueta, Karmele Errazti...) EABko buru izan zirela. Herrietako berriemaile emaku-

meak ere franko ziren, esan dugunez, hizlariak eta irakasleak ere bai. Emakume idazleen artean badira batzuk emakume gai eta ardurei buruz ari direnak. Gero, gerratean emakumeek eta halaber emakume idazleek ardura andia goa hartu zutela dirudi (besteak beste, «Arritokieta» eta «Maite» *Egunako* idazle izan ziren). Lauaxetari zor zaio, hein batez, ardura hori: 1931-10-7an, 5. or., «Idazliai» oharrean euskarazko idazlanak bidal zituztela eskatzen die emakumezkoiei (Penades: 1996: 36, 34. oh.). Badirudi sentiberatasun berezia zuela emakumei buruz.

Gizarte- eta baserri-gaiak: horietako asko euskal ataletik kanpo, beste orrialderen batean argitaratuak izan ziren. Idazleak: «Ibai-Gane»; Aita Martin Uriarte Odriozola (1879-1960), «Martiaritu», «Barazar», «M.U.», «A. Martin» sinatzen zuena, baserri gaiak jorratuz; Lauaxeta bera (adib. «Lugiñak», *Euzk* 6273, 6275, 1933-1-14, 1933-1-17).

Langile, baserritar, arrantzaleen sindikatugintzazko gaiak ere badira; ez asko ordea. Aipa daiteke, adib. «Baserrietako morroien eskubideak» artikulua (sinatu gabe, *Euzk* 6768, 1934-8-18). Hauteskunde garaian maizago ageri dira honelakoak, garrantzia zutelako seinale (adib. «Desautzijuak», *Euzk* 7212, 1936-2-5; baserrien «desautzioak», hots).

III c. 3. Erlijoaren inguruko sailak: Katoliko Bizitza. Idazleak: Gabirel Manterola «Mitarga» (*Euzk* 5635, 1931-1-1), E. tar J. 1933 ingurutik aurrera gehitu egiten dira sailok. Igandietako Jaupa-Atalak izeneko sailean «Atarrizbarna»k idatzi zuen. Deunen Bixitza hagiografia saila 1933ko apiriletik aitzina bederen atera zen, idazle zirela: M.B.S, E'tar J., A.'tar I, T'tar J., «Mitarga», Agirre «Agarel». Beste sail moduko bat, Santu-Izenak («Santoral vasco», adib. *Euzk* 6687, 1934-5-16).

III d. Jakintza-gaiak: zientzia dibulgazioa. Euskal idazle askok –abertzaleek batez ere baina ez bakarrik– jakintza-gaiak euskaraz lantzeko ardura izan zuten, nahiz eta, sabindar eskolakoek bereziki, hiztegia garbizalekeriaz bete. Haien merezimendua da euskara jakintzagaietan erabiltzea (Lizardiren «euskera norainakoa»). Adib. «Zaizuri»k kritika egiten dio Aitzoli, honek bere *La muerte del euskeran* –Unamuno eta Baroja-ren aurka idatzia– euskara gai dela esan eta gero *Yakintzan* dena erderaz atera zuela-eta (*Euzk* 6413, 1933-6-28) (19).

Ondoren Lauaxetak agertarazi sail eta idazlan batzuk aipatuko ditugu. Biologia gaiak: Pizti-Patariak saila (1934-1936, asteazkenero). Idazlea: B. Ga-

(19) «Zaizuri»k «Il-zori aurreko antziak» gipuzkerazko artikuluan euskara jakintzagaietan eskatzen du, ez bakarrik herriko izpar eta olerkitxoetan. Euskara euskal gizartean gero eta gutxiago erabiltzen dela dio (*Euzk* 6413, 1933-6-28).

Hona Zaitegiren «Kizkiña» (zelula) dela-eta, gai tekniko eta hiztegi teknikoaz norbaitek (Lauaxetak agian) idatzia: «Estos trabajos no son para la masa de lectores euzkeldunes, pero autorizan el idioma mejor que los artículos sobre la muerte del euzkera. Estamos ya tan cansados de los mismos temas.» (*Euzk* 6422, 1933-7-8).

rro «Otxolua». Aipa daiteke ere «Ogoñope»ren «Bidegarro ta zozua» artikulua (Euzk 7129, 1935-10-31). Garcia Peñaren *Patología vegetal* liburuaren itzulpena ere, B. Larrakoetxeak egina, aipatua da (Euzk 6662, 1934-4-15). Astronomia gaiak: *Gaudizti gaitetzaz* (1933), «Agarel»ek (Eli Agirre) idatzia. Fisika gaiak (G. Jauregi-ren *Pisia* liburuaren aipamenaz gain, ik. Euzk 7127, 1935-10-29). Prehistoriako gaiak ere landu zituen Agirre «Agarel»ek. Soziologia gaiak kokatzen zituen «Gizartizti-gayak» sailak, Eulogio Gorostiagak-eta idatzia (ik. adib. «Lanaren ernaritasuna» artikulua, Euzk 1931-4-28, edo Euzk 1931-5-1). Agintarizta-gaiak noizbehinka agertaraziak ziren, (adib. Itxastar, Euzk 6366, 1933-5-4). Edo Arte-gaiak, aipatu «Agarel»en eskutik («Erti-idazkija» artikulua, Euzk 6788, 1934-9-11).

III. e. Euskal kulturako erreseina kritiko eta propaganda idazlanak ugaririk dira, batez ere euskal liburu argitaraberrien berri- eta kritika-kazetalanak (literatura huts, antzerkian, eskola-liburu, kazeta eta aldizkari...). Baita gainerako euskal kulturagaienak (musika, artea). Orobat kultur-gertaeren berriak, adib. omenaldi eta sariketenak: Kirikiñoren omenaldiak, Kirikiño saria, Arrese-Beitiaren omenaldia, Lizardiren omenezko idazlanak (Euzk 6324, 1933-3-15tik aitzina) etab.

Lauaxeta bera da agian idazle ugariena (bere Idazti Barrijak, Azalpenak eta, batzuetan, Egunekua sailetako artikuluekin, edo sail jakin baten pean katu gabekoekin. Baita gaztelerazko Temas Vascos, noizbehinkako La Sema Cultural Vasca (1933), Bibliografía eta erdal orrialdeetako hainbat artikulua eta euskal ataleko baina sail jakin gabeko beste hainbatekin (ik. Kortazar 1982; Mallona 1991; Alzibar 2005). Garai hartan argitaraturiko euskal edo euskal gaiezko liburu gehienen erreseina kritikoak idatzi edo agertarazi zituen Lauaxetak euskal atalean. Baliotsuak dira eta azterketa bat merezi dute. Harenak ez dira bakarrak ordea. Erdaraz argitara zituzten beste idazle batzuek: Aitzol, X. de Illaramendi, J. Artetxe eta abarrek (20).

Temas Vascos sailak euskal kulturagaiak euzkotar erdaldunentzat eskaintzea zuen asmoa: euskal liburuak, euskal kulturazko liburuak, musika- eta dantza-ikuskizunak, etimologiak. Idazleak: Jemein'dar Keperin «Jadarka» edo «Amandarro» (Euzk 5676, 1931-2-18; Euzk 5694, 1931-3-11; Euzk 5700, 1931-3-18; «Goyetsi» (Euzk 5642, 1931-1-9); Lauaxeta; Lizardi («Neologismos en aritmética» artikulua, Euzk 1933-1-28); «Nabarritzarra» (Euzk 6458,

(20) Aitzolen asko, euskal nazio-literatura baten premia predikatuz, *Euzkadi* eta *El Dían* lehen orrialdean atera ziren. Hona batzuk: «Teatro nacional. La obra de los checos», Euzk 6659, 1934-4-12; «Estética peculiar de la poesía vasca», Euzk 6667, 1934-4-21; «I. Dia de Teatro Euzkeldun», Euzk 6686, 1934-5-15; «Por la literatura euskaldun», Euzk 1934-10-29; «Balance literario euskaldun de 1934», Euzk 6685, 1935-1-6; «Por el teatro nacional euskeldun», Euzk 6979, 1935-5-9?, 1. or?); «Revasquización del pensamiento literario», Euzk 7351, 1936-7-18).

Hona, berriz, J. Artetxeren zenbait: «Una obra de P. Lafitte: Gr. Adema-J. Barbier», Euzk 6459, 1933-8-20; «Las últimas poesías de Lizardi», Euzk 6705, 1934-6; Euzkadi filmeaz, Euzk 6784, 1934-9-18; «Vindicación del bersolari», Euzk 1934-12-21.

1933-8-19) etab. Ordea, «Endaitz»ek kritikatu zuen Lauaxeta, Kirikiñoren Euzkel Gayak saila ez zuelako argitaratzen (ik. Eraskinak (II) Oharrak Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari, Euzkel-gaiz» Endaitz, Euzk 6779, 1934-8-31). Etimologiazko lanak ere argitara ziren Temas Vascos sailean (Euz 6404, 1933-6-17; Euzk 6409, 1933-6-23). Bibliografia saila ere, noizbehinkakoa eta izenpetu gabea, gaztelaniaz da (Euzk 5660, 1931-1-30; Euzk 1933-4-27).

Euskarari buruzko sail modukoak edo irakaspen-artikulu sortak ere –eus-kara hobeto ikas eta idaztekoak, etab.– agertarazi zituen Lauaxetak: Ondo-Esan Bidiak artikulu sorta edo noizbehinkako sail modukoa (Euzk 6511, 1933-10-20; 6512, 1933-10-21: hiztegi, lokuzio...). Ikasi, Euzkeraz (esaldi laburrak, Euzk 6659, 1934-4-12). «Vinson'en esakunak» (I, II, Euzk 6666, 1934-4-20 eta Euzk 6670, 1934-4-25). Azken hau Lauaxetaren eskukoa dateke, besteak ere haren asmokoak, oro euskararen jatorrasuna zaindu nahi zuelako ezaugarri. Aipa daiteke ere «Voces Técnicas en euzkera» artikulua (Euzk 1935-3-27; 1935-4-4), idazleek hitz teknikoak eskatzen omen zizkiotela-eta argitaratua.

III. f. Kazetalan jostagarriak: ipuinak, umeentzako eta ikasle gazteentzako irakurgaiak, literatura. Tradizioz, *feuilleton* izeneko orrialdeetan kokatuak ziren. Kirikiñok ipuin barregarri ugari idatzi eta argitara zuen; Lauaxetak ere bai, Kirikiñoren tradizioan. Genero irakurriena zen agian: Kirikiñoren barregarrikeriak igandeetan irakurtzeko erosten zuen euskaldun askok *Euzkadi* idazle haren garaietan. Lauaxetak ere badio: «Errijak gogozago irakurri oi-dauz, ipuin barregarriak» (Uarra, «Nabarra» Irular, Euzk 6670, 1934-4-25). Sortatxo ederra idatzi zigun: 36 bai gutxienez; ugari 1932an (ik Kortazar 1982: 17-21; Mallona 1991: 25-28); Altzibar 2005).

Umeentzako eta ikasle gazteentzako irakurgaiak (ipuin, alegi, bertso, asmakizun...) ugari argitara ziren *Euzkadin*, ipuin itzuliak (Grimm anaienak, Afanasiev-enak, turkiarren ipuinak, ...) nahiz euskalki batetik besterakoak (Barbierren lapurtera-nafarrerazkoak B. Garrok bizkaierara). Idazle edo itzultzaileak: Altuna, «Legoaldi», B. Garro etab. (ik. Eraskinak (III) *Euzkadi* egunkariko idazleak). Euskal Herrian, XX. mendearen hasieran halakoei balioa ematen hasi ziren eta indartzen, euskaltzaletasuna eta euskera bera suspertzeko asmoz. Idazle asko beste herrialdeetako liburuen itzulpenak egiten hasi ziren, irakurzaletasuna bultzatzeaz gain hizkuntza aberasteko ere garrantzitsua baitzen.

Sailak: Gastetxoen Atala (1932-V), Euzkeldun Barrien Lanak eta batez ere Euzkotar Umien Aldez. Euzkeldun Barrien Lanak sail modukoa zen, Bilboko Institututoko 3. urteko ikasleentzako sariketak antolatzen eta lan hautatuak argitaratzen zituen (Euzk 7144; Euzk 7161 1935-12-7. Ik. ere Euzk 7116, 1935-10-16; Euzk 7121, 1935-10-22). Euzkotar Umien Aldez, J. Azpeitia «Arritokieta»k idatzia zen (1933, 1934, 1935). Euzko-Gastedijako euskal ikasle gaztetxoentzako alegi, ipuin, irakurgaien argitalpena ere bultzatu zuen Lauaxetak. Hor argitara zen ere «Arritokieta»ren «Muni umearen eriotza» ipuin kla-

sioa (Euzk 7123/7127, 1935-10-24/29). «Arritokieta»z ik. III.c.2 Gizartegaiak. Ikasle Ingoskija (1934, adib. Euzk 6670, 6709) Bizkaiko Ikasle Batza-
ren orrialdea zen (21).

Beraz haur eta gazteen idazlezaletasunaren bultzagile izan zen Lauaxeta, *Euzkadiren* euskal atalaren bidez. Ikasleen sariketa batzuetako epaimahaikide ere, adib. teatroan, T. Alzaga eta A. M. Labaienekin batera (22). Ipuinez gainerako idazlan labor farregarriak gutxi eta noizbehinka baizik ez ziren argitara (ik. adib. zenbait ateraldi labor, «Kaiku» delakoak idatzita «Izkirimiriak» idazlanean, Euzk 6353, 1933-4-19; edo «Kitu» ateraldia, Euzk 6662, 1934-4-15).

III. g. Literatura-lanen (olerkia, bertsoak, antzerkiak,...) argitalpena bultzatu zuen Lauaxetak. Horiek ere tradizioz *feuilleton* orrialdean kokatu ohi ziren, kazetalan jostagarriekin batera. *Euzkadin* euskal literaturari (stricto sensu) tokia egin behar zitzaioela uste zuen Lauaxetak («Olerkarietari oharra», Euzk 7141, 1935-11-14). Egitez, Kirikiño eta Orixek baino arreta gehiago jarri eta lan berezia egin zuen arlo honetan. Hori da euskal atalaren berezitasun bat, edaraz ez baitzen halakorik egin.

Olerkariengan uste handia jarria zuen Lauaxetak (23). Hainbat olerki sail eta olerkari agertarazi zituen: Euzko-Olerkiak, Geure Oleskarijak edo Gure Olerkariak eta Atzerriko Olerkariak noizbehinkako sailak, lauak 1933koak (urte horretakoa da Euzko-Elerti Saila ere, ik. Euzk 6461, 1933-8-23). Beste sail batzuk: Olerkari-Atala (1935), Olerki-Salla (1935 abend.) (24). 1936ko uztaile-abuztuan Olerti-Atala, Olerki Atala edo Olerkari Atala edo saila ostegunetan argitaratzen hasten da. Olerki ugari argitaratzen zituela ikusita, askok gortzen omen zizkioten beren olerkiak (25).

Besteak beste ondoko olerkari olerkiak argitara zituen (alfabetoaren araberrako hurrenkeran): «Erletxue» (J. Abando), «Barrensorro» (T. Agirre), «Endaitz» (E. Erkiaga), J. M. Garate, «Iramendi» (Lauaxetaren laguna, Laz-

(21) «I Certamen del Estudiante Vasco. Temas y premios: Cultura vasca. Teatro. Traducción de un cuento al euzkera. (Euzk 6723, 1934-8-24). Izan ere, Euzko-Ikasle-Batza antolatuz doa 1934an: «III. Congreso de Euzko-Ikasle-Batza. El euzkera en la Universidad» (Euzk 6776, 1934-8-28).

(22) Ik. «Lur-gorri»ren «I Certamen del Estudiante Vasco», Euzk 7025, 1935-7. Ik. ere Goitia'tar Iñake ipuin idazle gazteari eginiko oharra, idaztera bultzatuz: «Uarra. Zorionik samurrenak. Aberrija itxartuteko beste baitarik eztago. Lauaxeta.» (Euzk 1933-3-1. Eraskinak (II) Oharrak Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari).

(23) «Olerkarijak zoruak dira, deus eztira. Baña ori esaten dabena gogor urten bihar dautsegu. / Olerkarijak langorik eztago erri bat itxartu-erazoteko. Lur-barnian datzan azijak zelako ots biguna egin daruan be, entzuten baitau berak.» («Lizardi zanaren gomutaz», Euzk 6709, 1934-6-10).

(24) Euzko-Olerkiak eta Geure Oleskarijak sailetan idazle: Barrensorro (Euzk 6266, 1933-1-6; Euzk 6270, 1933-1-11) etab. Geure Oleskarijak sailean: «Ibai-Alde», «Uraskako Jel-olerkarija», «Erletxue» (Euzk 6354, 1933-4-20). Atzerriko Olerkariak-en: Zaitegi (Euzk 6528, 1933-11-9).

(25) «Uarra: «Olerki-Atalok egubenetan argitalduko dira. Olerkari asko agertzen yakuz eta euren lanok argitalduta ikusi gura leukiez. (...) "L"» (Euzk 7342, 1936-7-9).

kaoko berriemailea, Euzk 6406, 1933-6-5), Jakakortarena, «Jautarkol» (Jauregi), «Lotsati», S. Muniategi, «Satarka» (Kl. Sagarzazu), Tapia-Perurena (Euzk 6404, 1933-6-17), J. Zaitegi, etab. «Errenteri'tar Erramun», Astibia deiturakoren olerkiak ere argitaratzeko asmoa zeukan («Lizardi zanaren gomutaz», Euzk 6709, 1934-6-10). Bertsoak (zahar eta berri) eta bertso-egileak ere argitaratu zituen: «Basarri» (I. Eizmendi), K. Enbeita, Txirrita (Euzk 1933-1-10) etab.

Antzerkiak *Euzkadin* argitaratzeko asmoa berez garrantzitsua da, ez baita ohikoa euskal literaturan. Arrazoi nagusia, dirudienez, abertzaleek antzerkiari ematen zioten garrantzia da. Gaztelaniaz ere argitaratu ziren euskal teatroaz zenbait artikulua, 1. orrialdean (Aitzol, Kutuntxu). Antzerki laburrak argitaratzeko joera erakutsi zuen Lauaxetak 1934tik aitzina. *Euzkadin* ondoko antzerkigileen lanak argitaratu zituen: «Arteta» (A. Zubikarai), «Endaitz» (E. Erkiaga), B. Garro, bereak noski (ik. Bibliografia: Urkiaga, E. «Lauaxeta» *Antzerkiak*, J. Kortazar-ek prestatua, 1990) etab. Gero bestalde, Lauaxetaren antzerkiari buruzko berri eta kritika artikulua ez dira gutxi.

Ik. Eraskinak (III) Euzkadi Egunkariko Euskal Idazleak.

III. h. Herri folklorea («herri-jakintza») eta herri literatura: «Euzko-Erri-Jakintza» saila. 1932an Lauaxetak herri-jakintza edo folklorea biltzeko deia egin zuen, nahiz eta lehenxeago zenbait lan argitaratu ziren (26). Bultzatu ez ezik, Lauaxetak berak hasi eta etsenplu eman zuen, Mungiako baserri-izenak batuz (Mallona 1991: 121-136). Etengabe sustatu zuen sail hau 1932, 1933, 1934an, idazleak isil samar zeudenean akuilatuz. Lauaxetari jarraituz, «Jatabetarra» delakoak, Maruri-Jatabe-ko basetxe-izenak (Jatabetarra, «Maruri (Jatabe'ko) Basetxe-ixenak», Euzk 6320, 1933-3-10), «Egileor'tar Genar»ek «Galdakao'ko basetxe-ixenak», Arri-Gotzonek «Urretxua'ko basetxeak» (Euz-

(26) «Gaurkuan erakutsiko dautsegu zer egin dagikien. Geure euzko-errijetan gauza jakin-garrijak dira. Abestijak, esaereak, ipuñak, edestijak, basatxonuak, mendi-ixenak, baserri-ixenak eta abar. Gatxa-ete yatzube errittarren abestitxu bat *Euzkadira* bidaldu? Errijan entzuten diran bertzo batzuk batu ta ingitxu baten zuzendutia ezta neke andirik ba. Baña idazliak ezpegiye aldatu ezertxu be. Entzuten diran legetxe, idatzi begijez. / Sari batzuk jarriko doguz iru illabete oneitan gauzarik onentxubak bidalduten dabezenantzat. Euzkereak aurrerakuntza andija artuko leuke euzkel-idazliak batuko balebez euren errijetako esaereak, abestijak eta abar. / Bedarrai zelan deritxoan, txorijai. Gai egokijak benetan! Bestiai ikas-bidia erakusteko, ementxe jarriko dodaz Mungijan bildu dodazan baserri gustijen ixenak. Gustijak ezpadira be, geyenak ementxe daukodaz batuta. Itzorkun gayetan dabiltzanak idoroko dabez ixen polittak. Neure ingitxuban diran eran, ba, jarriko dodaz. Arlo onetzaz zelan lan-egin idatziko dogu.» (Euzk 1932-6-14, AB 121-122).

«Euzkel-idazle asko ta asko doguz, baña erriko izparrak bidaldu ezkeruan pozik dagoz. Loraen ixenak ba-dakixuz? Solo artan diran bedar edo loraen ixenak adiraldu egixuz eta zure izparringira bidaldu. Euzko-idazle-Batza'ren artxibua egingo dogu. Antxe gordeko dira idazle bako-txak bidalduten dauzan esaerak, ipuñak, bedar edo lora-ixen eta abar. Zelako lana egin daiegun!» («Aberri»ri omena», Euzk 6440, 1933-7-29).

1932 baino lehenxeago zenbait lan argitaratu zituen: «Olerkiak. Erri-yakintza edo Folk-lore», G'tar F.k batuak (Errijetatik, Euzk 5771, 1931-6-12); «Makil larijak» bertsoak «Garate'tar J.M.».

ko-Erri-Jakintza, Euzk 6462, 1933-8-24), «Iramendi»k» «Lazkao'ko basetxe ta mendiak» (Euzk 6474, 1933-9-7) eta «Atarrene» donostiar idazleak 112 bat ezizen bildu zituen, garai bateko Donostiakoak, arrantzale artekoak, «Euzko-Erri-Jakintza» saileko «Ezizenak» artikuluan (Euzk 6403, 1933-6-16. Ik. Eraskinak (II) Oharrak: Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari. E. Bustintza «Mañariko»k Mañari herriko bertso-zahar, dantza koplak eta ipuinak batu zituen (27). Beste bertso zahar batzuk ere argitara ziren *Euzkadin* (28). Baita bertso berriak ere «Endaitz» eta bestek (29).

1934an atsotitzak biltzeko kanpaina egin zen: E. Agirre «Agarel»ek atsotitzak batzeko deia, jarraibideekin («Geuriari buruz. Euzkel-idazliai», Euzk 6661, 1934-4-14). Lauaxetak Vinson-en atsotitzak argitaratzen eta iruzkintzen ditu («Vinson'en esakunak», Euzk 6666, 1934-4-20; II, Euzk 6667, 1934-4-25). D(omingo) S(oubelet)-ek L. Léon Arrangoitzeko jaun erretoraren *Proverbes basques et vie spirituelle* liburuaren berri ematen du (Euzk 6684, 1934-5-12). Aipatu Agirre «Agarel» berak Lauaxetari proposatzen dio herrietako toki-(etxe-) izenak, hitzak, esakunak, oguzkera, aditza etab. batzea («Euzkerekarren. Lauaxetari» («Agarel», Euzk 6797, 1934-9-21. Agarel 1934-1935ean hil zen).

Euskal folklorea biltzeko Lauaxetaren asmo tinkoa bat dator Euskaltzaleak taldearenarekin, «Politika gairik ukutu gabe, Euskalherri osoan erri-yakintza zabaldu gura leukienez lagun taldea» baitzen («Euskaltzaleak», Euzk 5646, 1931-1-14). Baita garaisuko Azkueren asmo eta lanekin (*Euskalherriaren Yakintza-Literatura Popular del País Vasco*, Espasa Calpe, Madrid, 1935, 1942, 1945, 1947).

Bestalde, euskal ohitura edo bizibide zaharrei buruzko idazlanak ere argitara zituen *Euzkadik*, adib. B. Larrakoetxea, «Barrensorok», J.M. Garaterenak (30).

Ik. Eraskinak (III) *Euzkadi* egunkariko euskal idazleak.

Ondoren, Lauaxetaren artezkaritzapean euskal atalak izandako bilakaera eta aldaketek ariko gara. I. Enbeitaren sail edo zutabea (Egunekua, gero 1935-

(27) «Bertso zarrak» «Mañariko» (*Errijetatik*: Mañaria, Euzk 6339, 1933-4-1; 6373, 1933-5-12; «Bertso zarrak» (Euzk 6384, 1933-5-25; Euzk 6389, 1933-5-31; Euzk 6401, 1933-6-14. Ik. ere Euzk 6394, 1933-6-6. «Ume abestijak» (Euzk 6407, 1933-6-21). «Dantza-abestiak» (Euzk 1931-6-23; 1931-6-27; «Dantza-abesti zarrak», Euzk 6453, 1933-8-16; Euzk 6466, 1933-8-29; Euzk 6945, 1935-3-28). «Esakun zarrak» (Euzk 6533, 1933-11-15).

(28) «Neurtitz zarrak» («Ama zeuriak neuri / kalian topauta...» hasieradunak, Lekeition, «Beti-Bat» delakoak bilduta, Euzk 6288, 1933-2-1; «Morroyarenak» batu zituen Markinan hango berriemaile «Ete»k: Euzk 6410, 1933-6-24. Muxikako Enbeita anaiek «Bei zarren bertsoak», 1902. urtean jarriak, Euzk 6352, 1933-4-18.

(29) Lekeition «Endaitz»ek «Bertso berriak», amamari jasoak (Euzk 6744, 1934-7-); ik. ere Euzk 6470, 1933-9-2.

(30) «Naharra», Euzk 1931-4-29; Larrakoetxea'tar B.J., «Euzko-Ekandu-Laukiak», Euzk 6759, 1934-8-8; Barrensorok, «Ogia erosi bitartean. Oiturak», Euzk 6758, 1934-8-7 eta «Goldearen atzetik», Euzk 6761, 1934-8-10; J. M. Garate, «Karabija», Euzk 6409, 1933-6-23.

1936an Gayak), eta herrietako berriak (Errijetatik) izan ziren euskal atalaren habe iraunkorrenak. Errijetatik, habe garrantzitsuena. 1933 arte, esandakoekin batera, Lauaxetaren iritzi artikulu nagusia (Azalpenak, 1931-1932) eta ipuinak. Ipuinak iraunkorrek dira (genero gisa, nahiz Lauaxetak berak 1932tik aitzina gero eta gutxiago idatzi).

1932an, esan bezala, Lauaxetak Euzko-Erri-Jakintza bultzatzen du. 1933an, aldaketa batzuk egiten ditu, euskal atala hazi ahala edo hazi nahirik: berri laburrak sartzen ditu; ipuinak noizbehinka argitaratzen jarraitzen du; bere iritzi-artikulua kentzen du eta beste idazleei bide egiten; haurrentzako irakurgai, olerki eta bertsoak argitaratzen ditu; antzerki eta eleberri laburrak ere argitaratu nahi ditu, ahalaz euskara erraz, labor eta bizkorrean. Antzerki labor zenbait behintzat argitara zituen (adib. Garro «Otxolua»ren *Saña*, Zubikarainen *Illobearen indarra*, «Endaitz»en besteren bat etab.).

1934ko apirilean, «Irular»ek (A. Irigarai) diotso Lauaxetari euskara pizteko herrietako berri igortzaileen lana ordaintzea komeni dela; euskara ez dela hartu behar ez ikur ez apaingarri hustzat, askok hartzen dutenez; udaletxeetako kargudunentzat euskara jakitea beharrezkoa izan behar litzatekeela etab. (Irular, «Nabarra», Euzk 6670, 1934-4-2). Lauaxetak erantzuten: egia hutsa dioela «Irular»ek; euskara gauzetan atzera doazelako susmoa duela; jendeak gogozago irakurri ohi dituela ipuin barregarriak, baina albiste batzuk ere eman behar zaizkiola; umeentzako ipuin- eta bertso-sariketa bat antolatzeke asmoa duela (31). Beraz ipuinak, albisteak, haurrentzako ipuin, bertso eta igarkizunak nahi zituen.

1934-1935ko debekualdiaren ondoren, antzerki labor, olerki eta berri garrantzitsuenak argitaratzearekin jarraituz, berriz aldaketak iragartzen dira (32). Eta hasten da «Kirolak» saila noizbehinka agertzen; izan ere, batek dienez, irakurleen % 50ek kirol kontuak baizik ez baitzituen irakurtzen (33).

Aldaketa hauek euskal atala irakurriagoa izateko, irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz egin edo egin nahi izan bide zituen Lauaxetak. Egia da informazio orokor nagusia erdaraz agertarazten zutela eta bigarren mailako infor-

(31) «Nire asmoetan dabil ume-artian sariketa batzuk egin. Euskarazko ipuin, bertso txu, askak eta abar saritubak ixan bihar dabe. Ume sariketa au beriala biribilduko dogu.» (ibid).

(32) «Laster agertuko dira (izenb.) – *Saña* atal bakar bateko antzerkia, Garro'tar Bernarta M'k Ipar-Ameriketa'ko beste antzerki batetik euzkeraz atondua. – *Eukaristiaren martiri*, iru ekitaldidun antzerkitxo, Markiegi'tar Peli jaunak euzkeratua. – *Norantz goaz emakumeak*, Arritokietaren. – *Zillarrezko zazpi kipula*, Jean Bommbart'ena, euzkerara Muniategi'tar Sabin'ak ekarrija. – André Ady'ren olerkitxu batzuk. – *Ezagutu zazu Euzkadi*, «Norbait»'ena. Oneik ez beste idazlan gorenguak agertuko dira *Euzkadi*'ren «Euzkel-Atala» onetan. Eguneroko izparrai yagokezan barri urten-urtenak be, agertuko dira. Aldakuntza andijak egittekuan gagoz. Lagundu egizkuzube!» («Laster agertuko dira», Euzk 6955, 1935-4-9. Sinatu gabe. Lauaxeta?).

(33) Kirolak sailean futbola (*ostikoketa*) agertzen da batez ere; hizkera aberatsez, gainera: Euzk 6955, 1935-4-9; Euzk 6961, 1935-4-16; Euzk 6972, 1935-4-30; Euzk 6989, Euzk 6995, 1935-5-27).

mazio eta artikuluak kokatzeko (herrietako berriak izan ezik) gordetzen zute-la euskal atala. Baina hala ere, *Euzkadik* euskara ghettotxo horretan txokoratu eta baliabidez mugatua zuen arren (euskal kazetari profesional bi baino ez, Lauaxeta eta Imanol Enbeita), orrialde tamaina handiko hori betetzeko Lauaxetak eginiko lana txapela kentzeko modukoa da.

IV. Euskararen gizarte egoera eta euskararen idatzizko ereduaz lekukotasunak eta eztabaidak. *Euzkaditik Egunara*

IV.1. 1929. urtean Euskaltzaleak taldeak, Lizardik, «Mendi-Lauta»k etab. euskal egunkaria sortzeko egitasmoa izan zuten, Lizardiren artikuluak lekuko (Lizardi: 1995: 15-36). Amets gozo bat izan zen, zenbait asteroko (*Argia*, *Ekin*), egunkarietako euskal atal, eta hainbat idazleren lanaren hazitik, gerratean gerako egunkari batez erdituko zena (*Eguna*). Beraz ametsa ez zen II. Errepublikako urte «normaletan» gauzatu, dirudienek euskarak erakundeen babes gutxitxo zeukalako eta gizartearen eta hedabideetan aurrera egin ez zuelako. Kontua da 1933 ingurutik aurrera euskararen egoeraz/auziaz zenbait saiakera-liburu eta artikulu ugari agertu zirela: aipagarrienak, agian, Altube, Aitzol eta Ibarrenak (34). Saiakera eta artikulu horiek idazleek zuten errealitatearen kontzientzia erakusten dute, hots: euskara atzeraka ari zela, bai euskara bizia ahozko erabileran bai idatzizko erabileran ere (irakurle gutxiago). Atzerakada horren zergati-koak eta konponbideak bilatzean, ordea, ez zetozen bat (ik. aurrerago).

Euskara ahozko erabileran gibelka ari zelako lekukotasunak eta eztabaidak ugariak dira *Euzkadin*. Adib. Bilbon euskarak zuen egoeraz eta euskalduntzeaz artikulu mordoxka argitara zen: horietan agertzen da gizartearen euskara ez zegoela modan, ezta batzoki eta mitinetako giroan, hiri hori euskalzaletzeko abertzale zenbaiten asmoak gorabehera; eta hortaz Madridedeko gobernua esku gogorrez jokutzen ari zela hizkuntza eta ikurrei buruz. Baita Zornotza eta Berriz moduko herrietan ere euskara atzeraka ari zela, baina euskal herri askotan euskaldun askok euskara baino ez zekitela (35).

Euskararen egoera edo auziaz argitaratu artikulu ugariok, egoera kezkarriaren erakusle, batez ere 1934, 1935, 1936 urteetakoak dira. Bi alderdi edo puntu nagusi ukitzen zituzten: bata, euskararen gizarte egoera eta nola herio-

(34) Altuberen *La vida del euskera* (*Euskera* 1933), *Euzkerean* (IV, 215) Kepa delako batek esanari erantzunez egina; Aitzolen bi artikulu, *Euzkadin* argitaratuak («Balance literario euskaldun del año 1934») eta J.M. Mokoroa «Ibar»-en *Genio y lengua* (Mokoroa Hnos, Tolosa, 1935; 1936, kankoko azalean). Ibarren liburuua gerra aurretikoan plazaratu zenez, haren eragina gerora gertatu zen.

(35) («La euskerización de Bilbao. Iturrira «Perularra» (Eu 7000, 1935-6-7); *Egunekua* sailean «Uribitarte'tar Ibon»ek «Bilbao'ko euzkeldunak» atalean dio: Bilbaon euskaldunak 20.000 ing. direla (emakumeak 4000 gehiago); euskaldunek erderaz erantzuteko ohitura dutela, eta erdera txarrez, eta gainera hori erdaldunentzat buragarri dela; eta tamalgarriena, abertzale buruek batzokietan hori bera egitea. Gainera Portela Valladares-en gobernua hasi dela ja euzko-ikurrizak ere galerazten.

tzetik salbatu (edo, orduan esaten zutenez, *gaizkatu*); bestea, jendeak irakur zezan, liburu eta kazetetako euskara idatziak nolakoa izan behar zuen.

1933an, Idazle-Batza antolatzearekin batera, lehen iritzi kritikoak ageri dira. Idazle-Batzari buruzko artikulu batean, «Arri-Gotzon»ek dio: Idazle-Batza sortu zen bileran idazle gutxi egon zela; euskal egunerokoa beharrekoa dela eta Euskaltzaleak-ek esana zuela hori; euskara gutxi irakurtzen dela; egunkarietan irakurtzen den % 50 istripu eta kirolen berriak direla (Arri-Gotzon, «Ortik eta emendik», Euzk 6502, 1933-10-10).

Euskararen gizarte egoera eta nola heriotzetik salbatzeaz, 1934ko apirilko Barrensororen artikulu zenbaiten izenburuak lekuko on dira: «Nora doakigu euzkera? Batu gaitez euskeltzaleak» (Euzk 6741, 1934-7-18), «Zelan gaizkatu euzkera?» (Euzk 6748, 1934-7-26). Gai berari ekiten dio geroroxeago J. Azpeitia «Arrietokietak ere «Utziko ete diogu euzkerari iltzen?» artikuluan, Altuberen *La vida del euskera* aipatuz (1935 edo 1936koa da).

Endaitz eta bereziki Barrensororen artikulu batzuek abertzale mota bat kritikatzan dute, abertzaletasunaren izenean euskara galtzen ari direnena: adib. «Baserri...abertzaletasunaren ixenian (?) erdera zabalduten» artikuluan (Endaitz, Euzk 6776, 1934-8-28). Batzokietan erdera egiten dela-eta, euskaldun batzoki bat zabaltzeko asmoaz diardu Barrensorok: «Euzkeldun-Batzoki bat Bilbao'n» (Euzk 7002, 1935-6-5). Beste batean, batzokietan euskara gehiago egiteko eskatu duelarik Barrensorok, Lauaxetak ihardesten dio: «BBBko landoletan, *Euzkadi*'ko aretoetan eta beste toki gustijetan be, amaikatxu euzkera entzun daruago (...).» «Lauaxeta.» (Euzk 7161, 1935-12-7).

B. Garro «Otxolua»k abertzaletasunaren eta euskararen arteko harremanak, eta irakurzaletasuna hizpide hartzen ditu artikulu batean, euskara atzerakari zela baieztatuz («Euzkerekari buruz», Euzk 7000, 1935-6-2). «Euzkerekaren arerioak» artikuluan, etsaiok etxe-barruan aurkitzen direla salatzen du, euskaldunek gizartean erakusten duten jokaera maiseatuz: denek, «geuk leenik» erdara ikasi nahia, gizabidearen izenean erdaraz mintzatu beharra («gure «urbanidade» larregia», aski baita erdaldun bat gure artean egotea denok hari erderaz aritzeko), auzo-eskolek euskararen alde jokatzea, halaber komunika-

Bilbon, eta dirudienez hiri handietan ere, euskara ez bide zegoen modan. Euskara ikasteko gogo gutxi zegoela esaten dute euskal idazle batzuek. Bilboko batzoki eta mitinetako giroa ere erdalduna. Beraz giro euskaldunik ez zegoen Bilbon, baina euskaltzaleen gogoia bai, zenbaiten aldetik: «La euskerización de Bilbao: Alegiña ta laguntza» artikuluan J.M. Ituarte «Artibai»k proposatzen du Bilboko ikastoletako umeak udan oporretan baserri girora eramatea, etxetan hartuz (Euzk 7010, 1935-6-14).

Zornotza hirian erderaz hitz egiten dela gero eta gehiago. «orain 10-12 urte euskera ezekijenik ez egoan Zornotzan, eta erdera ez ekijenak asko ziran, geyenak nire ustez. Gaur, barriz, euskera eztaekijenak ugari doguz, (...)» (Euzk 7019, 1935-6-25). Berriz-en: «no pasan de 6 los que desconocen el euzkera y sí llegarán a 1000 los que desconocen el castellano» («Información postal», Euzk 6954, 1935-4-7).

bide eta hedabideek (autobusak Bilbora edo hiri handietara salerosketan, irratia, TBO); baita euskara «zaila» delako ospea (Euzk 7021 1935-6-27).

IV. 2. Euskara atzeraka ari zen idatzizko erabileran ere (hedabideetan, liburuetan eta irakurleetan). *Euzkadi* eta *El Díaren* kasua argigarria da: euskal idazleek berentzako toki gehiago eskatu arren –Lizardik-eta aspaldi, 1929an–, egunkari abertzaleok euskara ghetto batean hesitu zuten (*Euzkadik* 10, 12 orrialdeetatik bat bakarra eskaini zion, gehienbat bigarren mailako kontuekin), ez idazleak kexatu gabe ordea (36). Abertzale ez ziren idazle euskalzaileek ere kritikatu zuten egunkari abertzaleen jokaera, adib. N. Etxaniz eta Mokoroa «Ibar»ek (honi dagokionez, ik. IV.4.) (37).

(36) Lizardi: «Baratza azi bearra», Euzk 1929-3-13; ik. Lizardi: 1995:15. A. Irigaray «Iru-lar»ek eta Euskalzaileak taldeak bat egin zuten Lizardirekin (Lizardi: 1995: 16).

Arriolak dio «albista guztienezko lain leku bear da, euzkaraz irakurri eragiteko au lako berderik ez dagoalako (...) jakintzazko gayak geitu bear litzakez («Euzkerea esituta!», Euzk 6569, 1933-12-27).

Endaitzek galdetzen du zer dela-eta euskara bere hizkuntza ofizialtzat duen alderdi abertzaleak ez dion garrantzi gehiagorik ematen euskarari. Dio alderdiaren hizkuntza ofiziala nagusi izan behar litzatekeela, edo behintzat euskaraz igorritako lan guztiak argitaratu, ez baztertu. Eskatzen du ere «“Egunekua” len lez, orain ile bi-edo arte lez, lenengo ingoskijian, izparringi-leku gorenean agertu biar litzake. Geure izparringi nausijan eta edozeñetan, lerro gitxi badira be, euzkerea buru.» (Endaitz, «Euzkerea esituta...eta erderean nun-nai», Euzk 6572, 1933-12-30). Beraz euskal idazle batzuek eskatzen dute euskaraz idatzitako artikuluek argitaratzea edo behintzat herrietako erdarazko berrien («Información postal» sailekoen) aurretik euskarazkoak argitaratzea, eta gero, lekurik bada, erdarazkoak.

(37) (N. Etxanizek «Luzear»i) «Herrietako berriak erderazkoaz nahaste azaltzea nere gogoko zait dakizunez; ez hala ordea euskal sailari orri erdi bakarrik arnas leku eskaintzea. Gutxitxo dugu hori, gutxitxo eguneroko euskaltzale batek eskaintzeko. Ez ote da hori ejemplo txarra ematea herriari? Gure esanak esan, euskera txoko estu batean gordetzen badugu, alperrik herriari jardungo diogu euskaltzaleatsunean aurreratzeko deadarka. Agertu dezagun bada nausiki, apain herrikoï zabal gure hizkuntza goxoa. (...).

(N. Etxanizek Aitzoli) «Gure zirikaldiak zerbaitetarako izan direnean pozik gu. Hala ere Luzearri bezela zuri ere esan beharko, oraindik euskerari gehiago eman arte, ez dugula atsedenek hartu behar. / Altubek ederki dioenez: euskera herrian galtze hori eta herriak euskal lanak irakurtzeko ohiturarik eza, janari egosberarik eman etzitzaiolako, sortu zaigu. Eusko herrian irakurmiña sartu zenean, dio, euskal lan ugari ta erraza eman bazioten, askoz gehiago izango ziren gaurko euskal irakurleak. Egi biribilla. Eguneroko euskaltzaleenak ere euskara hain gutxi ekartzeak herria erderara gehiago erakarri du: nere ustez (barkatu) gure artean izan ditugun erdal irakasle guztiak baiño erdera gehiago sartu digute herrian *El Díak* eta *Euzkadik*. Horregatik, Lizardi zana Etxegarairi Eusko Ikaskuntzan euskera gutxitxo egiten zela ta hasi zitzaion bezela, halaxe ni ere zuri zirika ari natzaizu. Jauregik zuzen dioenez, erderaz egin beharra ere badugu: baiña beti edo ia beti erderaz datzi beharrik eztugu. Hasi bada Jauregi, Artetxe, Aitzol ta beste idazle izen haunditxo duzutenok, euskeraz sari eskribitzen.» (N. Etxaniz, «Koxka bi. Lehenengoa Luzearri. Bigarrena Aitzoli», *Lan hautatuak*, Hiria & Egan, 2000).

«Hain zuzen Latsurregi»tar Peli (Peli Markiegi?) lagunak nere buruko asmaketak gai honez aurreratu dizkit. Eztela, alegia, zintzo jokatzeko euskera-alde egunkarietan. Ez nere ustez ere. Laiñeza hartu dugula esango digute euskaltzale «integristoi», baiña zuzen ari gaituzulakoan nago ni. Euskaltzale soñekoz bere burua apaindu nai digun egunkariak euskeraren aurrerapen erakustoki izan beharra dizu; ta *Euzkadi* ta *El Día* ikusita bakarrik, ez dio inork antz emango euskerak azkenengo urte hauetan egin dizun gorakoari. / Pozik ditugu zenbait idazle *La vida del euskera*

Nolanahi ere euskaldun askok *Euzkadiren* jokabidea ez zuten begi onez ikusten. Geroztik, K. Mitxelenak ere «ghetto» deitu zuen orohar kazetek euskarari utzitako lekuari, ez bakarrik orrialde kopuruagatik, baita edukiengatik ere, orrialde bakar horretan bigarren mailako albiste eta artikulua kokatzen zirelako (38). Lauaxetak egunkariaren jokabidea ez bide zuen espreski eta age-

izenburuz azaldu zizkiguten bi erdal lanak irakurri ondoren. Ni ez ordea, orduko zarata apur hura ezkerre ez dudalako nabaitzen garbairik eta euskerari izperringietan gehiago emateko gogorik. Suzko ererebentzo izan zaizkigu bi erdal lan hoiak; pun pun egin ondoren lehenean diraute gure egunkariok, lehenean gure idazle aipatuenok: euskera maitasun irazeki hori, beti edo ia beti erderaz azaldu behar. Gutxi aurreratu dizute hontan Arana Goiren idazkia ezkerre batat eta bestea. Bilinguismo sasoiak sarturik gaituzulako hasita zenituen idazle horiek, baiña ez dago antz handirik; hala balitz, honuzkeror erderaz aña euskeraz idazten hasiak behar gindezke gure idazle jatorrenak eta zoritxarrez eztugu halakorik nabaitzen. / (...) eztakit zergatik ote diteken gure hizkuntza gehiago ez gizonte hori izperringietan. / Baiña ixillik nagoen eztarria alperrik urratzake. Nor duzu izan ere gure euskal lanei begira? Aintzakotzat hartzeko, erderaz hasi beharko eskribitzen. (...)

Lotsagarri zat neri Azkoitiko «korresponsala» ta beste herri batzuetakoak erderaz aritzea. Ordaindu ta idazten duten berri-emailek, horrelako herrietakoak behintzat, poliki-poliki euskeraz eskribitzen hasi behar lukete; lehenbizi atalxo batzuk (jaiotzak edo ezkontzak hain errez ikasi ditekete euskeraz adierazten). Ez dezatela idatzi euskeraz idazle «primoak» bakarrik. Zertan geldituko ote litzake *El Día*ko euskal gai saila, hutsean eskribitzen dugunok ixilduko bagaiña? Hori euskaldunok gorrizkeoa dugu.

(...) Baditugu egunkarietako euskal sailak, baditugu euskal asterokoak, baiño guztiak kaxkarrak. Ez al litzake ederki etorriko asteroko *Argia* igandetako *El Díarekin* bat eginda argitalzea? Honela *El Día*ko euskal gai saila igandetan *Argia* bera izango litzake; ta bide batez nik lehen aitaturtako igandetako *Euskal Orri* berezia (extraordinario antzera) besterik gabe iritxita genduke. *El Debateren* zenbaki berezia bezela, bestetan halako bi ordainduta erostekoa izan dedilla igandetako *El Día* ere; ta honela *Argia* hobeto aurkezeta argitaldu ahal izango zenuketete ta *El Día* euskaltzetasun usain gehiagoz lurrinduta astean behin hartuko genduke.

Baiña izparringietaz ari naizela, ezin ixilik utzi Lizardi zenak (Goian bego) hain ederki jaso zigan Euskal Egunkaria ateratzeko asmoa. Honenbeste abertzale artean ez ote ditugu arkituko hiru milla harpide Euskal Egunkari horrentzako? (...). / Lizardiaren aldi hartan Egunkari asmo hori zerabilenak izan ere gehienak *El Dían* sarturik ditugu eta, nik uste, *El Díari* kalte egingo lioken bildurrez ixildu zitzaizkigula Euskal Egunkariaren aldezlariok. Bildur horiek alde batera bota eta zerbait honetan egiteko sasoi dugulakoan nauzu ni. Aurretik dijoan guztia idatzita gero irakurri dizkitzut *Eusko Antzerti Egunari* eta Zumarragako *Eusko Nekazari Bazkunaren* Batzarri buruz *El Día*ko lehenengo orrian argitalduriko euskal idazlanak. Bai pozgarri egiten zaidala euskera lekuri nagusienan ikustea! Ta zenbat irabazten duen gure ele bazartuak horrela nausi azaltzen digutenean. Noiz ote guretzako amesik gozoen zaigan euskera, egunkari osoz jabeturik ikustea?» (N. Etxaniz, «Izperringiak», *El Día*, 1934-5-20; *Lan hautatuak*, 2000, 42-45).

(38) «Más que del mero predominio cuantitativo de una lengua sobre otra, se trata de la distribución de papeles entre ellas: la lengua local tiene una función subordinada y complementaria, manifiesta ya en el espacio que se le concede. La «página vasca» (*Euskal orria*, etc.) es una sección aparte, situada a menudo en página interior. Constituye, en otras palabras, una especie de ghetto en que estaban encerradas materias menos importantes, marginales, escritas por autores de menor consideración. / Debíó de ser *El Día* de San Sebastián (1930-1936) el primero que, por influencia de José de Ariztimuño, rompió con esta costumbre: bastantes artículos en lengua vasca aparecieron fuera de la judería, hasta en primera página. Eran, con todo, artículos de tema cultural en relación con la atención preferente que *El Día* concedía a la literatura en lengua vasca y en particular a la poesía, como modalidad más cultivada por entonces. Las noticias, como habrá pensado alguno, venían exclusivamente en castellano, a no ser que fueran estrictamente locales.», Mitxelena, L., «Las lenguas españolas y el periodismo escrito», *Lenguaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977.

riki kritikatu; praktikan, ordea, euskara nagusi ezarri zuen bere kazetaritza, literaturagintza eta hizlaritzan (39).

Egunkari jeltzale ofizialak euskarari hain toki gutxi emateko arrazoi bat: EAJren ideologia bera, garai hartakoa behintzat. «*Euzkadi, euzkoen aberria*» denez, abenda horretako partaideak (edo deituradunak) dira *euzkotar* edo *euzkaditar*, nahiz euskaldunak ez izan; ordea, *euskaldun*, euskararen hiztun edo euskaraz hitz egiten dutenak, nahiz ijitoak izan (Euzk 6562, 1933-12-19). Euzkoen aberriaren, Euzkadiren osagaien/ezaugarrien artean hizkuntza haietako bat baizik ez zen, eta ez beti garrantzitsuena (40).

Beraz «Euzkoen hizkuntza («elea») euskara da» esaera egia zen idealaren munduan baina errealitatean, gizartean euzkoek berek gutxiesten zuten euskara, karlista askok ez ezik abertzale askok ere, hiri handiskoetan behintzat. Eta hori drama bat zen abertzale euskalzale batentzat. Egia da ordura arte presentzia gutxiago izan zuela euskarak eta aldizkari ugari agertu zirela (adib. *Argia* Gipuzkoan, *Euzko*, *Ekin*, *Euzkerea* Bizkaian). Egia da ere, hein batez ghetto hori apurtzeko edo, Aitzol eta besteren artikulua franko, euskal gaiez, *El Día* eta *Euzkadiren* lehen orrialdean agertu zirela, erdaraz noski. Nolanahi den, *Euzkadi* egunkarian hainbat eta hainbat eskal idazle egon arren, euskara bazter-txororatu zuten, eta halaber edo halatsu EAJ-ren beste egunkari eta asterokoetan: Bizkaiko *Jagi-Jagin* (1934ko zatiketa artekoa), Nafarroako *La voz de Navarra* eta *Amayuren*, nahiz euskarazko artikulua batzuk argitaratu, eta, gutxitxoago, Donostiako *El Dían*. STVren *Lan-Deyan* ere euskara gutxi, nahiz euskaraz ondo idazten omen zuten langile asko egon (Euzk 6573, 1933-12-31).

Ez da harrigarria beraz, euskal idazleak badira sentiberenak euskararen erabilerari buruzko kontuan; eta euskal idazle abertzaleek beren burua dute benetako abertzaletzat. Hau dio Mungiako «Maite»k, Abelin Barriola antzerkigile abertzalearen *Goi-Argi* ikustera jende gutxi joan zela-eta, abertzaleei egingdako deiak ugariak izan arren: «Ixenezko abertzale ugarijak diran arren, abertzale zintzuak urrijak dira. Eta euzko-abertzaletasunaren sustraya euzkoguaren oñarrija dan Euzkerea dala ezin ukatu.» (Matte, «Goi-Argi». «Lotsagarritan be lotsagarrija», Euzk 6968, 1935-4-25). Izan ere, abertzale asko, batez ere hiri handietan, ez ziren euskalzale: adib. batzokietan jendeak barra-barra erderaz egiten zuen. «Urtzaga»k, Kirikiño ahotan hartuz, dio batzokietan euskaraz egitera behartu behar dela, edo batzoki berri bat egin, euskara

(39) «Euzkeraz idazten dogunok, aberriaren elia dalako baño eztoгу idazten.» «Eta geure aintzarik andijena, abertzale ixatia da, ez idazle ixatia» (Euzk 6429). Bere buruaz dioena, besteren kasuan ere hala zen edo ez zen ez dakigu.

(40) Abenda, hizkuntza, historia, ohitura eta legeek osatzen zuten euzkotasuna. Kontzeptu eta termino batzuk, abertzaleen ideologia eta politikaren ardatz, etengabe aldatuz joan dira gerortik: *euzko* kontzeptu eta terminoa desagertu da. Gerra ostean, *euskaldun/kastillano*, *erdaldun*, hizkuntzaren arabera batez ere, ez soilki. Egun, *euskaldun*, *euskal* hitzak lehenagoko *euzko*, *erdaldun*-en (!) balioak dira; *Euzkadi* ere desagertuz bide doa abertzaleen ahotik; berriz lehenagoko zaharra, *Euskal Herria*, hain zuten lehenago abertzaleek gaitzetsia, indar hartzen ari.

hutsekoa, Bilbon («Euzkera, jalgi adi dantzara», Euzk 6958, 1935-4-12). Lauaxetak berak ere esaten zuen (batez ere 1934, 1935ko bere hitzaldi eta artikuluetan): «abertzaliak asko gara, baña euzkeltzale gitxi.» (41).

1934-1935ko urte erdiko debekuak eta ondorengo isilaldiak (*Euzkadi* eta Bizkaiko asteroko eta aldizkariak bete-betean hartu zituenak) euskararen aldeko indarrak ahulak direla erakusten du; gobernuak jendearen protestarik ia gabe edozer egiten ahal zuela euskararen kontra.

IV. 3. Bestalde, berriz, *Euzkadiren* euskal atala zenbatek irakurtzen zuten ez dakigun arren, Lauaxetaren aldakuntzek, euskal atala irakurgarriago bihurtze aldera, euskal irakurleak erakarri beharraren arazoa salatzen dute (42).

Hain zuzen, jendeak irakur zezan, liburu eta kazetetako euskara idatziak nolakoa izan behar zuten, eztabaidak egon ziren. Altubek sabindar eskolari kritika egin zion bere liburuetan hiztegi eta batez ere sintaxi aldetik, hitzordenari buruzko lege ospetsuak ezarriz etab. (*Erderismos*, Euskera, 1929; *La vida del euskera*, Euskera, 1933). Baita *Euzkadin* argitaratu «Orixe idazlea ta euskera errikoia» artikuluan (Euzk 6703, 1934-8-3). Artikulu horretan Orixe gosten du euskara herrikoia eredutzat, eta dio: «*La vida del euskera*-n iztegiari buruz agertu neban arau edo irizpide nagosia, auxe izan zan: «Deben ser aceptadas las voces de origen extraño, cuando han sido incorporadas al léxico corriente de los euskeldunes, y especialmente al de aquellos pueblos o regiones donde mejor se habla el euzkera». Altubek dio zentzuzko arau honi ez ziotela jarraitzen «40 urtez onutzako idazle geyenak, batez be bizkaitarrak». Baina lege horri jarraituz idatzi zutela Kirikiñok eta Urruzunok. Altubek eragina izan zuen garai hartan «garbizaleen» hiztegiaren kritikagatik eta batez ere sintaxiaren garbitasunaren kontuagatik.

(41) «Uribitarte'tar I»ek, Lauaxetak 1934ko maiatzaren bukaeran Bilbon, Euzko-Gastedijan emaniko hitzaldia kontatzerakoan dio: «Lauaxetak itzaldi sakona (...)». «Eletarijaren aburuz, abertzaliak asko gara, baña euzkeltzale gitxi.» «Euzkeraz ikasteko zaletasun gitxi be gitxi eguala iñuan. Ikasi ta erabilteko, barriz, gitxijago.» «Gastedija (...) jolasian astija galtzen ikustiak, eletarija minddu-minddu egitten dau, eta antxiñako euzkotar jakintsuben ixenak oguzten imiñi: Bitorra Abea, ...». «Eletarijak Euzkadiren zorijona, jakintza-bidian ikusten dau» (Uribitarte'tar I., Egunekua, Euzk 6701, 1934-6-1).

Bilbo-Zarra-ko «Iñor-ez» delako berriemaileari, euskara ikasi duela-eta, diotso Lauaxetak: «Uarra. Ainbeste samintasun barruban darabilgunok poztuten gara olako abertzale zintzuak aurkitzen doguzanian. Egunean-egunean ordu bete euzkereari emoten dautso (...). Lauaxeta.» (Eu 6969, 1935-4-26. Ik. Eraskinak (II).

(42) 1934-1935ko urte erdiko isilaldiaren ondoren, aldaketei esker etab., Ogoñoperen us-tez, «euskal atala»k asko irabazi du: lehen «euzkel-atala», orain «euzkel orrija». «Idazkayak barriz errijaren gurekuak dira. Egunaro alkartuta geure barriketa aldija egitten batzen garan gustijok abo betian orixe diñue (...)» (Ogoñope, «Euzkal orrijari begira», Euzk 6956, 1935-4-10). Bali-teke Lauaxetaren aldakuntzek irakurle gehiago erakartzea *Euzkadira* eta gerra garaian albisteen jakinminak are gehiago, baina lartxo ez ote da Ogoñopek gerra hasita zioena?, alegia «Euzkel atala erri osuak irakurten dau beti lez aldi onetan, eta (...)». Matxiñada-Izparrak-Eta irakurri ondoren (...) komentaijuak nunnai entzuten doguzalako» («Bakotxari beria», Euzk 7374, 1936-8-14).

Altuberen eraginez edo haren bidetik, erdararen kutsua kritikatu eta Kirikiñoren maisutza aipatuz, Erkiaga «Endaitz»ek ere ekin zion joskeraren gaiari, Lauaxetari ezkutuko kritika eginez (43). Joskera jatorraren alde (Altuberen bidetik), polemika sortarazi zuen «Endaitz»ek 1934ko abuztu-irailean, harekin bat etorritz Larreko eta «Arteta» (A. Zubikarai). Joskeraren gaia Euskal Idazleen Batzarrean tratatzea proposatu zuten batzuek, baina beste batzuek ordea ez nahi eta batzarra atzeratzen ari zirela dirudi. Hori dio Motrikuko «Andoni»k, ikusirik bere proposamenari, batzarra egitekoari, erantzunik eman ez zaiola: «Bizkaya aldean ere Euzkel-joskera dala-ta naikoa eztabaida sortuak dira. Ori ere Idazle-Batzarrak onduen erabakiko duala-ta daude.» (Euzk 6805, 1934-9-30). Bestalde, T. Agirre «Barrenoso» haserre agertzen da halakoak eta holakoak idazle guztiak mordoiloak direla, bai eta idazle klasikoak hobeak, esan duela-eta («Noiz arte idazlientzako zartakoak?») (Euzk 7119, 1935-10-19).

Hitz batez, nolako euskara/idaztanka behar zen idazkietan, bereziki kazeta edo aldizkarietan, hori izan zen 1931-1932an hasi eta batez ere 1934-1935-1936 urteetako artikulua mordoxka baten gaia. Gai eztabaidatsua eta polemikoa. Lehenik, erraz-zaleen eta Lizardi-zaleen arteko eztabaida sortu zen (44). 1934-1935-1936ko eztabaidetan joera nagusi batzuk ageri dira, elkarren kontra jarriak, ulergarritasuna batzuek, euskara lantzea beste batzuek ardaztat hartuta: erraz-zaleak (edo euskara herrikoia edo «ulergarria, mordoilotxoa bada ere») (K. Linazasoro «Altzeta») eta garbizaleak edo sabandar eskolakoak (45). Adibidez, N. Etxaniz euskara erraz eta herrikoia alderatzen

(43) «Ba-eban aspaldi baten Euzkel-Atal onek arlo oso atsegingarria. Sail orren izena le-ro onein burutzat ezarri doguna zan. Baña orain iragan urtiotan eztoju ezautu be egiten sail ori. / Egija da noizik beinka (...). / Gaurko euzkel-idazle geyenok erdel-joskeraz kutsutuegijak gagoz. (...) gero ta erdera-sunda andijago darabilgu. / Ez ditu Kirikiñok ikusten gure idazlan erdel-joskeratsua! Ai, ikusiko balitu ikusi! Beste modutan argitalduko lituke orrialde oneitan!. Badakigu, baña, gure egunotan ori egiteko lan izugarria artu biarko leukena. / Labur: Euzkel-joskereatzaz orri onetan ataltxu bat biar dogu, astian bein bedere. Entzun, Lauaxeta jauna?» (Endaitz, «Euzkel-gaiz», Euzk 6779, 1934-8-31).

(44) «Oraindik eztuzu garai asko, erre-z-zaleak eta Lizardi-zaleak izan zuten eztabaida, sortu zela. / Elkar zirikatzen hasi zirenean, Lizardik oso egoki ebaki zuen mintzen hasita zeudenen jarduketa larregia. / Biderik asko dituzu izan ere elea jasotzeko: (...). Nik ere maitego dizut Lizardik zabaldu bidea, erre-z-zaleena baiño. Ez uste ordea nere hobeste honek erre-z-zaleak erresterko gogorik ekartzen didanik. Badituzte erre-z-zaleak ere beren alderdi onak. / Errez idazteak, alegia herriak euskera irakurtzeko ohitura hartu dezan, asko laguntzen duela ta abar. Hala ere, neri poz gehiago zait euskerari sail berriak zabaltzen ikustea: lehen aitatzen etziren gaiak, euskeraz norbaitek egoki azaltzea, horixe dizut nere bazkarik gozoena. / Eutsi dezaigun bada geure arteko anaitasunari ta zabaldu euskal idazle guztiei aldizkingi ta izparringietako orriak. Azkenik, biderik onena hartzen duena nagusituko da.» (N. Etxaniz, «Euskal goldaketan», *El Dia*, 1933-3-31; *Lan Hautatuak*, 2000, 30-32).

(45) Ondoko kontzeptuen arteko harremanak/desberdintasunak ukitzen dituzte artikulua –bazueta polemiko– hauek: euskara garbia: Larreko, «“Euskera garbia” zer da?», Euzk 7108, 1935ko urria. Euskara landua eta herri hizkera: Kaialde, «Erri hizkerari buruz», Euzk 7115, 1935-10-14; Basati, «E'nazazula berotu» (Lauaxetarik eskatu omen diolarik «status questionis» egite-

tzen da *El Dían*, euskara biziaren izenean (46). Sabindarrek, berriz, hitz berriak erabiltzen zituzten, beren eskolakoek asmatuak, baita albisteak ematera-koan ere. Halako hiztegia erabili zuten bai Lauaxetak bai I. Enbeitak eta bizkaitar sabindarrek. Bestelako hizkera darabilte, ordea, *Euzkadi* egunkariko idazle giputzek (Basarri, Uzturre), edo nafarrek EAJrena zen *La voz de Navarran* (Larreko, Manezaundi, etab.).

IV. 4. Euskararen atzerakada denek aitortzen zuten arren, kausak aztertzera-koan ez zetozen bat: ez sabindar eskolakoak Altuberen iritziekin, ez Ibar ere Aitzolekin. Altuberen ustez, euskara artifizialak zuen kulpaa; Aitzolek ere halako zerbait zioen 1934an. Lauaxetak, ordea, 1933ko artikulua batean, ira-

ko). Euskara erraza eta herri hizkera: Abaraska, «Elburu bat, bide aunitz», Euzk 7161, 1935 abendua. Euskara landua ala mordoiloa: Okertzale, «Landuba ala malluskauba?»; Basati, «E'naiz berotu» Euzk 7127, 1935-10-29. Erraza baina garbia: Zar-zale, «Urte gustijan kendu ezindako nalgabea», Euzk 7158, 1935-12-4. Ulegarria, mordoilotxoia bada ere: K. Linazasoro «Altzeta»ren arabera, «zer axola dio *leihoa*-ren ordez *hentanea* esaten bada ere? («Euzkerearen malkoak», Euzk 7163, 1935-12-10); Belaustegi jauparija, «Euzkera erreza bai...» (Euzk 7173, 1935-12-21?). Ja gerra piztuta, beste batek kritika egiten die euskara erraza behar dela diotenei, S. Arana maisutzat hartuz (Euzk 7451, 1936-11-13).

(46) «Barensorok poliki jardun digu euskerari nundik osasun sortuko: gozoz egin behar dugula, nunbait, lan hau; ez elkar minduaz. Egi biribilla horixe ere. Errukiz hartu beharko ditugu ezjakiñak eta alperkeriz lozorrotan ditugunak, (...). / Abertzale askori ere halatsu gerta ohi zaie. Mitinietan harutz-honutz ibiltzeak, deadarka ta goraka eztarri urratzeak, ikurrak paparrean harro erakusteak eta abar abertzale guztiak errez egiten dituzten lanak dira; baiña jairik gabe eta zaratarik gabe ixilean euskara ikasten aritzea, euskeraz beti hitzegiten eta idazten ekitea, hori ezti-zue gutxi baiño gozoz hartuko. (...). / (...) Euskaldun abertzaleei, elkarrekin euskeraz hitzegiteko eskatzea izan ere, ez da inor bildurtzeko eskabidea. (...). / Euskera baztartzten ari zaigula, aberztaletasuna gehitu arren euskera atzeraka dijoakigula, hesiren bat jaso behar gendukela atzerapen hori ebakitzeko. Zer hesi hobeagorik abertzale bihotz eta sendiak baiño? (...).

Baiña beti herriari eskatu lezaiokena bakarrik eskatuaz: euskera herrikoia egiteko, alegia, lotsarik gabe. Ez dezatela arreta gehiegi jarri erderatiko hitzak baztartzten, hori ez da inungo hizkuntzetan eskatzen da. Norbaitek esango baligu «Diputauak amnistia aprobau emen dute» ez gatzaiola hasi burlaka: hori duk baskuentzez ablatzeko manerie ta honelako lelokeri batzuk esanaz, orain arte egin izan dugun bezela. Horrela euskeraz hitzegiteko lotsa sartu ta erderara herria bultzatzea besterik ez dugu iritxiko. (...). Bizpahiru adiskide ta beste hainbeste euskaltzale kendu ezkerro, osteuntzeko guziak begiratu ere ez die egiten gure idazlanei» (N. Etxaniz, «Euskaldun guz-tiei», *El Día* 1934-8-5; *Lan Hautatuak*, 2000, 50-52).

(Euskeraren Asteaz) «Egun horietan herriari buruan muin-muinetaraiño sartu behar zioagu egi bat: herriak egiten duen euskera ez dela euskera «mordolloa», ez dela euskera zatarrak; euskera herrikoia baizik. Eztagoela inun ere herriak hizkuntza «literariorik» egiten duenik eta gure herriari ere etzaiola eskatu behar euskera txukunegirik. (...). Euskaldun askori, herri batetik bestera joaten ditukanean, lotsa ematen ziotek beraien jaioterriko euskera beste herrian egiteak. «Badakit euskeraz hitzegiten –esango diate– baiña gure herrian oso gaizki euskeraz egiten duk eta lotsatu egiten nauk». Lotsa hauxe kendu behar zioagu herriari; (...).» Beste egi bat ere sartu beharra zioagu geure herri honi. «Mordoillo» izeneko euskera hori gabe, ezingo dekalda gure hizkuntza bizi. Alperrik izango ditziagu izan ere libururik bikaiñenak, alperrik gramatikarik aurreratuenak, herriak euskerarik egiten ez baziguk. Altube jaunak ederki dioenez, lateraz gertatzen dekana berbera gertatuko litzaioket gure elari ere. Liburu ederrak arren, hizkuntza hillen artean kontatu beharko giñauket. (...) Euskalduna! Egizu beti euskeraz, nahizta «mordoillo» izeneko hori besterik ez jakin!» (N. Etxaniz, «Ikastaroak», *El Día* 1934-4-28; *Lan Hautatuak*, 2000, 38-41).

kurleei egozten zien errua, haien kontzientzia politiko ezari (47). Mokoroa «Ibar»en arabera, berriz, euskararen atzerakada kontzientzia politikoa euskara eta hizkuntzaren jeinuaren gainetik ezartzeagatik eta euskara artifizialagatik zen (Ibar, *Genio y Lengua*, Mocoroa Hnos., 1935; 1936, kanpoko azalean).

Ibarren liburua Pizkundeari buruzko saioa da, erdaraz egina. Aitzolen iritzi batzuen kontra, espreski dioenez (*Genio y Lengua*, 13. or.). Aitzolen arabera euskal idaztien porrota euskarak irakurlerik ez zuelako eta idazle asko euskara artifiziala idazten zutelako gertatzen zen. Beraz Ibarrek aranatarren eta are alderdi abertzaleen joeraren kontra jotzen du, bai euskara moldearen aldetik, bai euskara salbatzeko estrategiaren aldetik. Aitzolen gidaritzapeko Pizkundearen joera nagusia kritikatzan du hizkuntza-politikari dagokionez: 1) irizpide politiko nagusi batzuetan (abertzale kontzientzia euskararen/euskaldunen gainetik, proselitismo politikoak euskarari mesederik ez). 2) hizkuntzaren egoerari buruzko diagnostikoan (irakurlerik ezaren zergatietan: Ibarren arabera, euskararen babesik eza eta literaturaren –sensu lato– interesik eza). 3) S. Aranaren hizkuntza ereduari buruz eta euskal idazle eredugarriei buruz (Aranaren kontra, Axular, *Eskualduna* eta Orixeren *Euskaldunak* hartzen ditu eredutzat). 4) Aterabide gisa, plangintza garbi bat aurkezten du: a) informazio-egunkaria, b) aldizkari grafikoa, c) haurrentzako aldizkaria, d) Literatur lehiaketa obra; e) folklore koaderno, f) idazleen biblioteka. Hizkuntzaren aldetik ere plangintza osoa: ortografiaren erreformatik hasita idaztankeraraino (herrikoa, Orixeren *Eskualdunaren* bidetik).

Ibarren, proposamen edo plangintza hutsa baino ez da. Haren liburua guxti zabaldu bide zen eta berandu, gerra aurretxoan. Baina baliteke bere eragina izatea garai hartan, nahiz. Baliteke ere idazle abertzale batzuk bat etortzea Ibarrekin euskararen atzerakadaren zergatietan eta plangintzako puntu batzuetan. *Genio y Lengua* aipatua da *Euzkadin*, Euzkel-Idazti-Aldez egitasmoaren kanpaina dela eta, idazle batek bere etsipena agertzen baitu, euskaldunak liburutan dirurik gastatu nahi ez duelako («Belostikalekoa» sinatua, «Entzun...? Bai zera!», Euzk 7345, 1936-7-11). Baliteke ere Ibarren kritikak Aitzolengan eragina izatea. Baina bestalde, Ibarren ideia batzuk ez dira berarenak edo berarenak bakarrik (adib. euskal egunkaria eta umeen aldizkaria sortzekoak, edo herri-jakintza batu eta zabaltzeko asmoak ja Euskaltzaleak taldeak 1930-1931an zabalduak baitziren). Lauaxetak 1934tik aurrera bultzaturiko aldaketa batzuk ere bat datoz hein batez Ibarren plangintzako proposameneko zenbait punturekin. Adib. informazioaren garrantzia edo berriak eman behar direla, baita ipuin eta idazlan atsegingarriak (Ibarren «sección amena»), haurrentzako irakurgaiak, literatur lehiaketa, herri-jakintza (Ibarren folklore koaderno, mardulagoa, *Genio y Lengua* 244-245), idazleen biblioteka (Ibarren Idazle

(47) Barrensororen *Gazigozoak* dela eta dio: «Euzko-elertijan agertuten ezpayakuz idazti geyago, irakurliak dauka eruba. (...). Liburutegijetan sartuta eukitteko ezтира idaztijak, eskuz-esku ibilli dadijantzat baño» (Euzk 6354, 1933-4-20).

Klasikoen Koaderno). Euskal atalean Lauaxetak bultzaturiko beste sail eta genero batzuk ere bat datoz Ibarrenekin: zientzia dibulgazioaren garrantzia (Ibarrek egunkarian, aldizkari grafikoan eta are literatura-lehiaketetan nahi zuen hori, *Genio y Lengua* 252-253); iritzi-artikulu sakona («artículo de fondo», *Genio y Lengua* 250).

Hala ere, funtsean Ibarren ideiak eta egitasmoa erabat bestelakoak ziren, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Adib. euskarazko informazio-egunkariari eta aldizkari grafikoari dagokionez. Informazio-egunkari hori Hego Euskal Herri osorakoa izango zen, dirudienez; sei bat orrialdekoa eta *La Croix* frantsesaren ereduakoa. Idazle finko eta euskara ondo zekitenek idatzia, halaber kolaboratzaile ordainduak lagundua (Ibarrek egunkari abertzaleetako kolaboratzaile bolondres «espontaneo» eta haien lanaren dohainekotasuna kritikatzin zituen, *Genio y Lengua* 74-75). Informazio-genero nagusi guztietarikoak izango zituena: erreportajeak, kronikak, albisteak (honetan *Euzkadiren* euskal atalak han-hor-hemengo berri laburrak eta gehienbat nahas-mahas baino ez zekartzan; aitortu behar da ordea herri-kroniken arloan *Euzkadik* lan eskerga egin zuela). Euskalkien banaketa ezarriko zuena, gipuzkera nagusi geldituz kazetaren bizkarrezur diren informazioan eta iritzi-artikulu nagusian. Aldizkari grafikoari dagokionez, tresna horren, eta oro har irudi grafikoan eta iratiaren garrantzia, hots, ikusentzunezko baliabideena azpimarratu zuen Ibarrek. Ideologia aldetik ere bestelakoa zen Ibarren egitasmoa: politikarik eta joera politikorik gabeko egunkaria, kristau ortodoxia eta moralaren aldekoa (*Genio y Lengua* 250), are joera espiritualistakoa.

IV. 5. Egunkarietako euskal atalek ez zuten, dirudienez, asetzen euskal irakurlea; alderdikariak izanaz ostean; ezta idazleak ere, asko baitziren. Horregatik agian, Ibarrek ere, ikusirik *Euzkadi*, *Argia*, *Ekin* eta besteren hutsunea, euskal informazio-egunkariaren beharra aldarrikatu zuen, plangintza baten barruan (48).

Gerrak, militar-faxista eta erreketen matxinatuei erantzutean piztu zen gerrak euskal idazleen eztabaidak eta egitasmoak desagertarazi zituen, eta zereginak aldatu. Lauaxetari Euzko Gudarostean beste kargu batzuk eman zizkionten, eta geroxeago, Euzko-Jaurilaritza osatuta gero, azaroan, *Gudari* sortu zuten, euskal atalaren artezkari izandakoaren zuzendaritzapean (iragarpena: Euzk 7438, 1936-10-29; *Gudari*-ren helbidea: Bilboko Bidebarrieta 23, 2.a). *Bizkaitarra* eta *Ekin* asterokoak desagertu ziren.

(48) Hona *Ekin* eta *Argia* asterokoez Ibarren kritika: *Ekin*: «primordialmente doctrinal-religioso y lleva la «información general como accidente» (*Genio y Lengua*, 66). *Argia*: «está muy lejos de poderse llamar «un órgano de información» –como no se pretenda confundir la «información» con la «gacetilla o crónica menuda» de corresponsales aficionados; de donde resulta que ni uno ni otro (ni *Ekin* ni *Argia*) deben bastar para colmar las aspiraciones actuales de nuestro público; como, en efecto, no las colman, a juzgar por el favor creciente de los periódicos eraldunes, llámense o no vascos» (Ibar, *Genio y Lengua*, 66).

Berriemaile edota idazle gehienak mutu gelditu ziren: arduraduna (I. Enbeita, ustez) kexatzen da, herrietako berri eta artikulua gutxi hartu dituela-eta, Mañarikoko zintzoaren herri-izpar ondo biribilduak salbu («Euzkel-idazliak», Euzk 7371, 1936-8-11; sinatu gabe); baina beste 20 batenak ere bazeuzkan, idazle nagusi eta jarraikienak alde bat utzita (Euzk 7489, 1936-12-29. Ik. Erasikinak (II). Idazle gehienak gazte sasoikoak ziren eta armak hartu behar izan zituzten (49).

Gerran euskal idazle eta kazetari abertzale mordoxka fusilatua, erailak izan ziren. Ezagunenak Lauaxeta eta Aitzol dira baina horiez gain ondokoak aipatzea tokatzen da: Martin Lekuona Oartzungoa; Jose Markiegi Debakoa (Lizardiren *Itz-lauz* liburuaren prestatzailea), Arrasaten fusilatua; Elgoibarko Gotzon Osoro «Aberri», sortzez motrikuarra, Kirikiñoren garaietako berriemaile *Euzkadin*, 1933an omendua, erreketeez Larruskainen (Markina) harraipatu eta Donostian fusilatu baitzuten, Euzk 7487, 1936-12-25); Josu Peña «Aitza»; Jose Mari Azkarraga «Lurgorri», Aramaiokoa (ik. Bibliogr.: Euskerazaintza: 2002).

1936 urte bukaeran, Euzko Jaurlaritzak, egunerokoen orri-murritzarekin batera (4 orrialde bakoitzak), aukeraz eta erabakitze ahalmenez baliatuz, erabaki garrantzitsu bat hartu zuen: egunkarien banaketa baten partaide, *Eguna* euskara hutsezko egunerokoa sortzea (50). Euskarazko eguneroko berria, historikoki lehena Euskal Herrian, *Euzkadiren* azpiegituraz eta «euskal atal»eko idazle taldeaz baliatu zen, gerra garaiko eta gerrari egokituriko egunkariaz arduratzeko. Hain zuzen *Euzkadiren* euskal ataleko idazle gailenak izan ziren gehienbat *Egunako* erredaktore eta kolaboratzaileak (horien artean bi emakume), oraingoan ordainduak (51).

Beraz funtsean *Eguna*, *Euzkadi* eta *El Díaren* «euskal atala»ren garapena izan zen. *Euzkadiren* euskal atala hil zen, nahiz *Euzkadiren* lehen orrialde-

(49) «Ainbat dira izkilluak lepotik dingilizka bezela ikusi dodazan idazliak» (Ogoñope, «Bakotxari berea», Euzk 7374, 1936-8-14; Gipuzkoako idazle asko, Loiolako batailoian omen zeuden (Uzturre, «Naskaldia», Euzk 7407, 1936-9-22).

(50) Erabaki hori hartzeko Euzko Jaurlaritzak izan zituen edo zitzakeen benetako arrazoiak zein ote ziren? Abertzaleen eskutan tresna bat gehiago jartzea? Euskaldunen arteko batasuna sendotzea? Bilbon garai hartan euskaldun asko zegoela-eta, euskaraz irakurtzeko gogoa sustatzea, gerrako albisteen gosea asezea? Ordura arte nahi bai baina egitera ausartu ez zena egitea, aukeraz baliatuz? EAJK euskaraz propaganda egiteari garrantzi handia ematen ziolako? Horiek guztiak eta beste batzuk, agian, dira *Eguna* sortzeko arrazoi.

(51) «Redacción de "Eguna"». Director, D. Manuel de Ziarsolo, 550 (hileko soldata pezetatan). Jefe de Redacción, Agustín de Zubikarai, 450. Redactores, Eusebio de Erkiaga, Manuel de Enbeita, Alejandro de Mendizabal, Jose Bilbao Uribarri. Este se incorporó el día 28 de Enero de 1937. (Soldata) 350 + 107 a los de noche. Corrector de pruebas, Antonio Ruiz de Asua. Se incorporó el día 8. Aretxalde. Colaboradores de pago: «Arrugain», «Basarri», «Uzturre», «Mendi-Lauta», «Barrensorero», «Montxor», «Maite», «Arritokieta» (BBB-364-5, Pablo Azkue, *Euzkadi, Eguna, La Tarde, Excelsius, Gudari*-ren administratzailearen paperak, Abertzaleetasunaren Agiri-tegia, Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa, Artea (Bizkaia).

an noizean behin euskarazko sail bat agertarazten duten, Abeletzek sinatua, edo Luzear-ek («Labur eta mardul», Euzk 7579, 1937-4-11). *Euzkadi* izan zen *Egunaren* labe, *Euzkadiren* «euskal atala»ko idazleak *Egunaren*, lehen euskal egunkariaren bizkarrezur, eta beraz Lauaxetak euskal atalaren artezkari legez eginiko lana, funtsezkoa. Haren itzala nabari bide zen *Egunaren* bulegoetan, beharbada noizean behin agertuko zen kazetariei ikustalditxo bat egitera. Lirtekeena da ere hark bere eragina izatea *Eguna* sortzeko erabakian.

Egunak urte erdi eskas iraun zuen, Bilbo matxinatu militar-faxista eta erreketean eskutan erori arte (1937-1-1 - 1937-6-13). *Euzkadi* egunkaria berriz agertu zen Bartzelonan 1938an. Gerra bukatzeaz, Pariseko *Euzko-Enda. Bulletin mensuelle à l'union de la Race Basquen* (1939 urt.-1940 apirila) idatzi zuten euskal ataleko batzuek: Basarri, Abeletxe, E. Bustintza, Napartarra, Uribitarte'tar I. Kartzelan *Espetxean* aldizkaria sortu zuten EAJko abertzaleek; esaterako, hor hasi zen idazten K. Mitxelena 1938 inguruan. Katea ez zen eten.

Labur: Lauaxeta izan zen Bizkaian XX. mendean kazetari eta idazleen belaunaldietan (Azkueren *Euskalzale* eta *Ibaizabal*, Kirikiñoren *Euzkadiren* ondoren) hirugarrenaren artezkaria, bultzagilea eta antolatzailea. Berriemaile ugari eta idazle gazteak baina asmo handikoak bildu zituen. Guztiei esker, *Euzkadiren* euskal atalak II. Errepublika garaiko kronika eta lekukotza balio-tsua eskaintzen digu.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, J. M. «Lizardi». *Euskera aundiki-soñekoz*, EEE, Klasikoak, 1995, L. Otaegiren edizioa.
- ALTZIBAR, X. (1997 a) «“Kirikiño” kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontalari», in *Gerra eta Literatura 1914-1944*. Eusko Ikaskuntza, Oihenart 14, Cuadernos de Lengua y Literatura, Donostia, 1997, 9-33. orr. (1997 b) «Etxagerrateak sorturiko “Eguna”, lehen euskal egunkaria», in *Gerra eta Literatura 1914-1944*. Eusko Ikaskuntza, Oihenart 14, Cuadernos de Lengua y Literatura, Donostia 1997, 47-56. orr. (2005) Ik. Urkiaga, Esteban, *Lauaxeta* (Inprimagai) «Lauaxetaren kazetaritza», Andolin Eguzkitzari omenaldia.
- AMEZAGA, E. DE. *Bibliografía vasca. Diccionario de seudónimos vascos*. La Gran Enciclopedia Vasca, 2002.
- CORTAZAR, NICOLAS DE (ALZOLA GEREDIAGA, N.), *Cien autores vascos*, Edit. Auñamendi, 1968.
- ERKIAGA, E. «Lauaxeta»-z barriren barri», *Idatz & Mintz*, 7, 1984.

- ETXANIZ, N., *Lan Hautatuak*, Hiria & Egan, 2000 (M. Atxaga, G. Etxeberria, P. Sudupek prestatua).
- EUSKERAZAINTZA, «36'ko Gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak. Lauaxeta. Lurgorri. Josu Peña (Aita). Peña'tar Josu (Aitza), idazle gazte su-izkillatua. *Euskerazaintza-Euskeraren Erri Akademia*, 2002.
- IBAR (J.M. MOCOROA), *Genio y Lengua*, Tolosa, Mocoroa Hnos, 1935; 1936 kanpoko azalean.
- KORTAZAR, J. (1982). Ik. Urkiaga, Esteban, *Lauaxeta*.
- (1984) *Lauaxeta. Biografía política*, Ediciones Alderdi Argitaldaria, 1984.– Mallona, A. Ik. Urkiaga, Esteban, *Lauaxeta*.
- (1990) Ik. Esteban Urkiaga «Lauaxeta».
- LIZARDI (J.M. AGIRRE) *Euskera aundiki-soñekoz* (L. Otaegiren edizioa), EEE, Klasikoak, 1995.
- MALLONA, A. (1991). Ik. Urkiaga, Esteban «Lauaxeta».
- MITXELENA, L., «Las lenguas españolas y el periodismo escrito», *Lenguaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977.
- ONAINDIA, S., *Euskal Literatura*, III, Etor, Bilbao, 1974. –IV, 1975.– V, Etor, 1977; VI, 1990.
- PENADES BILBAO, J., *Lauaxeta, historian hezurmamituriko siesmena. Kultura-ren eta sinesmenaren arteko elkarrizketarako elkargia: solidaritza bizi-arrazoi*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1996.
- SAN MARTÍN, J., *Escritores euskericos*, La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- URKIAGA, ESTEBAN, *Lauaxeta: Lauaxeta, Urkiaga'tar Esteban, Azalpenak, 1931-1935*. Labayru Ik.-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1982, J. Kortazarren aukeraketa eta hitzaurrea («Lauaxetaren prosa»). –*Esteban Urkiaga. Azalpenak eta beste. 1932*. EEE, 1991, A. Mallonaren edizioa eta hitzaurrea.–*Antzerkia*, EEE, Klasikoak 38. J. Kortazar-ek prestatua, sarrerarekin. –*Esteban Urkiaga. Lauaxeta. Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*, Labayru Ik.–BBK Fundazioa, Bilbao, 2005. Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar; testu-moldaketa: Igone Etxebarria.

Oharrak

Komatxoak («») erabili dira beti artikulua izenburua adierazteko, baita idazlearen ezizena askotan.

Letra arruntez eta larriz idatzi dira sailen izenak: Azalpenak, Errijetatik.

ERANSKINAK**I. Herrietako berriemaileak**

Berriemaileak ezizenez ageri dira. Parentesi artean, zein urtetan (gutxienez) izan zen berri heltzale; batzuetan, ezizenduna nor zen.

A

Abadiño: Kukuzar (1936).
 Akorda: Ogoñope (Andoni Ruiz de Azua irrati esataria; 1933).
 Albitz: Artzaña (1933).
 Albiz-Mendata: Albiz-Errotako (1933).
 Amasa-Billabona: Zubi-Ondo (1933).
 Andoain: Buruntza (1931, 1933).
 Araba: Mikelats (1935).
 Areatza (Billaro): Akatza (1933).
 Aretxabaleta: Muru-Mendi (1933); Aitza.
 Arrasate: Udalaiz (Peli Markiegi?); Peli (Peli Markiegi?; 1933); Ikasle (1935);
 Arratia: Itxarle (1931).
 Arratzuba: Arratzuko Trumoya (1933).
 Arrona: Izparkari (1933).
 Axangiz: Jel Gudari (1933).
 Azkoitia: Egi-Alde (?) (1931).
 Azpeitia: Iturri-txiki (1931); Urreko zoroa (1931); Kirol (1931, erdaraz ere; 1933).

B

Barakaldo: Ziñea (1931).
 Bedoña: «Txorizale» (1934).
 Bermeo: Motxela (1931, erdaraz ere); Arraintzale (1931); Urkidi.
 Berriz: Gentza-Zale (1931).
 Bilbao: Torkatiko (1931); Abeletxe (1931); Txindor-kumia (1934). Bilbo-Zarra: Iñor ez (1935). Begoña: X (1935).

D

Deba: Burni-bide (1933).
 Derio: Aketze (1931); Elexalde (1933).
 Donostia: Atarrene (1931).
 Durango: Gogorra (1931); Tabiratarra (1933; F. Belaustegigoitia?); Ibaizabal (1933).

E

Ea: Manu (1933).
 Eibar: Legarre (1931); Lakatza (1933).
 Elgoibar: Aberri (Gotzon Osoro); Atxolin (1931); Aixerixa (1936); Ixaka; Mirentxu (Mirentxu Juaristi).
 Erandio Goikoa (Asua): Txistu.
 Ereño: Emakume bat (1935).
 Errenderi: Andoni (1933).
 Errezil: Talo (1931).
 Errigoitia: Txindor Bi (1933).

F

Forua: Sugatzarte (1933); Ibai-Gane (1935).

G

Galdakano: Algorri (1931); Bildur (1931); Txomintxu (1933); Basakiña (1936).
 Gaminitz: Goiko Mendi (1931); Aiko-Zera (1933).
 Gaminiz eta Ibarrika: Aiko Zera (Eu 6770, 1934-8-).
 Garai: Patalako Sagua (1933).
 Gatika: Laun on (1931); Aberri-Alde (1933).
 Gautebiz Arteaga: Izparkarija (1933).
 Gaztelu-Elexabeitia: Erritar (1931).
 Gaztelerritik: Nabarriztarra (1933).
 Gernika: Belumendu (1933; lehenengoetarikoa zen); Bixiko-etxe (1933; andrezkoa zen?); Eliz-ondo (1933); Bake-zale (1933); Olariaga (1933); Balle-zale (1933an hasia).
 Getxo-Neguri: Arza «Torkatiko» (1931).

I

Ibarruri: Ibarralde (1933).
 Iurre: Aramotz (1931).

J

Jatabe: Jatabetarra (1931).

K

Kortezubi: Kortezubi'tar (1933); Neu nok (1933); Astelarra'tar Andoni (1933); Gora-Beti (1933); Larra-Gane (1933).

L

Larrabetzu: Urittar bat (1933); Mendi (1933).
 Lasarte: A-Bi (1933).
 Laukiniz: Txiberri (1933).
 Lazkano: Ibai-alde (1933); Zar-zale (1933); Iramendi (1933, 1934, Lauaxeta-
 ren adiskide dateke)
 Legazpi: Zar-zale (Gr. Mujika?; 1931); Ilintxa (Kepa Gurtubai).
 Lekeitio: Endaitz (E. Erkiaga; 1933, 1935).
 Lezama: Txirri (1933).
 Logroño: Jeltzale (J. Garmendia «Zeleta»; 1933).
 Loiu: Luyu (1931).

M

Mañari: E. Bustintza «Mañariko» (1931-1936).
 Markina: Markiñarra (1931. Alberto Onaindia Zuloaga kalonjea? Alberto Onaindiak *Euzkadi* egunkarian idatzi ohi zuen erdaraz «Egizale», «Markiña», «Olaso», «Jurgi de Ibaseta» ezizenez. «Labor euzkerista» sail garrantzitsuan, euskal kulturaz (1931-5-3). Euskaraz ere zerbait idatzi zukeen, Markinako berriak noizean behin emanez); Ete (1933; emakumea da).
 Mendaro: I'tar; Agiis-arte (1931); Kaiku (1933); Karri (1933).
 Mendata: «Gaste-Belu».
 Meñaka: Doño.
 Milpilla (Txile): Erri (1933).
 Mutriku: Murugain (J.M. Burgaña); Andoni (1935); Gurutz-ondo (1933; Gurutz-ondo Ondarroakoa ote zen? Ik. L.ren «Uarra», Eu 6332, 1933-3-24); Arno-Mendi (1933); Idrole (1933); Elordi'tar Jon; (1933); Kialde (1935); Ixakin (1935). (J. A. Arkotxa «Kirol-Zale»ren arabera, 11 euskal berrie-maile izatera heldu ziren Mutrikun (*El Día* eta *Euzkadiren* artean agian). Ik. Arkotxa «Ziarsolo», Onaindia, S. *Euskal Literatura*, VI, 85. or.).
 Mundaka: «Otxolua» (B. Garro; 1931).
 Mungia: Otalora (1931); Beti-Zuzen (1933).
 Murueta: Aitz-Gane (1933).
 Muxika: Goldari bat (1933); Matxalen.

N

Nabarniz:
 Natxitua: Kurutze-Gane.

O

Oiartzun: Enara (1931).

Ondarroa: Artibai (J. M. Ituarte; 1931-1936; ik. Onaindia, S., *Euskal Literatura*, V, Etor, 1977, 19-20); Txori-etxea (?1931); Urretxiñdorra (1931); Basa-Txoritxu (1931); Txori-Erreka (1933); Ibai-ondo (1933); Edurbero (1933).
 Oñate: Aloña (1931); Ikasle (1933).
 Orio: Abaraska (artikulu-egilea ere bada, ik. Euzk 6518).
 Orozko: Lemotza (1933); Usotxu Bi (1933).
 Otxandiano: Anboto (1933, 1935).

S

Santander: Oztategitxuko Jon (Zabala-Arana?; 1933). Ik. Gaztelerritik.
 Segura: Otarra (1933).
 Soraluze: Dris-dras (1933; STVkoa; erdaraz ere idazten du, ik. 1935-3-29).

T

Tolosa: Uzturre (1931); Aritzeta (1931).

U

Ubidea: Aretxeta (1933).
 Urduliz: Txiberri (1933).
 Urretxua: Arri Gotzon (1933); Andere bat (1935).

Z

Zarauz: Basarri (1933, 1935).
 Zeanuri: Baserritar bat (1931); Atzurkulu'ko Mirue (1931); Arregi'tar bat (1933).
 Zeberio: Gastelu (1931).
 Zornotza: Urki (1933).
 Zumarraga: Altzeta (K. Linazasoro, Lauaxetaren hizlarikidea; 1933).

II. Oharrak: Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari

Oharrak: Urte (1932) eta hilabete batzuetakoak falta dira. Batzuetan oharra osorik transkribatu orde, garrantzitsuena jaso dugu; beste batzuetan, transkribatu beharrean, laburtu.

1931

- Arrasateko «Udalaitz»i (P. Markiegi?): «Uarra: Nere tamal-agurra Peli adiskidea. L.» (Errijetatik: Arrasate (Mondragón), Euzk 5675, 1931-2-17).
- Berrizko Gentza-Zale-ri (sinatu gabe. L?; Euzk 5676, 1931-2-18).

1933

- «Arritokieta» ezizendunari (Julene Azpeitia zumaiar idazlea), «Notintasuna» artikulua idatzi duela-eta, gogo berotuz holako ikaskizunak behar direla-eta (Euzk 6275, 1933-1-17; 6299, 1933-2-14).
- Elgoibarko «Axarixa»ri: letra garbia idazteko (Euzk 6310, E933-2-26); Iribertegi'tar Akilin-i, Josu Neketiako, Arraizakoari (Nafarroa) (ibid.)
- Goitia'tar Iñake ipuin idazle gazteari: «Uarra. Zorijonik samurrenak. Aberrija itxartuteko beste biderik eztago. Lauaxeta.» (Euzk 1933-3-1).
- Zigoitiako Urbiñaran-i. «Uarra. Pozik idazkitxu au jaso dot. Aspaldijon ixilik zengozan eta Araba'ko izparrak atsegingarri yakuz.» «Lauaxeta» (Errijetatik, Euzk 6316, 1933-3-5, 8. or.).
- «Mudurri-gastea»ri, idazle hau euskaraz idazten hasten baita Lauaxetaren «Espetxian» artikulua irakurri ondoren. Hark bere «Aberrijaren askatasun-bidian orrelan a...» idazlanean bilbotar neska abertzaleen joera kritikatzan du (paparrean euskal orratza bai baina euskara «aldeanuen», «jeboen» hizkeratzat, hots Bilboko gizartean euskara gaizki ikusia dela salatzen du). «Uarra. Eskerrik asko: Eskerrik asko zeure gorralbenak bide, Abertzaliok egija dala uste doguna esan bihar dogu (...). Eta orain eskari bat: sarri-sarri euzkeraz idatzi egixula. L.» (Euzk 6317, 1933-3-7).
- Foruko Sugatzarte-ri «Uarra. Poztu naz (...). Eta zeuk idatzi noxian bein. Agur. Lauaxeta» (Euzk 6319, 1933-3-9).
- Eibarko «Lakatza»ri (Euzk 6321, 1933-3-11).
- Elgoibarko «Mendigoizale bat»i: «Uarra. I, adizkide, erri ortan dauden idazle guztijai muturreko bana eman, alperrak diralako. Eta ik idatzi sarri-sarri. "L"» (Errijetatik, Euzk 6322, 1933-3-12).
- Motrikuko «Gurutz Ondo»ri: «Uarra. Deban ixan zintzan (...) eta neuri agurrik bere ez. Olakorik eztot entzun (...). Txalo lar entzuten doguz izlarijok eta alperrik galduta gabiltz. (...). «L» (Euzk 6328, 1933-3-19).
- «Igandietako Jaupa-atalak» saileko «Atarrizbarna» idazlearen artikuluari eginiko oharrean, Lauaxetak azaltzen du zergatik berandu argitaratu den: «Uarra. *Jaupa-atal oneik batuta euki gura* dabez batzuk (...) "L"» («Igandietako jaupa-atalak» «Atarrizbarna», Euzk 6327, 1933-3-18).
- Urretxuko «Arri gotzon»i (Euzk 6328, 1933-3-19).
- Arronako «Izparkari»ri, pozik, jarraitzeko esanez («L», Euzk 6331, 1933-3-23).

- Ondarroako «Gurutx Ondo»ri: «Uarra. Ze demoniño darabiltzube geure bizkaiera txukun onegaz? (...). Eta zeuk idatzi egixu zintzo. “L”» (Euzk 6332, 1933-3-24).
 - Berrizkoari, Soraluzekoari (Euzk 6343, 1933-4-6).
 - Mendatako «Gaste-Belu»ri. «Uarra: (...) Kortezubiko idazliak lotan edo dagoz» (Euzk 6346, 1933-4-9).
 - «Arteta»ri (A. Zubikarai), honen laguna dela eta Lekeitio aldean elkar ikusten zutela erakutsiz: «Uarra. Adizkide, ba-dakit Donostian ixan zarana, baña neu enintzan jua. Lekeitio-aldera be, juateko asmuetan egon nazan-arren, zati batean enaz juango, erdi kili-kolo nabil eta. Idatzi astero-astero. Lauaxeta.» (Errijetatik, Euzk 6353, 1933-4-19).
- «Uarra. Idazti askotxu daukoguz eta zerbait moztu dautzut. Neuri esaten zeustazuzanak. Laster orrantza juateko asmua dot, ia osatuta nago ta. Pelotajokaldi on bat egingo dogu, neuk izparringijan iragarriko dot-eta. “L”» (Errijetatik: Mendexa «Arteta», Euzk 6361, 1933-4-28).
- Logroñon osasun kontuengatik dagoen «Zeleta»ri (J. Garmendia). «Uarra.–Lenbailen osatu zadiz (...). Zu lako idazliak bihar dauz geure izkuntza onek. (...)» (sinatu gabe) (Errijetatik: Logroño «Zeleta», Euzk 6369, 1933-5-7).
 - Areatzako «Akatza»ri. «Uarra.–Neureketz be, tamal-agurra egitten dautsot «Garmendia» abertzale zintzuari, bere anayaren eriotz-bide» (sinatu gabe, Errijetatik: Areatza «Akatza», Euzk 6374, 1933-5-13).
 - Gernikako «Bake-Zale»ri, sinatu gabe, oharataraziz izparrak ez errepi-katzearren, moztu dizkiola (Euzk 6509, 1933-10-18).
 - Derioko «Elexalde»ri: «Uarra.–Ia «Elexalde» sarri-sarri idazten dozun. Ez nekatu. Askori jazoten yakona, gaur asi ta bijar il.»– “L.”» (Errijetatik: Derio, Euzk 6402, 1933-6-5).
 - Donostiako «Atarrene»ri. Honek «Euzko-Erri-Jakintza» sailean «Ezizenak» artikulua idazten du, 112 bat ezizen batuz, garai bateko Donostiakoak, arrantzale artekoak). «Uarra.–Askok uste ixango dute lan au alperrikua degula, baiña oker daude. Olako exizen guzijak bilduko ba-giñuzke, errazkada txukuna egiñen ginduke. Tamalez errijetako idazliak ez dute egin nai agintzen zayen lanik. Erriko izparrak ederki daude, baña beste bertzo zar, ipuin eta exizen eta abar batu biar dituzte. Egunero eskatzen diegu. Alperriko deyak, ostera.–Lauaxeta.» («Euzko-Erri-Jakintza», Euzk 6403, 1933-6-16).
 - Mungiaiko «Beti-Zuzen»-i: «Uarra.–Mungia’ko Gastetxubetako batek olan idatziko lebala, eleudan uste. Ondo dago. Orain lanari ekin bihar dautsozu. Egunero irakurri egixuz euzkerazko izparrak eta abar. Idaz-

ten ikasi gura ba-dozu, asko irakurri biar ixango dozu. / Zorijonak zeben irakasle diran emakume zintzo orrei. “Lauaxeta”» (Errijetatik: Mungia «Beti-Zuzen», Euzk 6406, 1933-6-20).

- Debako «Burni-Bide»ri: «Uarra.–Asmo ona artu dezute Euzko-Langilien Alkartasuna antolatuz. Olako alkartiak onura andija ekarten geure aberri oni. Idazten jarraiko dezula uste det. Agur. “Lauaxeta”» (Errijetatik: Deba «Burni-Bide», Euzk 6407, 1933-6-21).
- «Arteta»ri (A. Zubikarai), uda aldean Lekeitio aldera joango dela: «Uarra.– Eztodaz jaso (...). Laster orrantza juango naz.–Lauaxeta.» (Errijetatik: Mendexa, Euzk 6411, 1933-6-25).
- Axangizko Artepe-ri, herriko mitinean (Ogoñope eta J. A. Agirrerekin batera Lauaxetak parte hartzekoa) ezin egon izan zela adieraziz: «Uarra.–Neu ezin jua ixan nintzan, tamalez. Urreruan ixango da. Lauaxeta» (Errijetatik: Axangiz, Euzk 6411, 1933-6-25).
- Motrikuko Idrole-ri, laburtu diola adieraziz: «Uarra.– (...) laburtu dizut (...)» (Errijetatik: Motriku «Idrole», Euzk 6411, 1933-6-25).
- «Zaizuri»-ri (nafar idazleren bat dirudi). Honek «Il-zori aurreko antziak» gipuzkerazko artikuluan kritika egiten du (Quousque tandem...) euskara jakintzagaietan eskatuz, ez bakarrik herriko izpar eta olerkitxoetan. Aitzolek *La muerte del euskeran*, Unamuno eta Barojaren aurka, euskara gai dela esan eta gero *Yakintzan* dena erderaz. Euskara euskal gizartean gero eta gutxiago erabiltzen dela (Euzk 6413, 1933-6-28).

Uarra.–Zeure idazki orretan diran gauza guztijetaz bat-egiñik enagonarren, pozik argitaltzen dizut. Idazliai asko itxi bear zayo, euren aburuba agertu dagientzat. Idazle bat geyago Euzkadi'n ixanen degula uste det. Jarrai ba. Bañon (...) gai sakonak artu ta erabilli. Bakotxak bere arlua aurrera eraman daigun. Lauaxeta.» (Eu 6413, 1933-6-28).

- *Zaizuri*-ri oharra, honek idatzi «Aberearen arima ezta gogozkoa»: «Uarra. *Olako gayak erabiltzen badoguz, euzkerea goratuko dogu.* Pozik argitallduko dira gai oneik (...). Lauaxeta. («Zaizuri», «Aberearen arima ezta gogozkoa», Euzk 6434, 1933-7-22).
- «Atarrene»ri, honen «Aberri'ren omen ondoren» idazlanari erantzunez (Euzk 6448, 1933-8-8).
- Uzturreri, honen «Gipuzkoa-Buru-Batzarra'ri ate-joka» idazlanari (Euzk 6454, 1933-8-15).

Lauaxetaren oharra. Irratsaio bat idatziz argitaratzen duela. L. (Euzk 6490, 1933-9-26).

- Ibarruriko «Ibarralde»ri : «Uarra: (...) L» (Euzk 6494, 1933-9-30).

- Zeanurikoari (Euzk 6507, 1933-10-15).
- «Kurutze-Gane» Natxituako berriemaileari oharra (Euzk 6507, 1933-10-15).
- Bermeotik Lekeitiora: L.ren oharra (Euzk 6507, 1933-10-15).
- «Satarka»ri (Klaudio Sagarzazu), haren «Itzalditxoa» artikuluari egini-ko ohar luzea. «Satarka»ren artikulua ohar honekin dator: (Gipuzkoa'-ko aldunen omenean irakurritako itzalditxoa). Eta testuaren ostean dator Lauaxetaren oharra:

Uarra.- «Satarka» olerkarijari: Olerkari samur bat ixan zan, bein Euzkadi'n. Negu gorrija zala entzun genduzan bere abesti-otsak. ¡Umetxu gintzazan, baña zein bigunki sartu yakuzan aren oyubak! Euzkadi'ko zugatzetan ostruak erne ziran olerkarijaren abestijak entzuki.

Baña bijotzetan etzan sortu ostrorik. Bijotzak otz-otz egozan eta abeslari beti ixateko jayo zan olerkarija ixilik eguala. ¡Zer ardura dautse euzkotarrai olerkari bat gora-bera! Ostikolari edo pelotari jayo ba-zan, izparringi gustijak aretaz mintzatuko ziran. Baña zoritxarrez olerkari jayo zan eta txakurrak aña eztabe balijo olerkarijak.

Abeslari sortu zan arek «Txinpartak» eritxon idazti bat argittaldu eban, baña erriak ezaban onartu. Trabenetan jan eta edan ibiltia atsegiñago yakon. Olerkarijaren bijotzera negu otza jausi zan eta urtiak juan urtiak etorri eztoгу bere abotsik entzun. ¡»Satarka» ezagututen ete-dozu olerkari a? ¡Aren ordu-ba juan ete-zan betiko edo oindikarren abar-itunetan abestu ete-daike txorriak? Txikiak gintzan olerkari areri aupada bat egitteko, orain andi egin garanian oyu-egitten dautsogu aberri zoritxardun onegattik abestu daijan. ¡Eztautzube eskartuko! Al daben gustijak aginka egingo dautzube, baña gixonak baño obiak txakurrak dirala-ta, oneikattik abestu bedi olerkarijak.

Gixonak eztira gai olerkarijaren oñak zapaldu dagijazan, be. Baña txakur gaxuak, euren begi zabal-zabalakaz begiratuten dauskube. «Satarka» zanaren abestijak, «Txinpartak» emon euskuzanaren bijotz-miñak entzun gura geunkez txakur-zaliak garanok. Lauaxeta (Euzk 6556, 1933-12-12).

1934

- «Jautarkol»i (L. Jauregi), pozez, Verdaguer-en olerkiak itzuliko dituela jakitean (Euzk 6659, 1934-4-12).

1. «Irular»ek (Aingeru Irigarai) Lauaxetari («Nabarra» «Irular», Euzk 6670, 1934-4-2)

«Lauaxeta adiskidea (...) (...) zure ipuin barregarriak (azkena, «Ezta-baidea» deritzona) oso pozik irakurri ditugu guztiek; baño gatz eta piper ori ezdugu denek, (...)». «zure erderazko irakurgaiak ere gogotik ikusten ditugu;

eta bearrezkoa da «bibliografia» sail ori *Euzkadin*. «Euskera pizteko, berriz, errietako elzaleak ordaindu, erderazkoak bezanbat. «Udaletxeetako tokiak, eta (...) bearrezko egin euskeraz yakitea.». «Ez artu euskera ikurratzat, apainduratzat (...)».

Lauaxetak «Irular»i erantzuten: «Egi utsa esan dok! Euzkera-gauzetan atzera ez ete-guazi? (...) Zer egiñen? (...). Errijak gogozago irakurri oi-dauz, ipuin barregarriak. Oraingo notizi batzuk be, emon biar yakoz. Nire asmoe-tan dabil ume-artian sariketa batzuk egin. Euzkerazko ipuin, bertso txu, asma-keta eta abar saritubak ixan biar dabe. Ume sariketa au beriala biribilduko dogu. Zure ta beste askoren asmuak jakin nai-doguz (...)».

- «Jautarkol»-i: «Uarra. Pozari nago (...). Lauaxeta» («Verdaguer'en olerkiak euzkeraz». Jauregi'tar Koldobika, Euzk 6659, 1934-4-12).
- Lauaxetak bere olerki bati («Udabarriko autorkuntza», egileak orrialdaren erdi-erdian kokatu zuen olerkia, apain-apain): «Uarra. «Olerki errikoyak egin bihar dirala dirauskubete. Tira, ba, bakotzak al-daun eran egin begiz. (...)» (Euzk 6669, 1934-4-24).
- «Endaitz»-i (E. Erkiaga), honen «Maite min?» olerkia dela-eta: «Uarra. Benetan polita auxe. L.» (Euzk 6688, 1934-5-17).
- Bedoñatik idazten duen «Txorizale»ri, honen «Nere begijen aurrian» olerkia dela eta: «Uarra. Adizkide: poliki ari zara bertsoetan. Jarrai bide ortaz. «L» (Euzk 6690, 1934-5-19).
- «Mañariko»ri (Errose Bustintza), sinatu gabe (ala I. Enbeitarena da oharra?) (Euzk 6691, 1934-5-20).
- «Sataraka»ri, honen «Iturrian» olerkia dela-eta –Tagorerena, euskaratuta–: «Uarra.–Olerkari trebe ori: pozik zure lanak ikusten doguz. Ugari-txubago bidalduko dauskuzu zerbait, ezta? Ondokoen otza dala-ta ez ikera. Gustijen kontra bada be, olerkarijak aurrera egin biar dau. Lauaxeta.» (Euzk 6717, 1934-6-20).
- Bedoñatik idazten duen «Txorizale»ri, hark «Lauaxeta'ri» olerkian esandakoagatik, hots «Agur Maixu! Agur lagun!». «Jarrai deyozun lan eder'ortan / Guri begiak zabaltzen / Aberriaren semia danak / Asi gaitezen ulertzen.// Noiz edo bein, badakizu zuk / Ipuin ederrak bialtzen / Baserritarrok egoten gera / Poz-pozik ayek entzuten.». Lauaxetaren oharra: «Uarra. Mila esker, adizkide, olako bertso txukunak neuri opaldu daustazualako. «L»» (Euzk 6719, 1934-6-22).
- «Iramendi» Lazkaoko berriemaileari. Honek idazten dio: «Uarra. Lauaxeta jaun agurgarria (...) zure eskumuñak jaso ditut. Anei esker (...). «Iramendi»» (Euzk 6725, 1934-6-). Lauaxetaren oharra: «Uarra. Zori-

jonak lloba berri ori dala-ta, Libe ixenak bidia dikur baña Amaya'k eztauko erderazkorik. "L"» (Errijetatik: Lazkano, Euzk 650, 1934-7-28).

– Bilboko «Txindor-kumia»ri ohar moduko bat, sinatu gabe (Euzk 6749, 1934-7-27).

– «Atarrene»ri (donostiar idazlea. Augustin Anabitarte ote??), honen artikulua bati erantzunez. Atarrenek bere artikuluan dio bere anaia bat *Euzkadiren* bulegoetara joan zela Lauaxeta ikustera.

«Agur Lauaxeta, jeltzale zintzo ta sutsua. Zu izango zera, noski, ori (...) Euzkadi'n nere anayagaz egon ziñana. / Mutil gaste, polit, rubio, dotore, ta betaurrekoaz zala esan ziran ta, ori zu izan bihar, «erreboluzionero» ori ezta? Nere anai-bidez esandakoa jaso det, baña ez uste izan *Euzkadi*'n idazten ez badet, aztuta nagolako dala. (...). / *El Dia*'n idazten ditu(d)an euskel-idaztiak, *Euzkadi*'ri biali ta, zure naya, bete nezake, baña ez naiz idazlan bat, bi izparringitara bialtze zale (...).

Lauaxetaren erantzuna: «Uarra.–Ni ixan nintzan bai, zere anayarekin egon zana. Arek esan eutzuna nireketz zan. / Idazliak zer egitten dabean, itaunduten dozu. Askok ezerez. Bein zerbaite agertu etxakiela-ta betoker dagoz. "L"» («Donostia'tik Bilbao'ra eskutitz irikia» «Atarrene», Euzk 6777, 1934-8-29).

– Miomako (Araba) «Txindoki»ri, honek «Larrunarriko Gurutza» idatzi ondoan. «Uarra.–Jauna: sarri-sarri datzi. Or txoko lirain orretan ixango dira berein jakingarri. Aunitz esker bidalduten ba-dauskuzuz. Zure lagun gara gaurgeroz izparringiko gustijok. Agindu Jel-pian jaun orrek. "L".» (Euzk 6758, 1934-8-7).

– «Kirol-zale»ri, Arnopere-ren omenaldia dela-eta. «Uarra. Ni ere iritxi ortan nago. «Arnopere» zanaren gogo-aldez jaitxu bat egitzea (sic) egokia dela iduritzen zait. Motriko'n toki berezia (...). Entzungo deguz (sic) beste idazle azkarren iritxiak. "L"» (Euzk 6778, 1934-8-30).

– Gatikako «Aberri-zale»ri, honen «Gernikako espetxian» artikulua erantzun; izenpetu gabe, baina Lauaxeta izan behar du: «Uarra. Pozik nago Gatika'ko gazte zintzuok egin dozubena jakin dodanetik. Olako erri gitxi dago gero! Zuek zari mutilak zubek! Euzkadi'n eztagoz beste lau. Ez ikeratu, geure aberri onen alde ori baño geyago be, egin bearko dogu-ba. Beste (erri)batzutan arro ibiltan dira, baña Gatikarrok orainguan onduen portau zari. Espetxian zagozanoi besarkada bana. Gora Euzkadi! Eta kazike peste ta zitalok or elexondoko orregaz batera lupak jango al dauz.» (Euzk 6805, 1934-9-30, Errijetatik).

1935

– Urretxuko berriemaileari («Andere bat»), honek «Arri-Gotzon» idazlea espetxean dela jakinarazten dio; Lauaxetak ezagutzen du Arri-Gotzon:

«Uarra.–Ederki (...) eznekian. Gaxua! Mutil azkar eta apala degu axe ba. (...) Zorionak bere sendikoai (...). L.» (Euzk 6948, 1935-3-31).

- Bergarakoari, «zuzendari jaunaren» baimena eskatzen baitu idazteko.
- Abertzale zintzo bati ohartarazteko (Euzk 69690, 1935-4-26).
- Zarauzko berriemaileari, hika (Euzk 6970, 1935-4-27).
- Begoñako berriemaile bati («Txorizale?»): «zu lako mutil azkarrai Lauaxetak laketuten dautse» (Euzk 6994, 1935-5-26).
- Sabin Muniategi olerkariari, honen «Zeugaitik» olerkiaren ondoan: «Uarra: Azana azala, olerkarija az! Ire beste olerki batzuk be, irakurrijak jaukodazak eta punterengotzat aukot. Gastia az? Orduban bai ixango intzakela olerkari trebia! Bilborantza atorran batian, ikertaldi bat egiskuk. Lauaxeta. (Euzk 7016, 1935-6-21).

Muniategiren «Lilluratubarena»-ren ondoan, Lauaxetaren oharra: «Uarra: Olerkari on bat agertu yaku. Orain arte be, esan dogu, baña barriro esan nai dogu. Muniategi gastiak zer egin daiken igarri geinke. Abixen au buruban artu begije gure elerti-zaliak. L.» (Euzk 7061, 1935-8-13).

- Olerkariiei. Elertizaleei ere tokia egin behar zaiela egunerokoan (Euzk 7141, 1935-11-14). Astean orri bat aterako dela, ostegunetan, olerkiekin.
- «Lotsati» olerkariari, honen «Bizitza eta maitasuna» argitaratu ondoan: «Uarra. Olerkari aundi-aundia egin zaitu Goikua»: izkuntzearen sakanak ikasiko dozuzanian, orduban bai, gauza txukunak egingo dozuzala! Olerkari onaeen lanak irakurri egixuz, edertijaren arauak, be, adiraldu. Giar geiegi daukozun ezkeru, aurrera bildur-gabe. Lauaxeta.» (Euzk 7129, 1935-10-31).
- Etxeberriari uarra, «Izlarijok!» artikulua dela-eta (Euzk 7137, 1935-11-4).
- «Barrenso»ri (T. Agirre), honek eskatu duelako alderdiak euskara gehiago egitea. Lauaxetren erantzuna: «BBBko landoletan, *Euzkadiko* aretoetan eta beste toki gustijetan be, amaikatxu euzkera entzun daruagu (...). Lauaxeta.» (Euzk 7161, 1935-12-7).
- «Sataraka»ri: «Uarra: Aspaldiko olerkari au be, itxartu yaku! (...) Sataraka ezta azkenengo malletakua. L.» (Euzk 7171, 1935-12).
- Bilbo-Zarra'ko (sic) «Iñor-ez» berriemaileari, euskara ikasi duela-eta: «Uarra. Ainbeste samintasan barruban darabilgunok poztuten gara olako abertzale zintzuak aurkitzen doguzanian. Egunean-egunean ordu bete euzkereari emoten dautso (...). Lauaxeta.» (Euzk 6969, 1935-4-26).

- Begoñako (Bilbao) berriemaileari: «Uarra. Zu lako mutil azkarrai Lauaxetak laketuten dautse» (Euzk 6994, 1935-5-26). Begoñako berriemailearen erantzuna: «Eskerrak Lauaxetari, lengo astian ipiñi eban uarragattik» (Errijetatik: Begoña, Euzk 7000, 1935-6-2).
- «Uribitarte'tr Ibon»-ek S. Muniategiri, honen «Udabarriko eresija» dela-eta; itxura denez, Muniategik L. ikusi nahi du: «Uarra. Lauaxeta ikusi gura dozunian, emen ikusi zeinke, Bilbao'n aurkitzen da-ta. I.» (Euzk 7118, 1935-10-18).
- Lauaxetak (?) Bilboko Jatorrak-i: «Uarra. Bilbao»ko Euzko-Gastedija'n «Abeletxe» irakasliaren ardurapean euzkeraz irakurten eta idazten ikasten asi diran euzkeldun jatorren idazkija da au.» (Euzk 7121, 1935-10-22).
- Otxandiokoari: «Uarra. (...) L.» (Orixeren poemaz). (Errijetatik: Otxandiano, Euzk 7137, 1935-11-9).
- Olerkariei: «Uarra. (...)» (Eu 7141, 1935-11-14. Elerti zaleei ere tokia egin behar zaiela).
- «Malko»ri, honen «Bakar-izketa itxuraz»-i erantzun gisa: «Uarra: Nai dezunian idatzi, geure orri oneik zeuregana dagoz. Lauaxeta.» (Euzk 7175, 1935-12-24).

1936

- Abadiñoko «Kukuzar» izparkariari: «Zuek daukazube umoria, zubek! (...) Beste erri askotako gastedijak lotan dagozan artian, (...) geure Euzkadi onen onerako. Lauaxeta.» (Errijetatik: Abadiño, Euzk 7252, 1936-3-22).
- «Erletxue»ri (J.M. Abando). Honek «Izpegi» olerkia eskaintzen baitio Lauaxetari. Lauaxetaren erantzuna: «Uarra. Eskerrik asko zeure esken-tza orregatik. Bakio'ko toki eder arek beste ixenik elei onartu. «Izpegi», «Panorama marítimo» «Balcón de mar» eta beste olako ixen batzuren ordezkua dogu. Neuri begiko yat. Bakio'tarrak eztagijela baztertu.-Lauaxeta.» (Euzk 7343, 1936-7-9).
- «Gaste-Belu»-ri, «Lorelleko Ametsa (Zintzotasuna)» olerkia idatzi ondoan: «Uarra. Ola adizkide: nundik ataraten dozak olako olerki ederrak? Poz-pozik irakurri yuat. Asko irakurten dokala, ondo agiri dok. Aurre-ra!.-L. « (Euzk 7343, 1936-7-9).
- «Andoni»ri, honen «Udara» olerkia argitara ondoan: «Uarra. Oleriti-Atalok egubenetan argittalduko dira. Olerkari asko agertzen yakuz eta euren lanok argittalduta ikusi gura leukiez. Beraz gustijentzat tokija ixan dedin, egubetak olerkarijentzat ixango dira. L.» (Euzk 7343, 1936-7-9).

– «Erletxue»ri, honek Euzkel-Idazti-Alde egitasmoan lagundu nahi baitzion (Erletxue, «Entzun ondo!») : «Uarra. Erletxue adizkide zarrak «Entzun ondo!» dirausku, baña (...). / *Euzkadi* izparringijan idazten daben idazle gustijetatik iru-edo lauk baiño eztauskube erantzun.../ Bein eta betiko esan daigun: euzkeldunak eztau matte bere izkuntzea. / Garate osagille azkarraren itzak (...) egi utsak.» (Euzk 7344, 1936-7-10. Ondoren: Arpidedun-agiria eta helbidea: Euzkel-Idazti-Alde. Correo txaide, 17'gna).

Berrito Erletxuek beste idazlan bat Lauaxetaren asmoa azalduz eta zein liburu argitara daitezkeen zehaztuz: «Lauaxetaren asmoagaz Euzkel-Idazti-Aldek batu dagiazala lanik onenak, (...) euki daigun biblioteka aberatz bat. (...). / (...) or dagoz *Euzkadi*'ko orrietan ainbeste ipuin eder Mañariko, Arritokietan, Muniategi, Endaitz, Uzturre, Otxolua, Barrenoso, Enbeita'tar Imanol eta beste askorenak. (...). Ez deritxazu lotsagarria dala oindiño, esate baterako, Enbeita'tar Kepa'ren bertso liburutxu bat eztogula egin?» («Entzun ondo ta ez aitzu!», Euzk 7346, 1936-7-12).

Lauaxetaren erantzuna: «Uarra: Ekin...Atzo be, bost arpide barri. Bilbotarrak ondo erantzuten dabe. Euzkerarik ezta kijenak be, euren ixenak emon dauskubez. (...). Alperrik gabiltz aberriaren alde, bere soñurik zarrena ta sus-trairik gogorrena galtzen badogu. Euzkerea!» (ibid.).

– «Belostikalekoa»ri, Euzko-Idazti-Aldez kanpaina dela-eta (Erletxuaren artikulua ondo) diotso beste 6 harpidedun berri + beste sei egin direla. Herrialde oso batzuetatik bat ere ez, Getxotik ordea bai.

– «Bortane»ri, honen olerki baten (Oleriti-Atalak sail edo izenburuz argitaratua) ondoan: «Adizkide: Geure euzko-olerkari lanak irakurri egizuz, euren gandik asko ikasi daikezu-ta. Jel-arauz agurtzen zaitudala. Zeure, Lauaxeta» (Euzk 7349, 1936-7-16).

– Lizarraga'tar K.-i: «Uarra. Adizkide on-ona. Pozik jaso ditut zureak. Irrikitzen nintzan zure batzu irakurtzeko. Datorren igandez Beasain-aldeetik izango nauzu eta berriketaldi bat egiten (sic) atsegin izanen zait. Olerkari trebe zaitugun ezker, jarrai bide ortaz. Beti zure, Lauaxeta.» (Euzk 7349, 1936-7-16).

(Harrezkero, I. Enbeitak egiten ditu oharrak, 1936 azken era arte).

Lauaxetaren beste ohar batzuk

1933

– Tolosako Olerki Txapelketa dela-eta, epaimahairen erabakia eta Lauaxetaren ohar laburra (Euzk 6287, 1933-1-31).

- Eskualherrizaleez (talde horretakoak ziren *Aintzina* kazeta argitaratzen zutenak): «Uarra: Jakingarrija (...)/ osuan orregaz ezkagozan arren, ondo baño obeto iruditu yaku» (izenpetu gabe) («Eskualerrizaleen xedeak», Euzk 6433, 1933-7-21).
- «Uarra. Bizkaiko idazlien ixenez autu ninduben ezkeru, neure gardiz egokijaguak diran aldakuntzak egin dodaz (...). Lauaxeta, urriaren 1. igandean (Euzkel-Idazle-Batza. Uarra 'Lauaxeta', Euzk 6487, 1933-9-22).
- «Uarra. Aldaketeak. (...) ondikarren aldaketa geyago be egin gura geunkez. (...). "Errijetatik" deritxon sallan, zerbait moztu biar-ixango dogula. / Erri-izparrak labur-labur agertuko dira. Gaur asi ta agertuten diran lez (...).» (Uarra, L(auaxeta)., Euzk 6512, 1933-10-21).
- «Udalaizpe»ren (J. Zaitegi) «Horatius ene begietan» artikuluari: «Uarra. Len Victor Hugo»taz idatzi euskun idazle azkarrak, Horatius olerkarijaren baratzeru jo dau. Geure elerti onetara lora ederrak ekarri gura dauskuz. Eskerrak emon biarran gagoz, Sopokel'en Antigone, Horatius'en olerkijak, «Kizkiña» eta abar egin dauzan idazle gazte au gorraldu daigun. L.» (Udalaizpe, Horatius ene begietan», Euzk 6528, 1933-11-9).

Lauaxetaren beste artikuluetako iruzkinak (ez oharrak)

1931

- Zubimendi-ren ardurapeko «euskal atala»z eta Richepin olerkariaren olerki batez, hark itzulia: «Donostiako *El Pueblo Vasco*-k igandero euzkel orria agertuko dau. Areiñegun argitaldua irakurri dogu. Zubimendi dau artezkari. Ederki egiña dozu orri guztia. Eresi, olerki eta ipuin politak. Zubimendik euzkeratu dau Parantzeko Richepin olerkiaren (sic) olerki bat. // Orain urte (sic) izango da nerau olerki ori euzkeralduten asi nintzala, baña gatza iruditu yatalako itxi neban. Zubimendik egin daben lana ondo txalotu neike, au dala-ta. Osoan artu begiz neure txaloak. Argi ta samurkiro itzulia da olerkitxu ori. / Euzkaldunak geroago ta irakurgai geyago daukez. Izparringi askok orain euzkel-gauzak argitalduten dabez. *El Pueblo Vascoren* orri au ezta azkenengoa izango. Bide orretatik egunero zer edo zer argitaldutera iritxiko ete dira? Agur egiten dautsegu biotzez» («Egunekua»: «Euzkel orria» ataltxoa, Euzk 5669, 1931-2-10; ez sinatua baina egilea Lauaxeta dateke).
- M. Sotaren «Ator, mutil» antzerkiaz: gaia kontatzen du (Egunekua, Euzk 5677, 1931-2-19, L. dateke).

- Orizez: «Alper xamarra» omen Orixe, Lauaxetaren arabera (Egunekua, Euzk 5678, 1931-2-20).
- «Idazleai uarra» ataltxoa. (Idazleak haserretzen zirela-eta). «Guztioi erantzungo dautsuet, meresi be badozue-ta». «Izparringi onetan toki gitxi itziten deuskue (...) ezin sartu daitekez gura doguzan idazki guztiak. Azketsi. / Uar bat. Bere idazkiak argitaldurik ikusi gura dabezanak, bialdu begiz ainbat laburren, moztuen. Izparrrik giarrenak, muinenak batu begiez» (Egunekua, Euzk 5685, 1931-2-28).
- «Asarre eldu yat idazki bat, «merengez» eginak zirala auzkuak esan nebalako. / Elburu bakarra dogu. Aberrija. Bidiak asko ostera» (Egunekua, Euzk 5687, 1931-3-3).
- Aquinotar Toma: «saratakaz eztogu ezer egingo, idazki sakon eta gixon argijakaz baño» (Egunekua, Eu 5692, 1931-3-8).

1933

- Joseba Altuna idazleaz, honen «Abendearen egerkunak (sic). Aberrija» artikulua eta hitzaldiaz. «Uarra. Larunbat gabaz entzun genduban itzaldija, itzaldi ederra ixan zan (...). Erritxu askotatik itzaldiak eskatuten dauskubez, edonok esateko languak. (...) Sabin'en bidez-bide dabillen gixon apal ta euzkel-idazle argijak lan ederrak egin dagikez. Zorionak egitten dautsoguz. Lauaxeta.» (Euzk Eu 6317, 1933-3-7).
- Sestao'ko mitinean gorriek tiro abertzaleei. «Asaltokuak an ziran, baño trunkil eta ben barre egijen. Neu katzeu ninduben beintzat» (Euzk 6424, 1933-7-11). «Neure bixijan (...) katxeau egin nauela. Sekulan eztot sentidu olakorik, baño igandian Asalto'ko batek esan eustan «Mesedez». / Eta goittik beraño igortzi ninduban. Aldian zer neukan? Euzkadiko ikurrintxu bat, iru laurleko, ingi zati batzuk, eta arkatza.» (Euzk 6425, 1933-7-12)
- *La Voz de Navarra*ren euskal atalaz (Lauaxetak?; letra etzanez, izenpetu gabe): «Izparringi onek euzkel-atala jarri dausku. *El Dia*, *La Gaceta del Norte*, *Tierra Vasca* eta *Euzkadi* ziran orain arte euzkel-atalak argitalduten ixan dabezenak baño beste lankide jator bat agertu yaku. «Egunekua» deritxo bere sail txukunari. Pozarren gagoz, egunez egun geure ele oni biar yakon lotsea emoten dautsogulako.

La Voz de Navarra izparringijaren euzkel-artezkari nor dan eztakigu, baño geure zorionak artu begiz. «Irlar» azkarra, geure adizkide mina, «Larreko» irakasle gorengua, gaste gustijok bijotzean daukogun bixar-zuridun idazle jatorra, Agerre, Tapia-Perurena, ta beste idazle asko dira Naparra-aldian. Orrein lanak non batu ixango dogu orain, eskerrak eguneroko eder orri. Geure zori-

jonik bijozkorrenak egiten dautsoguz ta bide artez jarrai dagijan laguntza eskeintzen dautsogu» («La Voz de Navarra», Euzk 6528, 1933-11-9).

1934

- Justo Garateren euskarazko artikulu bat dela-eta, midikuntza eta biologia ikasleez: «Uarra. *Euzko-Ikaskuntzaren Deya* deritxon aldizkingijan lantxo atsegingarri au argittaldu dauskube. Garate osalari argi ta azarrari zor yako. Tamalez, yaun onek, gitxitxu idazten dausku geure ele maitean./ Euzko-kultura nai dabenak, euzkerara jo bihar-dabe. Jakintsu geyenak euzkeratzaz aztu dira-edo. Dana dala, Garate-ren oraingo au ederto egiña dogu. L.» («Sendagilleak eta landarabere ikasleak», «Eneko», Euzk 6776, 1934-8-28).

1935

- Eguzkitzaren *Gizarte-auzia* liburuaz: «Lehenago irakurrijak geunkazan liburu orretako artikulu geyenak, “Ekin” en agertu ziralako.». «Eguski-za lango idazlerik ez dago asko. Gorengoetan gorengo dogu. Euzkera erreza, errikoya, edonok ulertuten gorengo dana.» (sinatu gabe, «Liburu barri bat», Euzk 6938, 1935-3-20).
- I. Enbeita «Uribitarte'tar Ibon»-i, Batzokian euskaraz egiteaz: «Oker zuzentza: Larunbatan agertu zan Egunekuan, geure idazlekide dan Uribitarte'tar Ibon'ek (...) Euzkeldun batzokija(z) (...) bere eritxijak baño eztira» («Oker-zuzentza», Euzk 6990, 1935-5-22).

«Oker-zuzentza». Ixenburu ber-beronegaz asten zan ingoski onen artez-karijak atzo idatzi eban (...). Baña ez Batzokijetzaz, Batzoki orretako akeitar-aretuetan susmetan dan gaztelar-usañetzaz baño» («Uribitarte'tar Ibon», Egunekua, Euzk 6990, 1935-5-22).

Idazleek Lauaxetari

1933

- Lazkanoko Iramendik (Euzk 6474, 1933-9-7)

«Lauaxetari (1).–Kontxo...Lazkao'n izan omen ziñan eta nizaz galdetu ere ez...Asarre nago. Oturuntza joputu zuan neskatilla argi ark eman zidan zezatasun guztiak. Enkantauta dago zuzaz ikusten naun guzian aitatuta oso atsegingarria zerala esaten dit. Ia egun baten antolatzen dezuten, laster ia...jai. Agur. Poztuten naz, eta urrenguan ia nola alkar ikusten degun.

(1) Lauaxeta oporraldija igazten dabil. Beraz zuk diñozunari ezin erantzun. (...))» (Euzk 6474, 1933-9-7).

- Mendexatik «Arteta»k: «Lauaxeta igazko udan Aralar'ko mendijetan margua gorrittuta geratu bazan, Mendexa'ko edurtzetara etorrijagaz margua zurittuta geratuko litzakijola uste dot» (Errijetatik: Mendexa, «Arteta», Euzk 6571, 1933-12-29).

1935

- «Lauaxeta, el poeta de la imaginación exuberante, que ha pretendido felizmente elevar al euzkera a los derroteros por los que discurren los literatos modernos creando su «Arrats-beran», encantador librito de ingeniosas letrillas que agradan por su ligereza y sencillez; (...)» (Kuntuntu, «Renacimiento euzkérico», Euzk 7110, 1935-10-9).

Idazliai saileko manu, aholku, jakinarazte...

1933

- «Euzko Idazliei»: «Aberri»ren omenezkoan, behin-behineko batzorde bat sortu behar dela, Araudi-gai bat asmatzeko. Berriemaileei ordaindu behar zaiela geroko euskal egunkaria sortzeko (Euzk 6478, 1933-9-12)
- (labur) Elgoibarren izango dela batzarra, urriaren 1ean. Elkartasuna eratu behin eta betiko (Euzk 6492, 1933-9-28).
- Izpar Urtenenak-i buruz:
 - «Uarra. / Kanpora urten biarrak eragotzi dausku «Izpar Urtenenak» ateratia. Azketsi begiskube irakurliak. L.» (Euzk 6530, 1933-11-11).
 - «Uarra. / Lanaren lanez, auteskunde oneik gestau-eziñik, eztaukogu astirik be, «Izpar Urtenenak» egiteko. Azketsiki (sic) dauskube adizkide onok (sic).» (Euzk 6534, 1933-11-16).

1935

- (6 hilabeteko debekualdiaren ondoren, berriro idazteko deia): «Idazliok!! / Aspaldijon atsedean egiñ dogu, (...). / Erritxubetako izparrak (...). / Geure euzkel-orri oneik zabalik dagoz. Guztijentzat! (Euzk 6938, 1935-3-20).

Idazleei oharrak, ustez I. Enbeita «Uribitarte'tar Ibon»enak

1936

- (Lauaxetaren? «Ibon»en? oharra). Galdakaoko «Basakiña»ri, Lauaxetaren partez *Euzkadiren* irakurleei agur eginez: «Uarra. Bidaldu dozun

Euzko-Idazti-Alde'ko arpide-agiritxuba artu dogu. Lauaxeta egunokaz, beste zeregin batzubetan dabil, oraingo jazokunok gustijuon laguntzea eskatzen dabe-ta. Eskerrikasko ta agur. L.» (Errijetatik: Galdakano «Baskiña», Euzk 7363, 1936-8-1).

- «Matxinada au asi zanetik ona, gure euzkel idazle mattiak mututu-edo egin ixan dira, Mañariko zintzuaren aste-erri-izpar laburrak edo ondo biribildubak baño beste erri-izparrak eztogu artu-ta. / «Artikulu»-antzo idatzi ixan dauskubenak be, askorik eztira.» (Euzk 7371, 1936-8-11). («Euzkel-idazliak», Euzk 7371, 1936-8-11; sinatu gabe).
- Ogoñooperen artikulu baten zolan, hark azaltzen baitu euskal atalaren eta idazleen egoera («Ogoñope», «Bakotxari beria», Euzk 7374, 1936-8-14): «Uarra. Au (Lauaxeta) be matxinada onek beste egin biar garrantzitsubetara eruan dausku. Ikusten dodanian, baña, esango dausat.» (ibid., Euzk 7374, 1936-8-14).
- «Bai, asteroko barri bat urtengo dok txaidera datorren illaren 4»gn. Guda santsube darijola. Ixena be (...) «Gudari». Zuzenbidea: Bidebarrieta 23, 2gn. («Entzun euzkel idazliok!», Euzk 7438, 1936-10-29).
- «Idaz-lan luzetxubak bialtzen dauskuzubez, eta ori dala-ta, (...) idatzi ziatz eta labor, ta asi zeben argazkijok bialtzen, lantzian bat argittaldu daiguzan». «Mai-ganian pilatu yakuzan idazlanak ara zeintzubenak diran: (...) Urkidi, Aixerixa, Biritxiñaga, Andoni, Kaiku, Ixaka, Bake-nai, Ilintxa, Gurtubai'tar Kepa, Iturriaga'tar Pantzeska, Mañariko, Mendigain, Montxor, Kerexeta'tar J., L.M., Aiz-zorrotz, Aitza, Agureak, Goxabaran, Otarmi, Eguzki.» («Idazliei uarra», Euzk 7489, 1936-12-29; izenpetu gabe).

III. EUZKADI EGUNKARIKO EUSKAL IDAZLEAK (1930-1936)

Ondoren, *Euzkadin* beren idazlanak argitara zituzten euskal idazleen zerrenda ezarriko dugu, olerkari eta bertsogileak barne. Gutxienez hiruzpalau idazlan behintzat argitaratu zituztenena baina ez egile ez idazlan guztiena, horretarako bibliografia lan zehatzagoa egin beharko bailitzateke. Idazleok erdaraz argitaratutako idazlanak ere jaso ditugu; ez ordea, erdarazko idazleenak edo ia beti erdaraz baizik idatzi ez zutenenak, nahiz eta euskal gaez izan.

Idazleonek zerrenda egiterakoan, lehenik idazlearen deiturak eta izena ipiniko dogu, ondoren noiz bizi izan zen, gero idazlearen ezizenak. Ondoren idazleari buruzko informazio labor bat eta, azkenik, idazleak *Euzkadin* idatzitako artikulu edo literaturlanak.

- Abando Urrexola, Jon (1885-1946). «Erletxue». Ik. Onaindia EL IV 76. Olerkiak (zehatzago bildu bear lirarteke): Euzk 6804, 1934-9-29; Euzk

7343, 1936-7-9. Prosazko kazetalanak: (Euzkel-Idazti-Alde egitasmoaz): «Entzun ondo!» (Eu 7343, 1936-7-9); «Entzun ondo ta ez aitzu!» (Erletxue, Eu 7346, 1936-7-12).

- Agirre, Eli (1911-1935). «Agarel». Abadiñokoa, 24 urte zituelarik hila, Durangon hobiratua (Euzk 7130, 1935-11-1). Ik. haren heriotzaren ondoren hartaz «Endaitz»ek, «Arteta»k eta bestek idatzia (Euzk 7131, 7132, 7135, 7137).

Artikuluak: (Agarelek Lauaxetari proposatzen dio herrietako toki- (etxe-) izenak, hitzak, esakunak, oguzkera, aditza etab. batzea...) «Geuriari buruz. Euzkel-idazliari» (Euzk 6661, 1934-4-14); «Sarri ta sarrio» (Euzk 6938 1935-3-20); Euzk 6946, 1935-3-29; «Abixenak, toki-ixenak, itxorkunak» saila: Euzk 7020, 1935-6-26; Euzk 7025, 1935-7-2; Euzk 7050, 1935-7-31. Astronomia: «Gaudiziti gaitzaz» (Euzk 6323, 1933-3-14); «Gaudiziti-gayetzaz: Gixona («Lauaxetari bi-jotzez»)» (Euzk 6410, 1933-6-24, prehistoriako kontuak). Artea: «Erti-idazkija» (Euzk 1934-9-11. Egileak frantsesa dakiela ageri da; literaturan sentimenduen eta irudimearen balioa aipatzen du). Euskara: «Euzkerearren. Lauaxetari» («Agarel», Euzk 6797 1934-9-21). «Rondando un verso de Etxepare», *Euzkerea*, ap Euzk 6950, 1935-4-3. Beste: «Txorimaluaren egazkadeak. I Egazkadea» (Euzk 6952, 1935-4-5; «Txorimaloaren Egazkadea» (Euzk 6957, 1935-4-11).

- Agirre Urdalleta, Tomas (Errezil 1898-1982). «Barrensoero». *Gazi-gozoa* (Bilbao, 1933), *Uztaro* (Bilbao, 1937). Artikulu asko idatzi zuen, bai bizkaieraz bai gipuzkeraz. Olerkiak ere bai (ik. Onaindia MEOE 1024). Bizkaiko Aldundiaren Euskara Katedran irakasle ari izan zen.

Ideologia gaiak: «Sabin...? Hitler...? Zeñena da berarizko abertzaletasuna?» (Euzk 6315, 1933-3-4). Politika: «Zergatik jeiki gara «fascio»tarren aurka? (Barrensoero, Euzk 7374, 1936-8-14; bizkaieraz). Euskara: «Nora doakigu euzkera? Batu gaitez euzkeltzaleak» (Barrensoero, Euzk 6741, 1934-7-18); «Zelan gaizkatu euzkerea?» (Barrensoero, Euzk 6748, 1934-7-26); «Euzkeldun-Batzoki bat Bilbao'n» (Barrensoero, Euzk 7002, 1935-6-5); «Noiz arte idazliantzako zartakoak?» (Euzk 7119, 1935-10-19).»Euzkeraren alde barriro be» (Barrensoero, Euzk 7157, 1935-12-3). Beste: «Lana? Zoazte baserrira! Artua-rena» (Euzk 6664, 1934-4-18); «Ara emen sagasti loretan» (Euzk 6669, 1934-4-24). Ik. Euzk 6653; Euzk 6765, 1934-8-15?; Euzk 7360, 1936-7-29; Euzk 7390, 1936-9-2; bizkaieraz. *Uztaro* (Barrensoero, Euzk 7008, 1935-6-12; hor hasten da nobela).

- Agirre, Jose Maria (1896-1933). «Lizardi». Ik. J. M. Lizardi, *Euskera aundiki-soñekoz* (EEE, Klasikoak, 1995, L. Otaegiren edizioko batzuk *Euzkadin* argitaratuak izan ziren). «Aurtengo uda-ikastaldiak» (Euzk 1931-6-19, *Eusko-Ikaskuntzaren Deiatik* hartuta).
- Altuna Aldasoro, Joseba Andoni (Bilbao 1888–1971). «Amilgain», «Azparren». Lauaxetak goratua, harentzat maitagarriena Kirikiñorekin batera

- («Kirikiño», 1932-4-17). Euskararen aldeko langile amorratua. Euskal kazeta eta aldizkarietan idatzi zuen: *Bizkaitarra*, *Euzkadi*... Idazle klasikoak euskaratu eta argitara zituen: Esopo, Grimm, O. Wilde... Euskararen etimologia ikerketak, abizenen jatorria. Bizkaiko Foru Aldundian euskarara irakasle 1936 arte. *Oskar Wilde'ren Ipuñak* (Bilbao, 1927); *Grimm Anayak. Ipuñak* (Bilbao, 1929). Ik. Onaindia *Euskal Literatura* IV 87-.
- Ipuinak: Turkarren ipuñak (Euzk 5655, 1931-1-24; 1931-5-21; 1931-6-6; 1933-2-1); «Mutil tentela» (Euzk 5735, 1931-4-29).
- Anabitarte Irazu, Augustin (Donostia 1891-1981) «Anabi». «Atarrene»? Ik. «Atarrene».
 - Arkotxa Martija, Jose Antonio (1911-1996). «Kirol-zale». Mutrikuko berriemailetarik bat. Antzerkigilea (ik. Onaindia, *Euskal Literatura* VI, 84-86. «Arnope'ren omena dala-ta» (Euzk 6778, 1934-8-30).
 - Arozena Gomendio, Andoni (Lasarte 1907-1989). «A-Bi».
 - Arruza Egia, Mikel (Bilbao 1890-Bilbao 1966) «Garbi Zale», «Garbi Zale Zarra», «Arrugain» «Urratza». (ik. Onaindia EL IV 91-93. *La Gaceta del Norteren euskal atalean idazle*). *Euskeraz ikasteko bide erraza* (Bilbao 1934).
- «Euskalduna, entzun!» (Euzk 7214, 1936-2-7); «Euzkaldunak, entzun!» (Euzk 7218, 1936-2-12).
- Arzelus, Ander (Donostia 1898-Baiona 1949). «Luzeaz». «Labur ta mardul» artikulua (Luzeaz, Euzk 7579, 1937-4-11. «Labur Ta Mardul» haren saila da beste egunkari edo astekari batzuetan.
 - Arruti, Txomin (1897-1968). «Mendi-Lauta». «Madrid» (Euzk 6546, 1933-11-30); «Lizardi oroituaz» (Euzk 6709, 1934-6-10); ik. Euzk 7441, 1936-11-1?).
 - Antonio Arza Llona (Loiu 1899-). «Torkatiko». Bilbo eta Getxoko berriemailea (1931). Ik. Onaindia, *Euskal Literatura* V, 79-80.
 - «Atarrene»: «Aberri'ren omen ondoren» (Euzk 6448, 1933-8-8, Lauaxetaren oharrarekin). Ik. Euzk 6711, 1934-6-12; Euzk 6715, 1934-6-17; Euzk 7250, 1936-3-20.
 - Aurre Apraiz. Ik. Beste ezizendun batzuk: «Age».
 - Azkarraga y Mozo, Jose Maria (Aramaio 1914-1936? 1937). «Lurgorri». Eraila.
 - Azpeitia, Julene (Zumaia 1888-1980). «Arritokieta».
- Euzkotar Umien Aldez saila (1933?, 1934, 1935, 1936); Euzk 6344, 1933-4-7; Euzk 6372, 1933?-V-11; Euzk 7025, 1935-7; Euzk 7218, 1936-2-

12). Emakumeez: «Txekoslovakiako emakumeak» (Euzk 6784, 1934-9-18; Euzk 6801, 1934-9-26); «Norantz goaz emakumeak?» (Euzk 6945/6950/6956/6966, 1935-3-28; 1935-4-3/10/23. Euskara: «Utziko ete diogu euzkerari iltzen? (1935 edo 1936). Itzulpenak: «Muni umearen eriotza» (itzulpena, Euzk 7123, 1935-10-24). 1936ko gerraz: «Ante la guerra» (Juliana Azpeitia de Ezkauriatza, Euzk 7387, 1936-8-29, 1. or.). Ik. idazle hartaz: «Una gesta patriótica: Juliana Azpeitia de Ezkauriatza» (Euzk 6958, 1935-4-12).

- Barriola Aizpurua, Abelin (1885-1944). *Aldiz, aldiz* antzerkiaz ik. Euzk 7160, 1935-12-6?
- Belaustegi, Francisco (1869-1957). «Tabira». Ik. Onaindia, S., *Euskal Literatura* III 133-136. Durangoko berriemaile eta artikulu idazlea. «Euzkera erreza bai...» (Belaustegi jauparija, Euzk 7173, 1935-12-).
- Belaustegi Iturbe, Jon Joseba (1869-1945) «Iparragirren olerki-eresien bilduma ta erti-iritzi laburra» (Euzk 6438, 1933-7-27).
- Belaustegigoitia Landaluze, P(ederika) (1876-1947): «Euzkel-Idazle-Batzarra (?) begira zerbait (Durango, 1933-8-16; Euzk 6497, 1933-10-4).
- Bustintza, Errose (Mañari 1989-1953). «Mañariko». Kirikiñoren iloba. Bere herriko berriak, bertso eta koplak zaharrak bildu zituen, eta batez ere ipuin ugari. Idazle jarraiki eta hoberenetarik bat. Ipuinak: «Lamiñaren ostikadea» (Euzk 6378, 1933-5-18). Otsua ta axerija «Mañarikua» (Euzk 6415, 1933-6-30). «Orratzontziko sorgiñak» (Euzk 7117, 1935-10-17). «Norbera ondiaz bestia ondu» (Mañariko, Euzk 7122, 1935-10-23). «Euzko-erri jakintza» (Euzk 7213, 1936-2-6).
- Bustintza, Paulin. Kirikiñoren anaia, *Euzkadin* idazlea, Almansazko erretorea. Ik. haren hilberria: «Bustintza'tar Paulin» (G.B.)), Egunekua, Eu. 5680, 1931-2-22). Ezezaguna, inongo literatura eta bibliografiatan (?) ageri ez dena.
- Dassance, Louis (Uztaritze 1888-1976): «Esneatzaz» (Euzk 6770, 1934-8-20?).
- Eizagirre, Joseba (1881-2-1949): «Eizagirre'tar Joseba jaunaren itzaldija» (Euzk 7463, 1936-11-27; 1. or.; gipuzkeraz).
- Eizmendi Manterola, Iñaki (Errezil 1913-Zarautz 1999). «Basarri». Zarauzko berriak; iritzi-artikuluak, bertsoak. Hitz-lauz: «Igandez. V. Oleriti-Eguna (Euzk 6706, 1934-6-7?). «Zizka-mizka» sail modukoa: Euzk 6779, 1934-9-13; «Alderdi ederra zeukagu!» (Euzk 6805, 1934-9-30).
- Elizalde, Jean (1883-1961). «Haur Prodigoa». Zortzitik Zortzirat sailean Iparraldeko berriak astero edo hamabostean behin gutxienez eman zituen (1931-1935).

– Enbeita Erreterria, Imanol (Manu) (1884-1946) «Uribitarte'tar Ibon», «Garbi-nai», «Enbeita'tar Imanol». *Euzkadi* egunkariko euskal kazetari profesionala, Kirikiñoren bulegoan idazten zuena. Gero, *Egunakoa*. Artibaik, hari buruzko artikulua batean, dio, I. Enbeitak *Bizkaitarran* aстерo idazten duela; «zeure esanak, ain egokijak» direla; gogoz irakurtzen duela Enbeita; guda egiten diotela (Errijetatik: Bilbo «Artibai», Euzk 5686, 1931-3-1). Euzkeltzale-Bazkunakoa (Euzk 5691, 1931-3-7). Olerkiak ere idatzi zituen. *Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian* (Artea, Bizkaia) bada haren olerki-koaderno bat.

Egunekua (1931-1935) eta Gayak (1935-1936) sailak betetzen zituen, egunero (astelehenetan izan ezik). Beste: «Umezurtzak» (Euzk 7107, 1935-10-?). Teatroa: ik. Euzk 7114, 1935-10-13.

– Enbeita Erreterria, Kepa (1878-1942): bertsoak, olerkiak. Euzk 7050, 1935-7-31 azken orrialdea, osoa.

– Erkiaga Alastra, Eusebio (Lekeitio 1912-1993). «Endaitz», «E'tar E». Lekeitioko berriemaile, idazle eta olerkari *Euzkadin*. Idazlan ugari *Euzkadi* eta *Euzkon*.

Euzkadi-n argitaratuak: «Euzkerea, esituta» (Euzk 6572, 1933-12-30); «V. Euzko-Olerti» (Euzk 6708, 1934-6-9?); «Euzkerea, euzkoen elia» (Erkiaga'tar Eusebi'k, Euzk 6700, 1934-5-31); «Ene azken negarrak: Eztalakuan, baidalakuan» (Endaitz, Euzk 6707, 1934-6-8?); «Larrinagako espetxean abertzaleak» (Endaitz, Euzk 6712, 1934-6-13); Euzk 6754, 1934-8-2; «Lekeitio!» (Euzk 6765, 1934-8-15?); «Euzkel-idazliak erdaltzale (¿)» (Endaitz, Euzk 6788, 1934-9-11); «Asarre barik. Etxekua'ri» (Endaitz, Euzk 6782, 1934-9-15. «Agarel zanari» (Euzk 7131, 1935-11-2). Olerkiak: «Ikastolara, mutiko» (Erkiaga'tar Eusebi, Euzk 6942, 1935-3-24); «Neska zuntzuna» (Endaitz, Euzk 6949, 1935-4-2).

– Etxezarraga Artiñano, Bizente (Zeanuri 1890? (N. de Cortazar), 1891 (Onaindia)–1968). «Zidorra». «asiduo colaborador de *Jaungoiko Zale, Euzkadi, Arratia'ko Deia*» (N. de Cortazar, *Cien autores vascos*, 1966). Ik. Onaindia *Euskal Literatura* IV 104-.

– Gabilondo, Jule. «Maite». Mungiakoa, Beasainen bizi. Emakume Abertzale Batzakoa. Hizlaria ere bai. *Euzkadin* idatzi zuen, gero *Egunan*, kolaboratzaile ordaindua izanik. «(...) escritora euzkerica que ha popularizado en la página de euzkera del periódico *Euzkadi* el pseudónimo de «Maite» señorita Gabilondo, cuyos trabajos se leen con tanta complacencia por todos los abertzales, y aun por muchos que, no siéndolo, gozan con su lectura» (Euzk 7121, 1935-10-22). Hizlari Galdakaon, 1935ean «la señorita G.» «habló en euzk.»; «como oradora nos causó mejor impresión» (Euzk 7127, 1935-10-29). Gerra garaian sarri idatzi zuen. Aurretik ere, *Euskal-Esnalean* (1931).

«Euzkotarra...entzun adi» (Maite, Euzk 7375, 1936-8-15); «Elburubaren indarra» (Maite, Euzk 7386, 1936-8-28). ik. Euzk 7387, 1936-8-29; Euzk 7479, 1936-12-16.

– Garate, Jose Maria. Bilbokoa; Euzko-Gastedijakoa, Lauaxeta bezala; BBBkoa Errepublika garaian hainbat urtetan. Idazlan ugari argitara zituen *Euzkadin*, bai kazetalan, bai olerki eta bertso. Euzko Gudariak-en egilea, ustez eta berak dioenez. Ez bedi nahas Aita J.M. Garate Markinakoarekin, Karmeldar Ordenakoarekin (1874-1948). Onaindiaren arabera 1860an jaioa (?), ik. Jose Maria Garate Gallastegi, *Euskal Literatura* V, 19-20).

Ohitura-idazlanak: «Sasi-koipetsu» (Euzk 6472, 1933-9-5). Ik. Euzk 6475, 1933-9-8; 6498, 1933-10-5; 6530, 1933-11-11; 6559, 1933-12-15). «“Erletxue”ri» (Euzk 6801, 1934-9-26). Olerkiak: Olerki-salla, Euzk 7171, 1935-12-.

– Garmendia Kortadi, Jon (Lasarte 1898-1989) «Zeleta» (gipuzkeraz idaztean), «Jeltzale» (bizkaieraz idaztean), «Gatarjon»?

Politika: «Euzko-Araudia» (Euzk 6511, 1933-10-20); «Bakarrik, danen aurka» (Euzk 6534, 1933-11-16); «Ilgandeko gurendea» (Jeltzale, Euzk 6544, 1933-11-28); «Atzerri-ziar» (Euzk 6560, 1933-12-16); «Sozialistak» (Euzk 6759, 1934-8-8). Euskara eta abertzaletasuna: «Euzkera’ganako zaletasuna (Iruhar idazliarentzat)» (Euzk 6675, 1934-5-1); «“Euzkadi”ren artezkari alde» (Jeltzale, Euzk 6803, 1934-9-28; Pantaleón Olano zuzendariari urrezko euzko-idazkortza emateko); «Abertzaletasuna, euzkeraren eraingija» (Euzk 6943, 1935-4-26). «Abertzaletasuna Baztan’en» (Jeltzale, Euzk 7210, 1936-2-2). «Arana-sendiaren edestija» (Jeltzale, Euzk 7250, 1936-3-20). Ik. Euzk 6384, Euzk 6651, 1934-4-3; 6658, 1934-4-11; «Farangortea» (Euzk 7215, 7220, 1936-2-8/14). Ideologia: «Karlisten jainkotasun eta euzkotasuna» (Gatarjon, Euzk 6414, 1933-6-29); «Karlatarrak eta fueruak» (Gatarjon, Euzk 6415, 1933-6-30); «Zuzentza, azkatasuna, askaldartasuna» (Gatarjon, Euzk 6443, 1933-8-2).

– Garro Basterretxea, Bernardo Maria (Mundaka 1891–Bilbao 1960). «Otxolua». Ipuin eta kontakizunak; teatroa; zientzia dibulgazioko idazlanak.

Ipuinak: Barbier-en ipuinak: *Ipuin-mipuinak* (Euzk 6403, 1933-6-16), «Eskualdunak Egyptoan» (Euzk 6568, 1933-12-26); «Ixtorio-mixterio» (Euzk 6657, 1934-4-10); «J. Barbier. Lau ipuin Axularretzaz» (Euzk 6663, 1934-4-17); id. Euzk 6667, 1934-4-21). «Kauserak, kruxpetak» (Euzk 1935-10-?). Teatroa: *Maluriñe’ren kapoiak*, L. Léon hazpandarraren antzerkilanaren itzulpena «Bizkaiko euzkera errezero» (I, Euzk 6535, 1933-11-17; II; III, Euzk 6540, 1933-11-23); *Saña* (Euzk 6967, 1935-4-24; Euzk 6972, 1935-4-30); *Kurutze ginda dagon lekuan* (itzulp) (Euzk 7008, 1935-6-12).

Ingeleseko poeten itzulpenak: W. Blake (Euzk 6436, 1933-7-25), Katherine Tynan-en «Patrike Deuna Auge uxaketan» (Euzk 6441, 1933-7-30, ingelesetik) etab. (Euzk 6521, 1933-11-1). Chesterton-en *Astoa* (Euzk 6563, 1933-12-20); C. Ballack-en itzulpena (Euzk 6569, 1933-12-27); poesia itzulia, ingelesetik (Euzk 6653, 1934-4-5). Ingeleseko prosa-irakurgaien itzulpenak: «Aberre dontsuak» (Euzk 7212, 1936-2-5).

Pizti-Patariak saila, asteazkenero (1934-1936, adib. Euzk 7382, 1936-8-23). Ik. Euzk 6740, 1934-7-17; Euzk 6747 6774, 6777. «Satorra» (Euzk 7392, 1936-9-4). «Aberre dontsuak» (Euzk 1936). Beste gai batzuk: *Euskara*: «Euzkereari buruz» (Euzk 7000, 1935-6-2); «Euzkerearen arerioak» (Euzk 7021, 1935-6-27). Beste: «Bigarren gaua» (Euzk 7224, 1936-2-19).

– Gorostiaga Etxebarria, Eulogio (1904-1932). «Gizartizti-gayak» (Euzk 1931-5-1).

– Gurtubai, Kepa. «Ilintxa», «Ilitxa». Legazpiko berriemailea (Euzk 7362, 1936-7-31; aipatua da berriemaile edo idazleen zerrendan 1936 bukarran, Euzk 7489, 1936-12-29). «Su-zirik. Etxeruntz begira...» (Ilintxa, Euzk 1936-7-1). Olerkia (Euzk 6524, 1933-11-4). Hizlaria ere bazen?

– «Iramendi» (Lazkaoko berriemailea; olerkaria).

– Insausti Urkirizar, Jesus (1912-1993). «Uzturre». *Euzko Langille* asteroan ere idazten zuen gerra garaian (Euzk 7453, 1936-11-15). Gero, *Egunan* kolaboratzaile ordaindua (1937).

«Lizardi'ri» (Euzk 6485, 1933-9-20). Beste: Euzk 6550, 1933-12-5. «Naskaldia» (Uzturre, Euzk 7407, 1936-9-22).

– Irigarai, Pablo Fermin (1869-1949). «Larreko».

Euzk 5637, 1931-1-3; Euzk 5652, 1931-1-21; Euzk 5654, 1931-1-23, Orixeren ohar batekin; Euzk 5660, 1931-1-30 «Orixeri»; Euzk 6300, 1933-2-15. «Orai-aldi ontako nor-ederragoka»z, Euzk 6303, 1933-2-18. Lizardiz, haren heriotzaren ondoren (Euzk 6330, 1933-3-22). Euskara: «Euskaraz ala erdaraz?» (Larreko, Euzk 6675, 1934-5-1; «Eztabaidak xuritzen edo naasten» (Euzk 6704, 1934-6-5). «Saraizuar, euzkalduna, agur» (Larreko, Euzk 6725, 1934-6-). «Euskera garbia» zer da? (Larreko, Euzk 7108, 1935-10-7?, I. Enbeitaren oharra). «Pro Euzkera» (Euzk 7250, 1936-3-20). «Nafarroa'tik» (Larreko, Euzk 6782, 1934-9-15); «Itz sakonak» (Larreko, Euzk 6804, 1934-9-29); Errijetatik: Nafarroa'tik (Larreko, Euzk 6784, 1934-9-18). Naparroa (Larreko, Euzk 7007, 1935-6-11; 7080, 1935-9-4).

– Irigarai Irigarai, Aingeru (Bera 1899–1983). «Irular». «Euzkerea ta abertzaleak», Euzk 6343, 1933-4-6). Larrekoren semea, sendagilea. «Andoni Labayen: Nere adizkide maitea,...» (Euzk 6497, 1933-10-4).

- Ituarte, Jose Maria «Artibai». Ondarroako berriemailea. Sevilla gobernadoreak salatua «Boikota» artikuluatik (Uribitarte'tar I., Egunekua, Euzk 6460, 1933-8-22), hark «Eskerrak zuri, Sevilla», erantzun zion (Euzk 6461, 1933-8-23). «Omena "Arnope"ri» (Euzk 6 (Euzk 7123, 1935-10-24)774-8-25); «La euskerización de Bilbao: Alegiña ta laguntza» (Artibai, Euzk 7010, 1935-6-14). «Antzezkiunak» (Euzk 7123, 1935-10-24); «Guda-otsak» (Artibai, Euzk 7390, 1936-9-2). Bertsokak edo olerkiak.
- Jakakortexarena, Txomin (Berastegi 1906-): Euzk 6750, 1934-7-28, Nafarratetik. *Ziri-bertsokak* argitara zuen (1935, Donostia).
- Jauregi, Luis (Koldo) (1896-1971). «Jautarkol». «Lizardi'ren *Itz-lauz dela-ta*» (Euzk 6695, 1934-5-25); «Apaizak euskeraren alde» (Euzk 7119, 1935-10-19; *El Día*-tik). Olerkiak: «Maiteño bat ba'nun», Euzk 6466, 1933-8-29; olerkia, Getxon Euskeraren Egunean saritua).
- Jemein Lanbarri, K. (Bilbao 1885-Bilbao 1965). «Jadarka», «Amandarro». *Las bellezas de Aralar* (1933), *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin* (1935), *Historia gráfica del nacionalismo* (Bilbao, 1935). Temak Vascoak sailean zenbait lan (1931). Ik. Errijetatik: Mañari (Euzk 5694, 1931-3-11).Ik. Euzk 6546, 1933-11-30, 1. or.; Euzk 5694, 1931-3-11. Ik. ere Temak Vascoak sailaz aritzean.
- Labayen Toledo, Antonio Maria (Tolosa 1898-1994). «Aspaldiko», «Ibalan», «Etxekorena», «Matxingorri», «L. Ayanbe». Artikuluak: «Lizardi'tar X.» (Euzk 6504, 1933-10-12); «Jakingarriak» (Matxingorri, Euzk 6699, 1934-5-30; teatroaz); «Antzerti» (Matxingorri, Euzk 6754, 1934-8-2); «Zarautz'ek Lizardi'ri: Umezurtz-olerrkiak» (L. Ayanbe, Euzk 6704, 1934-6-5). (Labaienen antzerkilanen argitalpen edo berriak: *Euskal Eguna* (1931?); *Berbizkundera* (Euzk 6767, 1934-8-17).
- Lafitte Ithurralde, Pierre (1901-1985). «P.L.» (Pierre Lafitte?): «Liburu-berri» (P.L., Euzk 1934-8-11; *Amattoren uztaz*).
- Larrakoetxea Agirrezabala, Alejandro (Hipólito, erlijio izenez) (Zeanuri 1892-1976). «Legoaldi». *Grimm anaien berrogeta hamar ume ipuin* (1929; lehenago, aldizkarietan zatika).
- Larrakoetxea Agirrezabala, Bedita (Zeanuri 1894-1990). Shakespearearen itzultzailea. Erlijio gaiak: «Santuen bizitzia: S. Antonio Padeva» (Euzk 6946, 1935-3-29). Ipuinak: «Artzayen maltzurkeriak» (Euzk 6717, 1934-6-20).
- Linazasoro Maiztegi, Karlos (1899-1965). «Altzeta». Zumarragakoa. «Euzkeraren malkoak» (Altzeta, Euzk 7163, 1935-12-10).

- «Lotsati» (olerkaria): Euzk 7110, 1935-10-9; Euzk 7124, 1935-10-25; Euzk 7159, 1935-12-5; Euzk 7165, 1935-12-12; Euzk 7171, 1935-12; Euzk 7236, 1936-3-4; W. Blakeren itzulpenak etab.
 - Manterola Urigoitia, Gabirel (Zeanuri 1890-1977): «Mitarga», «Gama», «G» «Urigoitia», «Gabirel». *Jaungoiko-Zale* aldizkarian eta *Ekin* asteroan idatzi zuen. (N. de Cortazarren (N. Alzola Gerediaga) arabera, *Jaungoiko-Zalen* 1931 arte, agerraldi bakoitzean zenbait artikulua, eta halaberean *Ekinen* lau bat artikulua agerraldi bakoitzean (*Cien autores vascos*). *Euzkadin* baino lehenago: *Santuen bizitza laburra* (1922); *Itzaldiak* (1922); Schmid-en *Iputxoak* (Amorebieta 1929).
- Katoliko bizitza* (Euzk 1931-6-7). Ik. ere Euzk 6742, 1934-7-18?
- Markiegi Olazabal, Peli (1905-1946). «Lizardiren omenez» (Euzk 6325, 1933-3-16).
 - Moulrier, Jean (1888-1958). «Oxobi»: «Eskualdunaren lerruak» (Euzk 6555, 1933-12-10; abertzaleen garaipenaz).
 - Mujika Egaña, Errobestiana (Deba 1888-1981). «Tene». *Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak* liburua (Zornotza, 1923). «Gizasemeen lagunak» (Euzk 5757, 1931-5-27), «Gazigozoak» (Euzk 6365, 1933-5-3); «Itziar'ko gure eguna» (Euzk 7118, 1935-10-18)..
 - Muniategi Astoreka, Sabin (1912-). *Goiz-aize* olerki liburua argitaratu zuen (1935-1936 (J. Bilbao), Lauaxetaren hitzaurrearekin. *Euzkadin*: Prosaz: «Garcia Lorca olerkaria» (Muniategi'tar Sabin, Euzk 7408, 1936-9-23?; Garcia Lorcaren «Egia da» eta «Zaldikariarena» olerkien itzulpena. «Lauaxeta gure gaur-eguneko gorengo olerkariak be, dakidanez iru-lau olerkitxu euzkeratu dauz, Garcia Lorca aundiarenak.»). Olerkiak: Euzk 7387, 1936-8-29; «Narkis» (Euzk 7446, 1936-11-7; Lauaxetaren irudi eginez). Kanpoko poeten itzulpenak: Altolaguirrerena, Euzk 7388, 1936-8-30; Andre Adyrena, Euzk 7390, 1936-9-2; Garcia Lorcarenak, haren eraiketa kari, Euzk 7408, hor esaten da Lauaxetatek ere itzuli zituela Garcia Lorcaren batzuk: «Lauaxeta gure gaur-eguneko gorengo olerkariak be, dakidanez, iru-lau olerki euzkeratu dauz» (Oharra: ik. *Karmel* 250, 2005-2, apiril-ekain, J.U «F. Garcia Lorcaren hiru olerki, Lauaxetatek euzkeratuak», 82-87).
 - Ormaetxea Pellejero, Nikolas (1888-1961). «Orixe». Kazetalanak euskaraz eta erdaraz. «El nuevo testamento en euskera» (Euzk 1931-6-23, 1. or.). «*El Díako* Urliari naiz Sandiari» (Euzk 6657, 1934-4-10). Olerkiak.
 - Otamendi: Loramendiz, Euzk 6658, 1934-4-11.

- Peña, Josu. «Aitza». Eraila. «Euzko-Araudia» (Euzk 6522, 1933-11-2). Beste: ik. Euzk 6542, 1933-11-25.
- Renteria Leniz, Gorgonio «Perularra». Euzk 6742, 1934-7-18?; «La euskerización de Bilbao. Iturrira» (Perularra, Euzk 7004, 1935-6-7). (Elantxobe 1868-Baiona 1940).
- Ruiz de Azua, Andoni. «Ogoñope». Elantxobetar idazle eta esataria. Akordako berri-emailea eta euskal idazlea *Euzkadin*. Gerra garaian *Egunan* proba zuzentzaile eta gero *Euzkadi* egunkarian Bartzelonan (1938) euskarazko erredaktore izan zen. Irrati elestaria, bai Bilbon, eta bai gero Bartzelonan (ik. J. Agirre eta A. Iralari gutunak, bere zerbitzuengatik indemnizazio eske, Euskal Abertzaletasunaren Artxiboan, Artea, Bizkaia). *Ekinen* ere idatzi zuen. Ipuñiak eta izkirimirijak argitaratu zuen (Bilbao, 1936).

Artikuluak: Euzk 6742, 1934-7-18?; Euzk 6756, 1934-8-4; Euzk 6761, 1934-8-10; Euzk 6769, 1934-8-19?; «Omena ta batzarra» (Euzk 6781, 1934-9-2); «Euzkel-orrijari begira», Euzk 6956, 1935-4-10; «Bidegarro ta zozua» (Ogoñope, Euzk 7129, 1935-10-31; natur-zientzia gaiak); «Entzun ba! Entzun!» (Ogoñope, Euzk 7349, 1936-7-16; Euzko-Idazti-Aldez egitasmoaz). «Bakotxari beria» (Ogoñope, Euzk 7374, 1936-8-14; Euzkadi-ko euskal idazleen egoera gerra hasieran). «Emakume joereak eta Euzko-Emakumiak».

- Sagarzazu, Klaudio (Hondarribia 1895–1971). «Satarka». *Txinpartak* olerki liburua (Donostia: 1922): olerkiak: Olerki-salla, Euzk 7165, 1935-12-12; «Arrantzale gaxua» (Olerki-salla, Euzk 7171, 1935-12-); «Maitasun-garra» (Satarka, Euzk 7355, 1936-7-23).
- Saint-Pierre, Jean (1884-1951). «Anxuberro». Ik. Euzk 5735, 1931-4-29; Euzk 5745, 1931-5-13.
- Soubelet, Domingo (1897-1970) (D.S). «Urthe Muga» (Euzk 1936-3-6).
- Tapia-Perurena, Alexander (1899-1957). «Iruña'tar Alexander». «Sagar loretsuak» (Euzk 6404, 1933-6-17).
- Uriarte Odriozola, Martin (1879-1960). «Martiartu», «Barazar», «M.U.», «A. Martin». «Baserri gaiak». (ik. Onaindia *Euskal Literatura* IV 43-).
- Urkiaga Basaraz, Esteban (1905-1937). «Lauaxeta». Artikulu eta idazlan ugari idatzi zituen *Euzkadi* eta bestetan. Hemen antzerkianak baik ez ditugu zerrendatuko: *Asarre-aldija* (Euzk 1931-5-29/30/31; *Epa-ya* (Euzk 1932-2-25/26); *Balbia* (Euzk 1932-12-15/23); *Iru gudari* (Euzk 1933-1-26, 1933-2-15).
- Yurre, Julen (Igorre 1898-1988), A. O. M. «Txinarren biziera» I) (Euzk 6437, 1933-7-26).

- Zaitegi Plazaola, Jokin (1906-1979). «Udalaizpe». «Victor Hugo» (Euzk 6511, 1933-10-20); «Horatius ene begietan» (Euzk 6528, 1933-11-9); Euzk 6529, 1933-11-10.
- Zabala-Arana, Jose (1894-1936). «Nabarriztarra», «Otzategitxu'tar Jon»? («(...) Zugasti (Altza), ta Ixilik, Otzategitxu'tar Jon (Santander)», Euzk 6444, 1933-8-3). Umeentzako eskuliburuak (*Josutxu, Zenbakizti-ja*, ik. AB 191 etab.), «Hamaika gabetako ipuñak»-en itzulpena (Euzk 7373, 1936-8-13).
- Zatarain, Ambrosio (1881-1966). «Itaun-erantzunak» (Euzk 6949, 1935-4-2).
- Ziarsolo Gironella, Manuel (Bilbao 1902-1987). «Abeletxe». *Euzko asterokoaren* (1932-1934) artezkari eta idazle (Astekua saila, Euzk 6447, 1933-8-6). *Euzkon* atera zuen bere Gazi-Gezak saila. 1937an zenbait artikulu argitara zituen *Euzkadin* lehen orrian. Gerra ostean *Euzko-Deyan* idazten du; 1946an Venezuelan da. «Gazi-gezak» (Euzk 6730, 1934-7-5?; Euzk 6755, 1934-8-3; Euzk 7114, 1935-10-13). Artikuluak: «Ixil-une ostian» (Euzk 6940, 1935-3-22); «Urte-barri» (Abeletxe, Euzk 7492, 1937-1-1; 1. or.); «Onian ezin ba da...» (Abeletxe, Euzk 7492, 1937-1-2; 1. or.).
- Zubikarai Bedaialauneta, Augustin (Ondarroa 1914-2004). «Arteta», «Augustin». 1935ean Omenaldia egin zioten («Arteta = zutik», Euzk 7141, 1935-11-14), Euzk 7160, 1935-12-6?).

Artikulu ugari idatzi zituen: «Elburuarren» (Euzk 6759, 1934-8-8); «Euzkel gaiz. Idazki idegija. Endaitz'eri» (Arteta, Euzk 6781, 1934-9-14; «Endaitz» eta «Etxekua»ren arteko 1934ko polemikan «Endaitz»en alde ateratzen da). «Euzkera-osasun alde. Etxekua'ri» (Euzk 6784, 1934-9-18). «Gudarik ez!» (Arteta, Euzk 6957, 1935-4-11). «Oldozpenak» (Euzk 7119, 1935-10-19). «J.O.C.» (Arteta, Euzk 7129, 1935-10-31). «Agarel» (Euzk 7137, 1935-11-4). 1936 martxoan erdiko artikulua idazten du (Euzk 7245, 1936-3-15), «Euzko-demokrazia» (Arteta, 1936-3-31).

Antzerkiak: *Aberrijagaz bizi* (I, Euzk 6771, 1934-8-22; II, Euzk 6772, 1934-8-23; III, Euzk 6773, 1934-8-24?); *Illobearen indarra. Ekintza bateko antzekiñua* (Arteta, Euzk 6795/6/7, 1934-9-19/20/21.); *Itxas-lapurrak* (Arteta, Euzk 7375/7382, 1936-8-15/23).

- Zubiri Gortadi, Enrike (1867-1948). «Manezaundi». «Iruñeko itzulia. Benabarre'ko eskuaraz» (Euzk 7003, 1935-6-6).

* * *

Beste ezizendun batzuk. Ondoko hauek nor diren ez dakigu:

«Abaraska». Orioko berriemaile eta iritzi-artikulu egilea.

«Arriola». «Euzkera esituta» (Euzk 6569, 1933-12-27). Zubikarai?

«Aga». «Oldoztuten» (Euzk 6528, 1933-11-9; sabindar eskolako adizkiak darabiltza («egin ixan biar baleugu eleuguzan irabaziko»).

«Age». «Etxe zorijontsuba» (Euzk 6787, 1934-9-9; ipuina); Balendin Aurre Apraiz dateke (Axangiz 1912-1966, «Agerre'ko Balendin», «Agerrekoa», «Aurraitz», «Mendi-Bide»).

«Aiko Zera». «Aurretik guaz baserritarrak» (Euzk 1934-9-11). Lauaxeta bera ote? Garai horretan gai politikoei buruzkorik ez du izenpetzen, bai agian idazten. *Aiko zera!* Lauaxeta sortu zen herri inguruko adierazpide bat da.

«Basati». «E'nazazula berotu» (Basati, Euzk 7117, 1935-10-17); «E'naiz berotu» (Euzk 7127, 1935-10-29); «Batasuna edo esperantua?» (Euzk 7129, 1935-10-31). Agirre «Barrenoro» ote? Ik. «Latsur».

«Belostikalekoa». Euzko-Idazti-Aldez kanpainan: «Entzun...? Bai zera!» (Belostikalekoa, Euzk 7345, 1936-7-11).

«Entzule». Euzk 6785, 1934-9-7 «Jakingarriak» saila (berriak, «Jakingarrienak» sailekoak baino luzetxoagoak, teatroaz etab. Agerraldi horretan beste atal bat dago, «Matxingorri»k (A.M. Labaien) izenpetua, eta gero beste batzuk, izenpetu gabe. «Entzule» eta «Matxingorri» egile bera, hots, Labaien? «Entzule» Lauaxeta da? Besteren bat?

«Etxekua». Endaitz eta Artetaren kontra, euskal joskerako hutsak direla-eta (Euzk 6779, 1934-9-13). «Samintasunaren gomutarriak» (Euzk 6544, 1933-11-28; «Tierra Vasca begiko ta anaikorra arretaz irakurten dogu burutik oñatzetara». L. bera ote?). «Nora guaz? Euzkel-idazlien alde» (Etxekua, Euzk 6779, 1934-9-13); «Euzkel idazlien alde» (Etxekua, Euzk 6782, 1934-9-15; «Euzkel-Idazlien alde» (Etxekua, Eu 6804, 1934-9-29; herrietako berriemai-leen alde; zerbait egin nahi du).

«Euskeltzale» (Euzkeltzale?): «Asi ezker, gauzak zuzen!» (Euzk 6654, 1934-4-6).

«Ibai-Gane». Foruko berriemailea eta idazlea; emakumea? Jagi-jagikoa, dirudienez 1934ko zatiketaz geroztik ere (?) baina *Euzkadin* idazten jarraitzen duena.

Gizarte- eta baserri-gaiak (horietako asko euzkel ataletik kanpo, beste orrialderen batean argitaratuak). «Lugiñak eta Alkartasuna» (Euzk 6948, 1935-3-31); «Basetxe-etxaguntzea» (Ibai-Gane', Euzk 7012 1935-6-16); «Gixatekerija ta lugintzea» (Ibai-Gane, Euzk 7018 1935-6-23); «Lugintzea ta Laguntzatasuna» (Euzk 7024, 1936-6-30); «Lugintza-Laguntzea» (Euzk 6954, 1935-4-7). Idazleak eta euskara: «Idazle-Batzarra» (Euzk 6798, 1934-9-22; vs Arteta); «Euzkera-aldez» (Euzk 6805, 1934-9-30). Beste: Euzk 7156, 1935-12-2?; «Eldu-gara» (Euzk 7174, 1935-12-22).

«Ikasle». Arrasateko berriemailea (Euzk 7004, 1935-6-7; Lauaxetaren lan-gun arrasatearra ote?

«Ikusle». «Durangoko antzerki-jaya» (Ikusle, Euzk 6945, 1935-3-28).

«Imitxa», «Ziri-miri» sailaren idazlea, adib. Euzk 6662, 1934-4-15. Euzk 6669, 1934-4-24; Euzk 6674, 1934-4-29. A. Zubikarai ote? *Aberrin* ere (Jagi-Jagiren zatiketa ondoren) idazten du «Imitxa» horrek (1934 abuztu bukaeran, Euzk 6779, 1934-9-1; Euzk 6782, 1934-9-15).

«Kaialde»: «Erri-izkerari buruz» (Euzk 7115, 1935-10-13).

«Kutuntxu». Erdaraz idazten du, 1. or., euskal kultura/literaturako gaiez. Lauaxeta ezagutzen bide zuen. «Renacimiento euzkérico» (Euzk 7110, 1935-10-9): «Lauaxeta, el poeta de la imaginación exuberante, que ha pretendido felizmente elevar al euzkera a los derroteros por los que discurren los literatos modernos creando su «Arrats-beran», encantador librito de ingeniosas letrillas que agradan por su ligereza y sencillez; (...)» (ibid.). «Teatro euzkel-dun» (Euzk 7121, 1935-10-22, 1. or.). «Teatro euzkeriko» (Euzk 7164, 1935-12-11, 1. or?).

«Larrabide». Euzk 5645, 1931-1-13; Euzk 5672, 1931-2-13, ikasleez; Euzk 5678, 1931-2-20 «Gure idazleak»: Orixez etab.

«Latsur». «Ez berotu, otoi...» (Latsur, Euzk 7121, 1935-10-22; Barren-sorori erantzuna). «Ez zakit, arren, berotu...» (Euzk 7124, 1935-10-25). Ik. «Basati».

«Latsur» hori Debako Markiegitarren bat ote? Feli edo Peli Markiegi olerkari eta antzerki idazlea? Ik. «Poeta ahaztua gogoan. Peli Markiegi omen-duko dute Deban, haren antzezlanekin eta liburu batekin», *Berria* 05-9-23, 45. or.; *Latsurregitarrak* liburuaren iragarpena. F. Markiegi *Seme ondatzailea* argitara zuen (Antzerti, 1936, 1935ean saritua ap Labayen *Teatro Euskaro* II 173; J. Markiegi ere antzerki idazlea zen: P. Humpert-en *Todes Heg* itzuli zuen: *Eriotz-bide* (Antzerti 1935), baita H. Gehon-en *La farce du Pont du Diable*, *Txerren zubiko gertaria* (Yakintza 1934), ap Labayen ibid. Ik. erreseina Lauaxetaren kultura- eta liburu-erreseinetan).

«Malko». «Bakar-izketa itxuraz» (Euzk 7175, 1935-12-24).

«Mikelats». «Jolasak» (Mikelats, Euzk 7226, 1936-2-21); «Balizko oleak burdiñik ez» (Mikelats, Euzk 7233, 1936-2-29); «Udalak» (Euzk 7230, 1936-2-26). «Mari'ren semeak» (Euzk 7250, 1936-3-20). *Ekinen* ere idazten omen zuen.

«Ni». Euzk 7170, 1935-12.

«Norbait». «Ezagutu zazu Euzkadi» (Norbait' (III), Euzk 6970, 1935-4-27).

«Okertzale». «Janduba ala malluskauba?» (Okertzale, Euzk 7119, 1935-10-19).

«Ormaetxe». «Baserritar bikaña» «Ormaetxe» (Euzk 6766, 1934-8-16).

«Urtzago». Paristik idazten duen idazlea («Euzkeldunak Paris'en», Euzk 6556, 1933-12-12); ik. ere Euzk 7126, 1935-10-27.

«Urtzaga». «Euzkera, jalgi adi dantzara» (Urtzaga, Euzk 6958, 1935-4-12).

«Zaizuri» (F. Irigarai?, A. Irigarai?). «Aberearen arima ezta gogozkoa» (Euzk 6434, 1933-7-22)

Gehigarriak

1. Hona 1933ko uztailaren 30ean «Aberri» herri-berriemailearen omenaldira joandakoen izenak:

«Beste lan batzuk arazopetuta ibili nintzan onek, enebazan orok artu, baña tira geyenak emen ixango dira.

Aiztuta geratzen danak, azketsi begist: Mendi Lauta, Otxolua, Aberri, Ikur, Atarrene, Altzeta, Otarra, Anastaxio, Atxuri, Zonzezke, Zebain, Aingeru, Goikolako, Izparkari, A-Bi, M.'dar G., Leb'tarra, Andoni, Biriatu, Aloña, Basarri, Txaranbel, Euskal-irratsaioko pianista, Muru mendi, Alberdi, Ixaka, Miren'en alaba bat, Mokoroa, Mujika, Itziartxo, Lizarregi, Ayanbe, Arantza, Maitxo, Intza, Zorrospede, Txori Erreka, Intxirri, Jo ta ausi, Txirri, Aritzeta, Uzturre, Larraitz, Zimitz, Ylande, Arantxa, Armoya, Arkaitz arte, Txiki alai, Dris dras, Zaiaitza, Goxo-goxo, Lakatza, Kaiku, Aixerixa, Gotrole, Litargi, Udala mendi, Larreategi, Azpitarte, Garate, Kardantxillo, Errotari, Gogorra, Egi alde, Belaustegigoitia, Barrenso, Artibai, Abertzale, Oraitz, Agarel, Abeletxe, Basatxori bat, Jexuxa, Ira, Basanaitz, J. Elgea, Mañari'ko, Tene, Burni bide, Xapi, Murugain, Endoya, Burni bide, Gurutz ondo, Arno-mendi, Andoni ta Lauaxeta.

Urrun ziranak be alkartu ziran urrutidatzi bidez. Soñez etziran aragiño eldu baña bijotzez bai. «Luzear»en itzari gagoz: Ogeta amazortzi urrutidatz etorri ei-ziran. Nunguak ziran emen dogu:

Ernaiu (Etxarri Larraun), Arresigor, Txadon zaya (Astigarraga), Lekonde (Urkaregi), Zudupe, Atxondo, Maitane (Azkoitia), Murumendi (Isasondo), Jaber Zarra, Apala (San Lorenzo), Talo ta Iziartxo (Errezil, Arrugain (Espinos), Amagoya, Urretabarren (Tabira), Irular, Larreko (Iruña) Urreta (Lasarte), Miren Karmel (Zestua), Eriomendi, Igerra, Iturri-txiki (Azpeiti), Oñazkarra (Andoain), Beristain, Ibirixto, Nikomedes, Ulazia'tar Esteban, Maria, Bene, Fide ta Arantxa, Arrasate (Mutriku), Aitzol (Donostia), Lete (Soraluze), Zeleta (Logroño), Agirretxe (Orio), Belu-mendu (Gernika), Maite (Murgia? Mungia?), Orixe (Orexa), Arripe, Arri Gotzon (Urretxu), Mendi xuri (Orreaga),

Elordi (Arua), Luistar Itxasgain (Cadiz), Zugasti (Altza), ta Ixilik, Oztategi-txu'tar Jon (Santander)» (Lauaxeta, Euzk 6444, 1933-8-3, «Aberri»'ren omenari buruz).

Hona 1933-10-1ean Euzkel-Idazle-Batza-ren bilerara, Elgoibarrera joan-dakoen izenak. «¿Nortzuk batu gintzan, Ara batzuren abixenak edo bestien ixen-gordiak: *Amilgain*, *Labayen*, *Errazti*, *Barrena*, *Barrenoso*, *Abeletxe*, *Aberri*, *Agarel*, *Amonatxo*, *Anaxtaxio*, *Andoni*, *Arnope*, *Artibai*, *Basanaitz*, *Belantz*, *Dris-Dras*, *Elgea*, *Ete*, *Gabe*, *Goiburu*, *Igerraitz*, *Ira*, *Iraurgitarra*, *Iturri-Txiki*, *Ixaka*, *Jexuxa*, *Kaiku*, *Keixeta*, *Luzear*, *Leizabe*, *Litargi*, *Lizarregi*, *Maitxo*, *Mirentxu*, *Murugain*, *Oraitz*, *Txalintxo*, *Urrategi*, *Urre*, *Zaloña*, *Zarraspe*, *Kirol* eta *Lauaxeta*.

Barrena jaunak ederki eruan eban batzarreko eztabaida otsa. ¡Arek dauko txistu berezija danari dantzarazteko! Urrutidazkiz geurekin ixan ziran: *Aretxabaleta*'ko, *Aitza* eta *Alberdi*; *Donostia*'ko, *Goikoleako txoria*; *Alegria*'ko, *Zapel* eta *Larrainzar*; *Berastei*'ko, *Mendizabal*; *Deba*'ko, *Tene*; *Orio*'ko, *Abarska*; *Beasain*'en dagan mungittar idazle argia, *Maite*; *Zarautz*'ko, *Basarri* eta *Olabeaga*; *Arrasate*'ko *Peli*; *Irura*'ko, *Onintza*; *Lasarte*'ko, *Taldantzur* eta *A-Bi*; *Tolosa*'ko, *Arantza*, *Antzerti*, *Yolanda*, *Zimitz* eta *Uzturre*; *Goyaz*'ko, *Armoya*.

Onein arteko batek esan euskun; Gogoz or eta Butrongoan nago. Geure ustez gogoz batzarran eta sabelez Butrongoan ixango zan. / Batzar eder onetan maipuru egon ziran: *Barrena*'tar *Polikarpa*, *Labayen*'dar *Andoni*, *Luzear*, *Ira*, *Zinkunegi* eta *Lauaxeta*» («Euzkel-Idazle-Batzarra, Euzk 6497, 1933-10-4)

2. Hona, gerratearen erdian, 1936ko berriemaile edo idazle batzuen izen eta ezizenak: «Mai ganian pillatu yakuzan idaz-lanak ara zeintzubenak diran: *Urkidi*, *Aixerixa*, *Biritxiñaga*, *Andoni*, *Kaiku*, *Ixaka*, *Bake-nai*, *Ilintxa*, (*Gurtubaitar Kepa*), *Iturriaga*'tar *Pantzeska*, *Mañariko*, *Mendigain*, *Montxor*, *Kerexeta*'tar *J.L.M.*, *Aiz-Zorrotz*, *Aitza*, *Agureak*, *Goxabaran*, *Otarmi* ta *Eguzki*'renak. («Idazliei uarra» Euzk 7489, 1936-12-29; izenpetu gabe: «*Uribitarte*'tar *Ibon*»ena?).

JESUITEN PEDAGOGIAREN ERAGINA LAUAXETARENGAN

Paulo Iztueta

Lauaxeta gazteak aurpegi asko ditu, ofizio asko bete izan ditu: poeta izan da, kazetaria, dramaturgoa, itzultzailea, politikaria. Haren ekarriaren alderdi anitza nabarmendu da komunikabideetan bere mendeurrena ospatzen ari garen honetan (1). Era berean, Lauaxetaz asko idatzi da, askok idatzi dute. Bere poesia musikatua izan da, bere bizitza pastoral modura antzeztua, filme bateko protagonista ere bilakatu da; haren poetika eta pentsaeraz doktore-tesiak burutu dira, hainbat euskal literatoren inspirazio-gai izan da. Eta bere mendeurrena iristean, erakunde politikoek zein akademikoek –hauen artean EHUK eta Euskaltzaindiak–, beren ekitaldiak antolatu dituzte, haren ekarria areago eza-gutzeko. Prentsak ere, leku zabala bezain oparoa eskaini dio, agian, beste inorri eman ez zaion bezalako.

Lauaxeta, orduan bezala, egun ere goresgarria dela eta egin zaizkion omenaldi-motak oro ondo mereziak dituela zalantzarik ez dut. Arazoa da, niretzat bederen, Lauaxetaz esana edo arakatua izan ez den zerbait berri agertzea ez zaidala batere erraza gertatu; bestalde, hari buruz egin diren balorazio kanonikoez harago, beste ikuspegiak –berdin osatzailea bada ere–, aurreratzeak ez ohiko ausardia eskatzen baitu, aitortu behar dut deseroso sentitu naizela hitzaldi hau prestatzeko orduan, zenbait unetan bederen bai, nondik jo ezin asmatuz. Bere heriotza gaztearekin bere literatur ekarriaren gailurra jo ote zuen eta horrelako galderak –Lizardiren kasuan ere egin izan diren bezalakoak, edo antzekoak–, lekuz kanpokoak iruditzen zaizkit, arrunt antzuak direlako, inora ez garamatzatenak.

Aurrera baino lehen, ohar-pare bat. Lauaxetari buruzkoa bere testuinguru soziohistoriko eta kulturean kokatu ahal izateko, egokia litzateke orokorrean euskal pizkundearen eboluzioa aurrean izatea, batez ere, gerrate aurrekoa, beste hitzaldi batean aztertua dudana. Hara igortzen dut, beraz, entzulea edo irakurlea. Nire aurretik beste batzuk jardunak badira ere, oraindik zer lan-

(1) Hala zekarren Urtzi Urrutikoetxeak: «Esteban Urkiagak poema bilduma garrantzitsu bi, antzerki lan bi, zenbait artikulu, itzulpenak eta poema solte batzuk idatzi zituen» (*Gara*, Muga-lari, 2005-VII-30, 3).

durik edo zer osaturik badela uste dut, batez ere, Lauaxeta idazlearen euskarari eta Lauaxeta abertzalearen pentsaera politikoari buruz eta, oraindik modu bereziago batez, Lauaxeta ikasle jesuita ohiaren pedagogi sustraiaren garrantziaz.

Hona hemen nire hipotesien zerrenda: bat, Lauaxeta laikoaren baitan, haren sakonenean, hezkuntza jesuitikoan ereindako hazia loratzen dela bere betetasun guztian, bereziki prestakuntza literarioan eta ispiritualitatean; bi, Lagundia utzi eta gero, euskaltzaleatasuna eta abertzaleatasuna elkartzean, pedagogia jesuitikoak eta ideologia sabindarrak gidatzen dutela bere bizitza laikoa, zeinetan garbiki jerarkizaturik baitatuz Jainkoa, aberria eta euskara, baina batasun organiko bat osatuz; hiru, haren poetikaren berritasuna klasizismoaren kontzeptua zabaltzean datzala, autore klasikoen baranoan aro modernokoak ere –bereziki, erromantikoak eta sinbolistak– sartuz; lau, ondorioetara etorrira, gerrate aurreko euskal kulturaren aldeko gizarte-mugimenduen zein ekimen instituzionalen baitan, jesuiten eskola berri eta berezi baten aurrean aurkitzen gara, zeinaren ezaugarria baita euskara, ordurarteko populismotik harago, kultura landuaren esparruan barneratu eta hortik aurrera eramatea (2). Orixe, Zaitegi, Andima eta beste hainbaten ondoan, Langundia oso gazterik utzi zuen Lauaxetak eskola horretan zer leku betetzen duen esatera mugatuko naiz. Beraz, lehen hiru puntuak beste baterako utzita, azkenekoari helduko diot.

1. LAUAXETAREN *CURRICULUM* LABURRA

1.1. Lehen urteak: Laukizetik Mungiara (1905-1916)

Gurasoak Jose Maria Urkiaga eta Bizenta Bazaras (sic) zituen, jatorriz baserritarrak. Laukizeko «Erriko Taberna» etxean jarri ziren bizitzen eta zazpi seme-alaba izan zituzten, lau mutil eta hiru neska, bera hirugarrena izaki, 1905eko abuztuaren 3an jaioa. Hile bereko 8an bataiatu zuten San Martin parrokian eta sendotzako sakramentua, berriz, 1910eko abenduaren 2an hartu zuten Gasteizko Jose Cadena Eleta gotzainaren eskutik Mungiako parrokian.

(2) Loiolako jesuiten eskolaz batek baino gehiagok eginak ditu galderak. Joseba Intxausti izan lehena horretaz mintzatzen («Zaitegi eta *Euzko-Gogoak*», II, *Jakin*, 12, 1979). Nik ere antzeko zerbait esaten nuen *Orixe eta bere garaia* lanean (1991, 494): «Nire ustez, kalitatez eta norabidez, gerraurrean jesuitena dela eskola izena merezi duen bakarra, bere emaitza umotuenak gerraondokoren eta atzerrian emango dituen. Eskola hau egituratu eta bideratu J. Zaitegik egiten du; edertu, Orixe». Patxi Altunari (1990, 25) ere arrazoizkoa deritzo galdera horri: «A la luz de lo aquí expuesto no resulta exagerado hablar de una verdadera Escuela literaria de Loyola, como se ha hecho, que si no dio los frutos que de ella se esperaban, fue por razones de todos conocidas. Baste decir que es en torno a ese movimiento loyoleo donde por vez primera un plantel de escritores jóvenes concibe el audaz proyecto de verter a la lengua vasca las grandes obras de la antigua literatura clásica grecorromana».

Herri txikietan gertatu ohi den bezala, orduan 500 biztanle baino ez zituen Laukizen ere bizimodua nekez zela eta, familia Mungiara aldatuko da 1909an, Estebanek lau urte dituela. Gatigatik datorren bidean, garai hartan eraikin askorik ez zen toki ireki batean, jarri ziren bizitzen, jatorrizko izena zein zuen ziurtasunez ez dakigun etxe batean. Antza, Lauaxeta toponimoa, Esteban idazleak bere buruari ezartzen dion ezizena da, etxe hura lau haizetara irekia zegoela aditzera ematen zuena. Ziurrago dakiguna da garai hartan taberna zela, egun kafetegi eta hotel bihurtua (3).

Bere hiru anaiak merkatariak zirela dio (*negotiatores*, alegia), baina hor- tik ezin da jakin zein iharduera zehatzetan ziharduten. Arrebak artean ezkon- geak zirela esatera mugatzen da.

Umetan Mungiako «Ventades» izeneko fraileen eskolara joan zen, eta hor egin zituen lehen ikasketak (4), emaitza ezin hobekak lortuz: lau «bikain» (*meritisimus*) Geografian, Espainiako Historian eta Historia orokorrean, eta Gaz- telerazko Gramatikan. Eskolaz kanpo, 12 urtetik aurrera eta hiru urtez, Oina- rrizko Mailako Gramatika –Latina, alegia–, ikasi zuen herriko Florentzio Galartza apaizarekin, ikasgai honetan (ere ia antzeko kalifikazioekin: «bikain» bat eta bi «oso ongi» (*benemeritus*). Buru argia zelako edo/eta abadetzarako gogoia sentitu zuelako, 1920ko udazkenean Durangoko jesuiten ikastetxean sartu zen, 15 urterekin, Lekeition bizi eta aitaren anaia zen Frantzisko osaba- ren aholkuz (5). Nolanahi ere, hasierako bere bokazioari buruz ezer gutxi ze- hazten du bere txostenean, aditzaren forma pasibo hau baino ez baitator: «Deinde ad Durangense seminarium misus sum in cujus scholis ut internus humanitates per annum didici». Zuzen ez dakigu, bada, bokazioa noiz sortu zitzaion, Durangoko egonaldian, ala lehenago.

1.2. Durangoko Ikastetxe Apostolikoan (1920-1921)

Hasieran, Tuterakoaren antzera, Durangoko honi ere «Ikastetxea» deitu zitzaion, soilki horrela 1880an, berariaz kanpoko ikasleei zuzendua zegoena; gerora, ordea, «Ikastetxe Apostoliko» gisa ere funtzionatuko du, «bokazio er- lijiosoetarako mintegi» izateko xede espezifikoarekin, Xabierkoaren antzera. Horregatik dio Lauaxetak «ut internus», barneko ikasle bezala, alegia, egon

(3) «La fecha de traslado no está fijada, pero Jon Kortazar, autor de la primera tesis doc- toral sobre el poeta –publicada con el título de *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*– y autor también de la única biografía del mismo publicada en castellano –*Lauaxeta, biografía política*– apunta que pudo ser en 1909. Es el mismo autor quien escribe que el seudónimo de Lauaxeta –a los cuatro vientos– procede de la ubicación peculiar de la casa a la que se trasladaron a vivir en Mungía. Aunque en principio ése no era el nombre original de la casa, le fue propuesto como seudónimo cuando comenzó a publicar» (Edorta Jiménez, 2005, 20).

(4) Kortazar, Jon, 1995, 3.

(5) Mallona Legarreta, Agurtzane, 1991, 10.

zela Durangoko ikastetxean, bere garaian kanpokoak eta barrukoak zeudela, hain zuzen. Barnetegi-egoeran zeudenak Gauonetako eta udako oporretan bakarrik joaten ziren etxera. Ikasketa orokorrak egiten zituzten, humanitatekoak zein zientzietakoak –batxilergoaren antzekoak–, baina apaizgintzarako zuzenduta zeudenak. Lauaxetak Humanitateko azken urtea, 1920-1921 ikasturteari zegokiona, Durangoko ikastetxean burutu zuen, honela, 1923ko «Catalogus Primus»en datorren bezala (6), lau urteko zikloa bukatuz: «Per quatuor annos Humanitates didicit». Azken esaldi honek nahasketarako bide emanez, lau urte horiek Durangon egin izan zituela iradokitzen bezala baita hor. Agian hala uste izanda, 11 urterekin joan zela idatzi dutenak ere izan dira (7), 1916-1917 ikasturtean, alegia, baina oker, Durangon ikasturte bakarra egin baitzuen, 1927ko Katalogoan eta «Nota handiak» izenez ezagutzen den agirian esplizituki datorren bezala, non esaten baita «ut internus humanitates per annum didici». Beraz, Loiolan Lagundian sartu aurretik Latina ikasten lau urte emanda etorri zela esatean, ulertu behar da horietatik hiru Mungian egin zituela hango apaizarekin, eta bat Durangoko ikastetxean.

Ikastetxe honetan ere nota disdiratsuak atera zituen: Grezierazko gramatika «oso ongi», Espainiako literaturan «bikain» eta Erretorikan «oso ongi» eta «bikain» bat. Lauaxetaren curriculumean ikasgai horiek bakarrik agertzen badira ere, litekeena da ikastetxe hartan beste batzuk ere landu izana, hala nola Historia Sakratua, Historia Unibertsala, Geografia eta Latina. Azken hauek ez agertzearen arrazoiak izan bide daiteke, horien oinarrizko ezagutzak Mungian jasota etorria zenez, besterik gabe gairididutzat eman zizkiotela. Txostenaren testuingurua ikusita, hala dirudi, taula berean baitatuz Mungiaiko zein Durangoko emaitzak. Lehengo eta oraingo emaitza hauek aurrean izanda, ez da harritzekoa «Nota handiak» izeneko agirian bere buruaz esatea ikasketarako gaitua zegoela, gaiak ulertu eta oroimenean gordetzeko erraztasuna zuela, ikasten jarduteko berezko joera zekarrela.

Gotzon Garatek (2003, 5) esana da Lauaxetaren Durangoko egonaldiaz gutxi idatzi izan dela, eta hala da. Bada, halere, Lauaxetak 1932an idatzitako artikulua hunkigarri bat, zeinetan, elkarrizketa-modura atondutako pasarte honetan, bere ikasle-garai hartan Kirikiñorekin Mañarin izandako hartuemanaren

(6) «Catalogus Primus» izena daraman Gaztelako Probintziako inskripzio-kuadernoan urte urte emanak datoz beren ikasketak Jesusen Lagundian eginak dituzten ikasle guztiei buruzko zenbait xehetasun, dena latinez, ataletan honela banatuta: 1) izen-abizenak, 2) «patria», 3) adina, 4) osasuna, 5) Lagundian egindako denbora, 6) ikasketa-denbora, 7) izandako karguak, 8) lortutako graduak Lagundian sartu aurretik. Latinezko «patria» izen generiko horren barruan, nazioa, sorterrria, elizbarrutia eta probintzia bereizten dira. Bistan da, nazioa izan, Espainia datorrela ezarria.

(7) Ez dakigu zein iturritan oinarrituta baina, hala dakar Estornes Lasak. Geroztik berdin Agurtzane Mallonak (1991, 10) ere, «1916an Durangoko jesuiten komentuan» sartu zela dihonean. Akats bera errepikatzen du Edorta Jimenezek (2005, 20): «Su infancia la pasó ahí y a los 11 años de edad, es decir, en el curso 1916-1917, cuando Europa se desgarraba en la hasta entonces mayor guerra de su historia, Esteban Urkiaga Basaraz ingresó en el colegio de Jesuitas de Durango. Dicen que fue tan intensa la impresión que recibió allí, que pensó en ingresar en la orden».

berri ematen baitu, gero harrotuko den haren euskara-ezagutzari buruzko eztabaidan argigarri gerta daitekeena: «Manarian iltegi apala datza. Iltegi orren barruban sarri otoi egin dogu, ez Irakaslia iltta gero, artian be bai. Orain urte asko dira. Udabarriko arratsalde eder bat zan. Gurdibillez juan nintzan eta antxe idoro neban Kirikiño. –Nor zattut gastetxu? –Inor ez . Euzkeraz ikasten iñardudan bat. –Polito berba egiten dozu ba? Euzkeldun barri bat zara? –Ez euzkeldun-barri ez. Txikitan euzkerea itz-egiña nozu, gero, gero baña aztu yatan. Eta euzkereatzaz itz-egiten jardun geban. Lenengoz eta azkenez ikusi neban gixon maitagarria» (Urkiaga, 1991, 88). Aurrez aurre elkar-ikusi bai, baina *Euzkadi* egunkaria utzi baino bizpahiru egun lehen, berak argitaratu zizkion bere lehendabiziko lanak, idazten jarraitzeko aholkua emanez: «Uartxu bat jarri eustan. Jarrai egixu, idazteko gogoia daukozulako» (Urkiaga, 1991, 89).

Mañariko elkar-ezagutze hori ziurrenik 1921ko udaberrian izanen zen, Loiolara joan baino hilabete batzuk lehenago, eta hor hiru puntu jakingarri hauek ikasten ditugu, hots: euskara amaren bularrekoa zuela, Durangoko ikasketaldian atzendua bezala zeukala eta euskararen inguruan jardun zutela hizketan. Garbi dago, bada, Loiolara baino lehen ere bazituela euskara-kezak eta ordurako euskara berreskuratzen hasia zela.

1.3. Loiolan: Nobiziatua eta Junioratua (1921-1926)

Loiolako Egunkarian ez baitator nobiziogaien etorrerari buruzko berririk, ezin da zehaztu data finkorik. Baina ziurrenik 1921eko uztailaren hasiera-aldera agertuko zen Lauaxeta Oñazko bailaran handikiro etzaten den Loiolako etxe dotorerara, Nobiziatua egitera, aita Leza probintzialaren baimenarekin. Hori diogu, zeren nobiziogaiak, nobizio izan aurretik, hamabi egunez (luzatzen zen «Lehen Probantza» deitua gainditu behar izaten baitzuen. Epealdi horretan «aingeru» deitzen zioten nobizio bat izaten zuen laguntzaile, Nobiziatuko ohi-tura eta arauak irakasten zizkiona. Lauaxetaren kasuan epealdi hori ez zen hainbeste luzatu, uztailaren 23an hasi baitzen eta Nobiziatuan sartzeko azterketa 31n egin baitzuen Durangoko aita Nagusiaren eta Loiolako nobizioen Maisuaren aurrean, une hartan aita Martin Garmendia zena, euskara gartsuki maite zuen tolosarra.

Nobiziogaiek Lagundian sartzeko eskea egiterakoan, guztientzat berberak ziren bi formulario bete behar izaten zituzten, eskuz idatzita eta latinez, «Nota handiak» (eta «Nota txikiak» deitzen zitzaienak. Lehenengoan, luzeenean, nobiziogai bakoitzak beren etxeko familiaren, ikasketen, bokazioaren eta osasunaren berri ematen zuen; bigarreanean, Lagundiaren zerbitzura jartzeko bere hitza ematen zuen. Lauaxetak misioetara joateko gogo berezia agertzen du: «Quoad ministeria indifferenter me habeo quanvis sentio specialem inclinationem ad missiones inter fideles». Lauaxetak 1921eko uztailaren 31n izenpetu zituen agiri biak. Handik lau egunera beteko zituen 16 urte Lauaxeta nobi-

zio gazteak. Sotana hartzean, soldaduzkan bezala, ilea arrasean moztuta utzi ote zuten? Orixeren garaian hala zen usarioa.

Euskararen munduan lagunkide eta ikaskide izango zituen beste nobiziotik batzuek ere urte berean egin zituzten beren botoak: bere aurretik Andima Ibinagabeitiak urtarrilaren 27an; Erraimun Aragartek ekainaren 3an, Luis Sagastunek uztailaren 3an, Jokin Zaitegik berak baino 3 egun lehenago, urtarrilaren 27an, eta Frantzisko Sarobek eta Gilermo Larrañagak bere ondoren, hurrenez hurren, irailaren 2an eta 7an. Humanitateko ikasketak ikastetxe desberdinetan eginda etorri ziren: Ibinagabeitia Tuteratik, han hiru urteko ikasketak eginda; Jokin Zaitegi, Durangotik, Latinitateko urtea eginda; Sagastune, Andoingo seminariotik, bertan lau urte eginda; Sarobe Xabiertik, bi urte eginda. Eta abar.

Kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsua da, beraz, jesuiten curriculumean oso argi bereizten direla, batetik, Lagundikoak izan aurretik jesuitaiek dakartzaten ikasketak eta, bestetik, Lagundikoak izatera pasatzean osatu eta burutu beharrekoak, *Catalogus Primus*-en zehazki mugatua datorren bezala: «Tempus studiorum: Extr. Soc.; In Soc.». Zentzu honetan, azken hauek soilki dira curriculum jesuitikotzat har daitezkeen bakarrak. Eta. Langundikoa izaten hasi, esana daukagunez, Nobiziatuko botoak egin ostean hasten da, ez lehenago.

Lauaxeta Nobiziatuan sartutako 1921-1922 ikasturtean, Loiolako etxea, den handia izanda ere, lepo beteta aurkitzen zen: 29 apaiz jesuita, irakasleak eta apostolu-zerbitzukoak batera hartuta; Junioratuko 24 ikasle, Erretorikako bi ikasturtetakoak eta Humanitatekoak kontatuta; nobizio eskolastikoak –mezarakoak, alegia–, 27 guztira, hauen artean ezagunak zaizkigun hainbeste, hala nola Ibinagabeitia, Sagastune, Zaitegi, Sarobe, Larrañaga eta Urkiaga aipatuak, baita Argarate ere; azkenik, ia beste hainbeste nobizio laguntzaile, edo lego, 24ko kopuruarekin. Guztira, beraz, 104 lagun, 1917ko irailaren 6az geroztik bertako errektorea den aita Inazio Iberoren esanera. Bera izango da ikasketen buru ere, azken kargu honetan aita Inazio Errandoneak ordezkaturiko duen arte 1923ko ikasturtearen hasieran. Errektoradutzan erlebua aita Pedro Bianchik hartuko dio 1924ko ekainaren 21ean, Oñatik etorrira, bertan errektore gisa 6 urte egin ondoren. Agintaritzan egotea zer zen bazekiena zen, Orixe bezalako euskaltzaleak probatzen abila.

Gazte-talde gotorra da bertakoa, biharko intelektualen mintegi esparantzakor izateko ederto ongarriritza aurkitzen dena, zalantzarik gabe. Ondoko urteetan kopuru hori oraindik areagotuz joango da, Lauaxetaren azken ikasturtean (1925-1926) 130etik gora iristeraino. Orixeren garaian, Erretorikako bi urteak Burgos-ko «La Merced» ikastetxean egiten zituzten, baina Gaztelako probintzien arteko banaketa egitean 1918an, handik aurrera Gaztelako probintziak Loiolara ekarri zuen humanitate-ikasketa horien zikloa. Horregatik aurkitzen ziren nobizioak eta juniorrak egoitza berean, nahiz, arautegiaren arabera, espazio fisikoaren zein antolaketaren aldetik elkarrengandik banandurik egon: basilikara begira jarrita, eskuineko hegalean, nobizioak 3. solairuan eta

juniorrak, berriz, 2.ean, bakoitza bere kaperarekin, orain biblioteka bihurtuta daudenak. Batera zuten frontoia, 3. solairuan aurkitzen omen zena. Urtean bospasei jai-egun handitan izan ezik ez bide ziren elkartzen.

Lauaxetak, ohi zenari jarraiki, Nobiziatuan bi urte egiten ditu. Lehen urtean denborarik gehiena Lagundiaren espiritualitatea, legeak eta arauak eza-gutzen ematen zen: otoitz noiz eta nola egin behar zen, etxe-barruan eta kanpoan nolako portaera izan behar zuten, etab. Ikasketarik ia batere ez. Gehienez, latin pixka bat. Nobiziatuko bigarren urtean, ordea, nobizioei «cicerones» deitzen zaie eta horien egunero bizimodua ere aldatu egiten da. Lauaxetari dagokionez, haren izena Erdi Mailako Gramatika ikasten ari diren 10 laguneren artean aurkitzen da 1922-1923 ikasturtean, besteak beste, Ibinagabeitia eta Zaitegirekin batera.

Nobiziatua 1923ko uztailaren 31n bukatzen du, San Inazio egunez, eta handik aurrera Junioratuari ekingo dio, zeina urtebeteko Humanitateko eta bi urteko Erretorikako ikasketek osatzen baitute. Hiru urteko ziklo hori, ordea, ez zen erabatekoa izaten, zeren, urte gutxiago edo gehiago egin, ikasleek ikasgai horietan lehendik zekarten ezagutza-mailaren araberkoa izaten baitzen. Noski, «ongi jantzita zeudenek urte gutxiago egiten zituzten» (Garate, 2003, 4-5).

Goi-Mailako Gramatika eta Humanitateak egiten pasatzen du Lauaxetak 1923-1924 ikasturtea, 19 laguneko talde batean, oraingoan, lehen aipatuez gain, Sagastune, Sarobe, Mujika, Felix Korta eta Iñaki Goenaga ere ikaskide dituela. Erretorikako beste bi ikasturteetan, 1924-1926 bitartekoetan, talde berak jarraitzen du, azkenekoan, hiru ikaskide gehiagorekin.

Lauaxeta, bere garaiko ikaskideek kontatzen dutenez, izaezaz lotsati eta izutia omen zen, dena barruan egosten zuen horietakoa (8). Gauza jakina da, bestalde, somnanbulua izan zela Loiolako egonaldian eta laguntzaile bat jarri ziotela zaintzeko. Lekukoak, ordea, ez datoz bat haren zaindarien izenak ematerakoan: Leon Lopetegik (9) dakarrenez –eta honi jarraitu diote gero Gotzon Garatek (2003, 11) eta–, aita Gotzon Martikorena izan zen, Lauaxeta baino 4 urte zaharra, Beteluko mutil indartsua, eta Loiolan Humanitateko eta Erretorikako ikasketak egiten ikasturte bat aurrerago zihoana. Aita Plazido Mujika (1982, 29), egiten dioten elkarrizketa batean, lehen pertsonan mintzatzen da gertakari horri buruz: «Lauaxeta nik adina ez du inork ezagutu. Hemen gauza txar bat zuen Lauaxetak: gauean jeiki ta izketan eta aritzen zen, sonanbulo, ta sonanbulo bezala sermoi ederrak botatzen zituen lotan. Jendea asko ikaritzen zen. Ni ez ninduen beldurtzen ta arekin jarri ninduten, lotarako, bi oeko gelak

(8) Ibid., 11.

(9) Leon Lopategik (1990, 111) dakarren lekukotza da hau: «Hay que tener en cuenta, que el poeta fue algún tiempo sonámbulo, y que por eso tuvo como compañero de cuarto al que luego fue P. Marticorena, del que nos acordaremos después, pues era muy sereno y forzado, por si hiciera falta en alguna ocasión enfrentarse con el sonámbulo».

izaten baikenituen. Ta leenengo gauean pentsatu nuen “ia gaur gauean jeikitzen den” ta aulki bat jarri nuen ekilibrio txarrean, ikuitu txikienarekin erortzen zela, ta iru egunetan jarri eta etzen jeiki. “Joan zaio oitura ori”. Laugarrenean ez nuen jarri ta jeiki egin zen. Bi ohen artean zegoen kortina ra! de golpe ireki zuen ta ni esnatu ta “Urkiaga!”. Baina norbait sonanbulo dagoela kolpetik esnatzea astakeria bat da; il daiteke. Ta pentsatu nuen etxean sonanbulo ibiltzen zenean etziotela apellidoarekin esaten, Esteban esango ziotela, ta “gaizki egin diot” ta geroztik “Esteban!” esaten nion ta esnatzen zen». Plazido Mujika hizteggigilea, Nobiziatuan urtebete geroago sartua izan arren, ondoko urteetan Urkiagaren ikaskidea izan zen eta arrazoi guztiak zeuzkan hura hurbiletik ezagutzeko. Hara hor bi lekukotasun, lehena bigarren batek idatziz utzia, eta bigarrena, zuzeneko lekuko gisa, ahoz emana eta xehetsunez betea. Seguru asko garai desberdinetan izango ziren biak –edo, agian, gehiago ere bai– Lauaxetaren jagole.

Nolahani ere, aipu horiek baino adierazgarriagoa iruditzen zait Lauaxetak berak adiskide handi zuen aita Lopetegiri kontatu ziona: Espainia osoan (gerrate zibila hasi zela amets egin zuen eta guk ere, euskaldunok, parte hartzen genuela, alegia. Eta ametsa, neurri handi batean, egia bilakatuko da. Lauaxeta 1937ko ekainaren 25ean fusilatuko dute Gasteizko Santa Isabelgo hormaren kontra (Jimenez, 2005, 20-21). Gudaria zelako. Gotzon Martikorenak, berriz, erreketean kaperau bezala frentean galduko du bizia, Legution, bala bategi jota. Kasu bietan, kointzidentziaren handia benetan!, aita Alfonso Moreno bilbotarra, Loiola eta Oñan ikaskide izandakoa, gertatuko da, hain zuzen, bien azken orduko lekuko zuzena. Lauaxetaz hauxe utzi zuen idatzia bere egunkarian, gaztelaniaz, euskaraz ez zekien eta:

Con el mal sabor de boca de la ejecución de Esteban Urkiaga. Sereno y cristianísimo, plenamente sumergido en la apacible dulzura de nuestra Santa Fe. La ha sentido (y gustado a través del Nuevo Testamento, que diariamente rumiaba en la lentitud de las horas de la cárcel, horas grises, sin objeto, eternas... ¡Jesús vida. Jesús, el único! Era lo que repetía. Luego, a las cinco y media, los cuadros de costumbre, (mientras hablaba con mi crucifijo, tiernamente enamorado por lo solemne del momento... ¡Toda la masa encefálica fuera! Le quito las medallas, recojo el Cristo y el rosario con los que ha muerto. «Si he de pecar el día de mañana, prefiero morir ahora». «Muero con Jesús». «Confío plenamente en la Virgen». «Dios... ¡mi padre! (10).

Pasarte honen argitan hobeto ulertuko da, ezin ulertutik gutxi badu ere, hil aurrean egindako «Azken oyua» poema.

1.4. Oñan Filosofia (1926-1928)

Ez dugu daturik Loiolako bailara zabaletik Oñako menditartera noiz joan zen jakiteko. Seguru asko 1926ko uda betean izango zen, Izarraitzeko hare-

(10) Edorta Jimenezek aipatua, 2005, 25.

harriak distiran eta inguruko zelaiak gizen eta arto-soroak gailurretan zeudenean. Loiolako eraikin harrilanduzkoaren besoak zabal hedatzen badira Azpeitiko hiribidean, Oñako monastegiaren horma zaharrek are orube handiagoa besarkatzen dute bere barruan. Bertan bizi diren erlijiosoen kopurua ere dezentente garaia da Loiolakoaren aldean 1926-1927 ikasturtean: 28 apaiz jesuita, hemen irakasleak eta gainerakoak sartuz. Irakasleak, berriz, (193 dira guztira, honela banatuta daudenak: 101 teologo, hauetatik 66 «cursus major» edo ikasketa luzekoak egiten ari direnak –lizentziatura lortzera bideratuak, alegia– eta beste 35 «cursus minor» edo laburra egiten dabiltzanak, ibilbide biek 4 urteko iraupena dutelarik; filosofoak 92 dira, zerbait gutxiago, hiru ikasturtekoak batera hartuta; azkenik, esku-lanetarako anaia laguntzaileak, berriz, 40. Guztira, (beraz, 261 erlijioso teilatupe bakarrean. Loiolan halako bi eta gehiago. Urrezko aroa jesuiten intelektualitateak garai hartan bizi zuena! Filosofia-ko lehen ikasturtea hasten duten filosofoak 39 dira, Lauaxetaren talde berean aurkitzen direlarik, orain ere, lehengo euskaltzale lagunak: Felix Korta, Iñaki Goenaga, Ibinagabeitia, Plazido Mujika, Sagastune, Sarobe, eta Zaitegi. Bigarren ikasturtean, Lauaxetarako egingo duen azken urtean, bi ikasle gutxiago izango dira.

Oñako ikastetxe honetan, aita Matias Ibinagabeitia zen bertako errektorea orduan. Kargu horren arduradun 1924ko ekainaren 21ean egin zuten eta, aldi berean, probintziako kontseilari ere bazen. Andimaren osaba genuen, bera bezala Elantxoben jaioa 1871ko otsailaren 23an, eta euskaltzalea.

Filosofiako irakasleen taldean, Orixeren garaitik Lauaxetarengana aldataririk eman zen. Honela, 1920-1921 ikasturtean, Orixe Filosofia-ko lehen urtea egiten hasi zenean, aita irakasle hauen izenak aurkitzen dira Katalogoan ondoko ikasgai hauek erakusten: Jose Aldasorok, Fisika eta Astronomia; Krisanto Ciaranek, Logika eta Metafisika; Emilio Etxagibelek, Matematika; Julian Hormaetxeak, Etika eta Zuzenbide Naturala; Jose Iberok, Kosmologia, Psikologia esperimentalak, Geologia eta Pedagogia; Joan Loinazek, Psikologia razionala eta Filosofia-ko historia; Joan Restrepok, Biologia eta Kimika. Zazpi irakasle. Handik zazpi urtera, 1926ko ikasturte-hasieran, ikasgaiak ez dira aldatuko, funtsean lehengoak erakusten baitira, Fisiologia eta Anatomia gehituz, baina bai irakasleak. Ikasgai berak ematen dituzten aita Aldasoro, Etxagibel eta Ibero kenduta, beste zazpi (hauek berriak dira: Modesto Armisen, Romualdo Galdos, Jose Antonio Laburu, Jose Antonio Mentxaka, Jose Palacios, Joan Uribe, Isidoro Villar eta Inozentzio Aldanondo. Horrela izendatuta, ikasgai potoloak dira guztiak ere. Hainbeste diziplina desberdinetara zabaltzen den Filosofia-ko sail horretan hiru urteren buruan ikasleek egiazki nolako ezagutzak lortzen zituzten jakin ahal izateko, hurbiletik aztertu behar-ko litzateke ikasgai horien edukia zein izan zen, zein, halaber, erabiltzen zuten metodoa. Horretarako, ordea, testu-liburuak edo apunteak beharke liraterke eskura, nire hemengo egitekoa ez dena. Gai monografiko batean tesi-lan baterako eman lezake zer zukutua iker-lerro horrek. Nire hipotesia da, garai

hartako testuinguru akademikoa aurrean izanda, ezagutza espekulatiboa esperimentalari nagusitzen zitzaiola, bereziki egun diziplina osoki autonomoak diren zientzia horietan. Kasurik onenean ere, 1960ko hamarkadan Erromako *Gregorianum* edo *Angelicum* unibertsitateetan erakusten zenaren antzekoa, funtsean eskolastikoa. Eskola-hizkuntza, jakina, latina zen, gerora ere luzarotan, 1960ko hamarkada-bukaera arte, erlijiosoen ikastetxe nagusietan halaxe izanez jarraitu zuena.

Jadanik Loiolan literaturarako hainbesteko grina erakutsi zuen Lauaxeta Filosofia ikasteari bakarrik lotu ote zitzaion Oñan? Badirudi ezetz. Han Frantziako poeten irakurle sutsua izan zen eta Francis Jammes eta Baudelairen zenbait olerki ere euskaratu zituen (11). Daniel Gaston lekukoak Gotzon Garateri kontatuta, orduko bere autore maiteak nortzuk ziren ere badakigu, zehazki hauek: Heine, Alfred Musset, Gerra Junqueiro, Goethe, Andreiev, Eichendorff, Homero eta Leopardi. Azken bi hauek eragin handia izan omen zuten Lauaxeta baitan. Honek Lagundia uztean bere gelan aurkitu baitzuten azken horren liburua, Daniel Gascon ikaskideak, antza, bibliotekariaren erretolika entzun behar izan zuen, liburuak elkarri uztea debekatua zegoelako (Garate, 2003, 15-16). Orduko bibliotekari ofiziala izan, aita Romualdo Galdos zen. Oñako egonaldian, poesian ez ezik, ipuingintzan ere aritu zen: *Iru adiskideak* eta *Ipuina dirudin egia, adibidez* (bere lehen ipuinak, adibidez, 1927an argitaratu zituen aldizkari desberdinetan.

Filosofiako bigarren ikasturtea bukatzean uzten du Oñako ikastetxea, 1928ko uztailaren 9an, berak hala eskaturik, dimisioak izenpetu ondoren. Jesusen Lagundia uztearen arrazoiak? Erabaki hori hartzera zerk eraman zuen batere garbi ez dagoela dioenik baden arren (12), haren barrua hurbiletik ezagutu zutenek aurreratzen dituzte arrasto batzuk. Literaturarako zaletasuna, guztien gainetik, eta Lagundian euskara-kontuan sumatzen zuen epelkeria, bi arrazoi horiek izango dira D. Gascon lekukoak Gotzon Garateri aipatzen dizkionak (13). Ezaguna da azken arrazoi horrek pisu handia izan zuela Andima Ibinagabeitiaren kasuan, Jokin Zaitegirenean ez gutxiago. Lauaxetarenean ere bai? Bestalde, Gotzon Garaterentzat (2003, 18), ez dago batere garbi zergatik ohildua izan zen Orixe, berak dioenez, «arrazoiak gordeak daude(lako) artxiboetan». Lagundiko artxiboak hala egongo dira, baina ez erabat, Patxi Altunak (1991, 43-86) arakatuak baititu gertaera horren inguruan

(11) *Eusko Olerkiak, Poesias Vascas*, Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 12-14.

(12) Jimenez, Edorta, 2005, 20-21.

(13) «Lehendabizikorik: “Apaiz izateko baino poeta izateko indar handiago sumatzen zuelako. Lauaxetak aspalditik nabaritzen zuen bere baitan literaturarentzako zaletasuna. Zaletasun hori josulagun izateko zaletasuna baino handiago zela konturatu zen eta utzi egin zuen Jesusen Lagundia. Bi indar horiek noiz eta behin elkarren kontra jardun lezaketela garbi dago. Gracian eta Coloma larri ibili ziren, Jesusen Lagundia utzia ala ez. Frauka-k utzi egin zuen eta beste askok ere egin du bere baitan gogoeta hori, jarraitu ala irten. Bestalde, Lauaxetak etorkizuna beltz ikusten zuen. Jesusen Lagundian ez baitzuen guztira, euskararentzako maitasun handirik hautesmaten. Lauaxetak sufritu egiten omen zuen josulagun askoren artean euskararenganako zabarkeria ikusita. Erdal giroan bizi behar» (Garate, 2003,16).

hainbat puntu, eta zehatz, Orixeren mendeurrenekoan Uitzin egindako bere hitzaldian. Bestalde, ni neu ere jarduna naiz luze asko gai honen inguruan *Orixe eta bere garaia* (1991) eta *Orixe gaitzetsia* (2003) lanetan eta puntu gehienak –ilunenak– argituta daudelakoan nago, nahiz eta gertaeren edo erabakien inguruan interpretazio-desberdintasunik egon daitekeen.

Dena den, Lauaxetak Lagundikoen euskaraganako jarrera ahula edota, kasurik negatiboenean, aurkako bezala ikusten badu ere, eta hori bada Lagundia uzteko arrazoietako bat, segidan esan behar da, horrelako eta beste edozein oztoporen gainetik, Jesusen Lagundia bere osotasunean defendatzeko gertu agertzen dela. Horrela egingo du II. Errepublikak Jesusen Lagundia Espainiatik ohiartzeko erabakia hartzen duenean, *Euzkadi*-n, «Josulaunak» izenburuarekin, 1931ko urtarrilaren 27an argitaratutako artikuluan: «Euzkotarrak zer ikusirik ez pageunke josulaunetzaz be, geure samiña agertuko geunke, erabaki ori baño okerrik ezin dalako ikusi. Baña euzkuak zer ikusi andajak daukoguz lekaide oneitaz. Loyolatar İñaki geure endakua ixan zan. Aren ixatia zabaldu dabe beti josulaunak eta geure aberri onen ixena barreyatu dabe» (Urkiaga, 1991, 53-54). Beraz, hau da lehen arrazoia, fundatzailea euskalduna izan zela, alegia. Eta bigarrena, Elizaren alde jokatzeko ausardia agertu dutenak, jesuitak izan direla: «Josulaunak ixan (dira) beti elexaren gudari ausartubenak eta amaikatxu gaste ta zar ziñismenean azi dabez» (Urkiaga, 1991, 54). Euskal Herrian bertan lan gaitza da jesuitek egiten dutena irakaskuntzan bezala gazteen apostoladutzan, gazteriaren hezkuntzan, orrialde bereko pasarte honetan dioen bezala:

Urrun jua biarrrik eztaukogu, berton Bilbaon ikusten dogulako zer egin dabe [sic] irakastola nausi bi daukoez, ainbeste gasteri ikastaruak emoteko. Koldobikatarren bazkunean barriz millaka gastiak dagoz. Antxe alkarren arteko itzala ta kistartasuna ikasi dabe gastiak.

Baliozkoak izan ala ez, garai batean uste edo bizi izandakoekin kontraesanean egon ala ez, beude hor aipatuak Lauaxetaren lumatik hartutako bi arrazoi horiek, zeinak baitira jesuiten euskalduntasuna eta erlijioaren aldeko defentsa. Azken testu hau ikusita, ez dago batere garbi lehen arrazoi hori zein neurritan den aitzakotzat hartzekoa.

Balorazioak balorazio, jesuitekin ikasten egindako zazpi urteren balantzea egin eta gero, bistan da, prestakuntza akademikoaren eta, bereziki, literarioaren aldetik, handik ederki jantzia etxeratu zela. Bizitza laikoan, doi-doi bizitza erlijiosoan baino bi urte gehiago egingo ditu. Zer nolako urteak haiek, aldi berean lumari eta militantzia politikoari emanak. Horri pasa eta, itxi dezagun hemen Lauaxetaren curriculumari buruzko atala.

2. LEHEN SAIOAK POESIAN

Tamalez, ahalegindu naizen arren, Lauaxetak Erretorikako zein Filosofiako ikasketa hauetan lortutako emaitzak jakiterik ez dut izan. Hala eta guztiz ere, zu-

zenezan ez bada zeharka bederen, jakin dezakegu buru argitsuenak nortzuk izan zitezkeen. Garai hartan, urtean bi aldiz berritzen zituzten beren botoak (14), eskuarki Erregenetan eta San Pedrotan, edota Jesusen Bihotzaren egunean, eta horren karira, gaituenak ziren juniorrek eta filosofoek bere zain poetikoa erakusten zuten latinez, grezieraz eta hebraieraz egindako saio txikietan, gaitzat ospatzen zen festa-eguna hartuz. Ikasle dezente dira beren poematxoak ontzen dituztenak, eta gehienek latinez dihardute, hauen artean, Ibinagabeitia, Zaitegi eta Lauaxetaz gain, Frantzisko eta Felix Korta anaiak, Iñaki Goenaga, Luis Sagastune, Plazido (Mujika, Erraimun Argarate, Sarobe, Gilermo Larrañagak, eta gehiagok ere bai. Daniel Gastonek pare bat poema baditu grezieraz, eta hebraieraz idatzitakorik ere bada. Hauek denak eskuz letra argi eta dotorez idatzitako *Carmina renovationis* izeneko koaderno apainduetan gordetzen dira Loiolako artxiboan (15).

Lauaxetarenak lau poematxo atzeman ditut: bi Loiolako egonaldian egindakoak: bat 1925eko ekainean, beste bat hurrengo urteko data berean, eta beste bi Oñan, hauek 1927ko ekainean. Beraz, lau guztira, jarraian urtez urte transkribatzen ditugunak, ez baitira guztiak jasotzen Patxi Altunak (1990, 113-153) paratutako bilduman.

1.

Ad Cor Jesu

Descendunt timidi cervi de montibus altis,
 Audax utque latus percussit spicula saeva
 Venato, rapidi cursant ad flumina quaerunt
 Et vivos claris restinguere fontibus ignes,
 Ipse gero percussum cervus pectore vulnus
 Eta dulci cupio satiari Cordis amore
 Ut saliente animum restinguens flumine, pace
 Mentis perpetua utar quae sit nuntia caeli

Stephanus Urquiaga, S. J.

Loiola, 1925eko ekaina

2.

Ad Jesum

Natus est nobis puer eta venustus
 parvulus, surgens teneris in annis
 ex sinu aurorae, rocisque mannis
 solis ab ortu.

(14) «Nota txikiak» izeneko agiriaren atzekaldean datorrenez, Esteban Urkiagaren boto-berritzeak Loiolan, 1992ko otsailaren 3an eta abuztuaren 3an izan ziren, eta 1923an, berriz, urtarri-laren 30ean eta abuztuaren 2an.

(15) Loiolako artxiboa, Caja 28/1.

Tu potes nubes oculis serenis
 Cernere et rivos vitreos morari.
 Rupe muscosa et tumido reponis
 Aequora motu.
 Quin dolores tu lacrymasque risu
 admoves, tanta est tibi grata virtus.
 Dulce dum rides niveos dant flores
 Lumina pratis.
 Non meae vero lacrymae cadentes
 et dolores non animum lacessent?
 Heu!, puer preces tibi rite dicam
 vulnere laesus!

Stephanus Urquiaga, S. J.
 Loiola, 1926ko ekaina

3.

Totus desiderabilis

O rosei vultus ac oscula blanda, valete:
 Me Pueri rapiunt lumina orisve risus;
 Me, Jesu, rerum suavissime, pignus amoris
 Dulce racemi ebrium nectare redde tui!
 F. Urquiaga, S.J.

Oña, 1927ko urtarrila

4.

Ad Cor Jesu

Utque audax diro percussit latera telo
 Venator, rapidi cursant ac flumina quaerunt
 Et vivos claris restinguere fontibus ignes
 Ipse gero afflictum cervus pectore vulnus
 Et dulci cupio satiari Cordis amore
 Ut saliente animum restinguens flumine certa
 Pace fruar mentis; quae sit nuntia caeli.

A.M.D.G.

Stephanus Urquiaga
 Oña, 1927ko ekaina

Ohartzekoa da poema horietan, lehenengoa eta laugarrenkoa Jesusen Bihotzari egindakoak direla biak, lehena Loiolan 1925ean eta bestea Oñan 1927an, eta laugarrenko hori, testua hobetzera aldera egindako aldaketa gutxi eta txiki batzuk salbu, lehenengoaren kopia bat besterik ez dela. Seguru asko, zerbait aurkeztu egin behar eta, errazera jo bide zuen. Ni, hemen, lehenengo

biak itzultzeraz ausartu naiz, jadanik poema hauetan antzematen baita hogei urteko poeta gazte honek adierazpen sinbolistarako daukan lera berezia. Nolanahi ere, irakurle ohartuari abisatu nahi nioke lehen poema horretako dudamudazko «ipse gero» horrek zalantzak sortarazi dizkidala. Ni baino latinista gaituago baten esku uzten dut, (bada, gaizkiulertuak zuzen ditzan, eskertuko diodana:

Jesusen Bihotzari

Ehiztari ausarta luzez atzetik dutela, baina gezirik bota gabe,
Orein lotsatiak goi-mendietatik behera datoz
Bizkor korrika ibaien bila,
Eta iturri argiez itzaltzen dituzte su biziak.
Bihotza zaurituta triste doan oreina daramat
Eta atseginez desiratzen dut bihotz-amodioz asetzeara,
Darion ibaitik arima pausatuz joan dadin,
Adimenak betiko bakea izan dezan
Eta zeruen iragarlea izan dadin.

Loiola, 1925eko ekaina

Jesusi

Jaio zaigu haurra, txiki eta polita,
Aspaldiko urtetatik bigun sortua egunsentiaren sabelean
Eta arrosa-koloreko eskuekin
Eguzkiaren sorreratik.

Zuk hodeiak begi narez ikus ditzakezu
Eta beirazko erreketan bizi zintezke.
Arroka goroldiosu eta puztuan
Berritzen zoaz uren mugimenduan.

Hain zaizu atsegin bertutea,
Minik eta malkorik gabe irria darizu.
Zu irriz zaudela, zelaiko argiek
Elurrezko loreak ematen dituzte.

Niri isurtzen zaizkidan malkoek eta
Minek ez ote du egiazki neure arima larritzen?
Aupa!, haurtxo, zauriz mindua,
Zure alde egingo dut otoitz behar den bezala.

Loiola, 1926ko urtarrila

Arestian aipatutako jai-egun horiez aparte, urtero kantuak eta poesiak errezitatzen ziren Sortzez Garbiaren egunean eta Maiatzaren azken egunean. Ohitura honek luzaro iraun zuen, Marneffe-ko azken epealdi arte bai bederen. Aita Patxi Altunaren (1990, 113-153) bilduman 1914-1937 urte-bitartean eus-

karaz egindakoak jasotzen dira, oraingoan, lehengoez gain, poeten zerrendan izen berri gehiago sartzten direlarik, hala nola Patxi Bolunburu, Fulgentzio Zaldua, Gotzon Martikorena, Erraimun Argarate, Inixio Albisu, H. Yurramendi, Jesus Joaristi, J. L. Olasagasti, Joseba Urrutia, Erroke Zabaleta, Jose Mari Alberdi, Yon Andoni Kolinás Agirrebengoa eta J. Goikoetxea. Jokin Zaitegik bi poema luze ditu, «Neure Amaren Eresia» eta «Urrindik» izenekoak, Oñan eginak 1926 eta 1928ko abenduaren 8an. Lauaxetarena bat bakarrik dator, eta, harriduraren handirako, bera gazteleraz burutua, hau ere Oñan, 1926ko abenduaren 8an, «Noche de la pureza» izenburua daramana. Ez al da bitxia gertatzen, bere ikaskideak euskaraz ari diren bitartean, berak gazteleraz jardutea? Galdera honen gakoa bere horretan utzi eta, goazen aurrera.

3. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

Behin puntu honetara helduz gero, derrigorrezkoa da galdetzea, lehenik, nolako prestakuntza akademikoa lortu ote zuten ikasle gazte haiek eta, bigarrenik, nolako eragina izan zuten orduko ikasketa humanistikoek Lauaxetaren obran. Lehen puntua, oso ertzetik eta orokorrean bada ere, Lauaxetaren curriculumaz jardutean ukitu baitut, bigarrenari helduko diot.

Junioratuan, batez ere, literatura klasikoa aztertzen zuten, tradizioak halakotzat daukana, horien artean, autore greziar eta erromatarrez gain, munduko idazlerik onenak ere irakurri eta iruzkinduz. Zehazkiago esanda, latina, greziera eta hebraierazko ikasketak, autore greko-latinoak –besteak beste, Homero, Demostenes, Sofokles, Virgilio, Horazio eta Zizeron–, Poetika eta Estetika, eta Literaturaren historia, gehienbat Espainiakoa. Hauek ziren oinarrizko ikasgaiak. Bigarren mailakoak, berriz, haien osagarri gisa jai- edo erdi-jai egunetan –ostegun eta igandeetan, batez ere–, ikasten ziren beste hauek: Historia orokorra, Aritmetika eta Geografia, eta hizkuntza modernoren bat. Hala zen Orixeren garaian (Altuna, 1991, 53), baita geroxeago ere Lauaxetaren denboran (Garate, 2003, 11).

Lauaxetaren garaiko ikaskide gehienek eta ondokoek aho batez diotena da, Loiolan irakasle oso onak izan zituztela eta beren prestakuntza akademiakoan eragin nabarmena izan zutela. Jokin Zaitegik (1974, 8) hiru irakasle aipatzen ditu, bakoitzak zer irakasten zuen zehaztuz: «Gainera, irakasle onak izaki, Elade-ko ta Erroma zaarreko idazle, olerkari ta izlariak ongi ezagunak izan genituen: Errandonea-k Kikero, Sofokel, Demostene, Tukidide-ta irakatsi zizkigun; gainera, Shakespeare, Vieira brasildarra, Kolonbia-ko ta Txile-ko izlariak. Estefania-k Bergilli-ren Eneida, Orati, Obidi, Tibul, Propertzi-ta. Orobat erderazko elertia, inglesa, frantsesa, italiarra, alemana, portugesa, katalanerazkoa-ta. Olerkari bakoitzaren lanak irakurtzen zizkigun ugari. Erdal-izlariak, berriz, Luis de Granada, Luis de León, eta itz-lauzko erlijio idazleak barrena Necedal-enganaino irakatsi zizkigun Juanjo Goikoetxea-k».

Beste lekuko batzuek, bereziki eta guztien gainetik, aita Errandonea eta Estefania nabarmentzen dituzte, biak ikasketak atzerrian eginda, letra klasiko zein modernoetan goi-mailako aditu bilakatzen direnak, bakoitza bere sailean eta bere izateko eta irakasteko modu bereziarekin (16). Garai hartan oso gutxi izaten ziren –Nagusiek zuzenean hautatutako banaka batzuk baizik ez–, beren ikasketak egitera norberaren probintziatik kanpo egiten zituztenak. Horietakokak genituen biak, Rufo Mendizabalekin eta beste batzuekin batera. Lauaxetak bere ikasketak Loiolan egiten dituen garaian gero eta gehiago dira irakasle espezializatuak, ordurarte irakasle bakoitzari ikasgai asko ematea tokatzen baitzizaion, askotan ezertan bereziki trebatuta egon gabe.

Lauaxetaren ikasle-taldea Oñara joan eta handik hiru urtera, biak 1929-1930 epealdian irakasle izandako J. I. lekukoak zertan ziren bereziak eta zertan osagarriak ere deskribatzen du. Izaera aldetik, aita Errandonea sutsu eta beroagoa zen, literatura aldetik linguistagoa, edo gramatikariagoa, hots, literatura adierazpenetara emanagoa (17). Honentzat hizkuntza klasikoak sakon eza-gutzea zen garrantzitsuena, horien itzulpen zehatzak egitea, azalpenetan iruzkin filologiko, historiko eta mitologikoak luzatzea. Edertasun artistikoaren sakona, benetan garrantzitsuena den hori, itzalean bezala geratzen da, haren muina dastatzera iritsi gabe. Horrela egitean, ordea, edertasuna formula topiko eta inpersonaletara mugatuta azaltzen da, bitartekoak helburu bihurtuz (18). Humanista handi bat izan zen Errandonea, literatura ildo kulturalistatik birgiratu eta aztertzen zuena.

Aita Estefaniarentzat, aldiz, lehenagokoa zen literatoa den gizakia bera, honek erabiltzen dituen literatur adierazpideak baino. Honentzat bigarren mailako zerbait zen literatur adierazpide desberdinen –irudien, erritmoen edo bes-

(16) «De entre los profesores que yo tuve, las dos eminencias eran el P. Ignacio Errandonea y el P. José M^a Estefanía. No creo que en el ambiente general (de los discípulos hubiera dudas sobre esto. Estos dos profesores, reconocidos cada uno en su propia línea, no se hacían de hecho competencia en su protagonismo educativo en lo humanista, aun cuando conjeturáramos que hubiera podido haber diferencias personales entre ellos» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 16).

(17) «Errandonea era temperamentalmente más fogoso y ardiente. Literariamente era más lingüista, gramático, sintáctico... más dado a las formas literarias de expresión. Reconocíamos su eminencia en el teatro griego, pero tal vez no se lo entendíamos: a mi personalmente me dejaba un poco ajeno su Coro de Sófocles. Podría decirse que Errandonea era un gran humanista en la línea culturalista» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], (1990, 16).

(18) «Errandonea era el gran conocedor de los clásicos latinos y griegos. A lo que juntaba una sensibilidad ática y pariente de la de aquellos, que le permitía calarlos en su más pura belleza. Pero, teniendo todos los valores de sus modelos, le faltaba lo que a ellos: modernidad (...) En los maestros de ellas abundaba la primera de esas dotes y el dominio sobre las lenguas clásicas. La traducción exacta y castiza al castellano centraba prioritariamente la atención. Se añadían comentarios filológicos, históricos, mitológicos. Mientras, la más trascendente belleza artística se quedaba en el transfondo, o se la definía con fórmulas tópicas e impersonales. Esto era una inversión de categorías que convertía los medios en fin (D. G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 155-156).

te hainbat elementuren– edertasuna. Gizakia bera zen interesatzen zitzaiona (19). Aita Estefania, literatur ezagutza zabal eta sakonak zeuzkan norbait izateaz gain, poeta ere bagenuen aldetik, maisu handi bat izateko gaitasunez jantzita zegoen, literatur adierazpideen azpitik eta gainetik dagoen gizaki literarioaren arnasa sentitzeko gai zen (20).

Dena den, bi irakasle horiek estetikari buruz irizpide eta sentikortasun desberdinak zituzten arren, azken batean, beste lekuko batek egoki azpimarratzen duen bezala, osagarriak gertatuko dira, aita Errandonearen klasikotasun greko-latinoari aita Estefaniak modernotasuna eransten baitzion. Irakasleengan ohikoak izaten ez diren bi dohain zituen bere alde aita Estefaniak: adimena eta literatur sena (21). Estefania da, beraz, modernismoaren aitzindaria Loiolako irakasletzan, pedagogia jesuitikoan berritasunaren printzak zabalitzen hasten dena.

3.1. Errandonea

Aita Errandonea Berako semea zen, euskaldun garbia, baina bere amaizkuntza landu ez zuena. Hainbat euskal jakintsurekin gertatu izan den bezala, hari ere, zituen ametsetarako, euskara txikiegi eta txiroegi gertatu zitzaion, noski. Oñan Teologia ikasi aurretik, Kolonbian egindako maisutza-denboran latinezko gramatika argitaratua zuen, argitalpen asko izan zituena. Apaiz-ikasketak bukatzean, Oxford-eko unibertsitatera bidali zuten letra klasikoetan espezializatza eta, Sofokleren antzerkien gainean egindako bere doktore-tesia arrakastaz burutu eta gero, Loiolako irakasletzan ate handitik sartuko da 1922-1923 ikasturtean. Irakasle gisa, ikasgai bat baino gehiago ematen ditu: lehen ikasturtean Literatura eta Latina, eta ondokoetan Erretorika eta Greziera. Bere

(19) «Estefanía pisaba otro terreno, no sé si a nivel más elevado o más bajo, pero distinto. Por lo que recuerdo, la personalidad de Estefanía se centraba mucho más en el hombre que era el literato –fuera poeta o no–, que en las formas literarias que en sus expresiones adoptaba. La belleza literaria de las formas de expresión, de las imágenes, de los ritmos... era algo secundario. Interesaba mucho más el hombre que se expresaba» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna <prest.>, 1990, 16).

(20) «Era, además de gran crítico, hondo poeta o, mejor, su constitución poética le permitía ser un crítico excepcional (...) Poesía, pues, lo necesario para ser un gran maestro» (D.G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

(21) «Errandonea era el gran conocedor de los clásicos latinos y griegos. A lo que juntaba una sensibilidad ática y pariente de la de aquellos, que le permitía calarlos en su más pura belleza. Pero, teniendo todos los valores de sus modelos, le faltaba lo que a ellos: modernidad. Para lo que halló en Estefanía su complemento. Estefanía, al par de un amor a los clásicos, cuya preferencia le venía dictada por su elevado entendimiento, poesía más vasta cultura literaria, abierta a todos los aires. Y para apreciar los valores estéticos, reunía dos facultades que no solían encontrarse juntas en nuestros formadores de letras humanas: inteligencia y temperamento. En los maestros de ellas abundaba la primera de esas dotes y el dominio sobre las lenguas clásicas» (D. G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 155).

irakaskuntzan, klasikotasunaren kontzeptua oso zentzu zabalean erabiliko du, hor barruan sartuz (autore greko-latino klasikoak bezala modernoak ere, bereziki Shakespeare bezalakoak, eta Hego Amerikakoak. Beraz, literatur irakurketaren esparruak asko zabaltzen ditu eta ez da geratzen soilki greziar tragediak azaltzen, horien artean Edipo, Elektra eta Antigona, idatzi izan den bezala (Garate, 2003, 12), nahiz horiek izan sakonen ezagutzen zituenak.

Alemana ondo itzultzen zuen. Ingelesa zer esanik ez, bera izan baitzen ingeles akademiaren buru, lehen aldiz, juniorren ministro eta ikasketen zuzendari egin zutenez geroztik 1922-23 ikasturtetik aurrera. Ordurarte kargu horretan aita Tomas Vicente egon zen, Avilako semea, erlijioso zintzoa baina ez, antza, (irakasle ona. Panama-ra destinatuko dute.

3.2. Estefania

Aita Estefania, Orirexen ikaskidea eta lagun mina, bilbotarra zen, familia abertzale batetik zetorrena. Deustuko unibertsitatean egiten ari zen ikasketak bertan behera utzirik, 1907ko ekainaren 14an iritsi zen Loiolara. Orduan etenda utzitako ikasketa haiek Oñan egindako egonaldian, udako oporretan ikasiz, burutu zituen Salamankako unibertsitatean, Letretako lizentziatura lortuz. Gaitua zelako, 1921eko ikasturte-hasieran Oñatik Holandako Valkenburera bidali zuten Nagusiek falta zitzaizkion azken bi urteko teologi ikasketak egitera. Teologiako hirugarren urtea bukatzean apaiz egitea tokatzen baitzitzaion, Oñara itzuli zen 1922ko udan, baina berriro lehengo lekura joango da azken urtea bukatzera. Hurrengo ikasturtean (1923-1924) «Hirugarren Probantza» egingo du Exaten by Baexen herrian. Loiolara 1924ko ikasturte-hasieran iritsi zen, 36 urterekin, prestatzen 17 urte luze eman ondoren. Hizkuntza klasikoez gain, alemana eta ingelesa ongi ezagutzen zituen, alemana ingelesena baino hobeto; euskara ere ikasi zuen, mintzatzeko erraztasunik gabe, baina irakurtzeko adina bai (22). Bestalde, haren alde asko esaten duen alderdia da hau, euskaldunak euskaraz idaztera bultzatu zituen. Ezin daiteke horrelakorik esan Errandoneaz, alderantzizkoa areago baina, beste nonbait zehaztuko dugun bezala.

Loiolara etorrita, 1924-1925 ikasturtean, Literaturaren historia –Orokorra eta Espainiako–, (irakasten die erretorikoei, lehen urtea egiten 19 ikasle dituelarik, horien artean Lauaxeta. Aleman akademiaren buru ere bera izendatzen dute, ordurarte Rufo Mendizabalen esku egon zena. Bere garaiko ikasle lekukoek diotena da, irakasle biziki ona zela. Europako literatura nagusiak

(22) «Sabíamos que él mismo hablaba con dificultad su euskera» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990., 162). A. C. lekukoak ere antzeko zerbait esaten du: «Por otro lado, aunque no dominaba el euskera hablado, recuerdo cómo nos hizo conocer el poema de Lizardi “Xabiartxo”ren eriotza» (Patxi Altuna [prest.], 1990, 165).

menderatzen omen zituen, nola klasikoak hala modernoak; baita, euskal literatura eta katalana, edo okzitanoa bezala, baztertuak zirenak ere (Altuna, 1990, 158; 164). Ez Jokin Zaitetik bakarrik, Andima Ibinagabeitiak ere, Gabino Garrigari 1957-12-20an egindako gutunean, men handia aitortzen dio irakasleari. Honen aipua zehatzagoa da azaltzen zituen autoreak izendatzeko orduan: «Estefania-Zabala-tar Joseba Mirena Aba zan gure elerti irakasle, bai Españielertiarena baita mundukoarena ere. Ez genezakean ukan irakasle pin, zintzo, zorrotz eta iakitunagorik sail ortan. Ark zabaldu zizkigun Rusi, Poloni, England, Prantze ta Alemaniako literaturaren ateak. Orduan ezagutu genitun Andreiew, Mieckewitz, Uhland, Heine, Goethe, Verlaine eta abar e.a. Ark iarri gindun modernisten urratsetan ere zegokion artista esku-ikutu ahanzi-eziñiez (...) Ertilari ta idazle bikaiñ zan ark, ez zun iñungo literaturarik baztertzen, eta berak erakusi zizkigun katalandar literaturaren ondasunak, baita euskal-literaturarenak ere. Kataluña-ko olerkariak maite zitun Estefania Abak eta beregandik iritxi gendun Verdaguer, Costa i Llobera, Alcover, Mestres, Gimera eta batez ere Maragall aundiaren ezagupen zintzoa. Estefania irakasle maite hura Aberriaren-martiri il zan» (23). Baina bera gehien lilurutzen zuena, izan, literatura alemana zen, hango poesia epikoa eta, bereziki, lirikoa. Goethe-ren espezialista zen. Eskolan askotan aipatzen omen zien Eichendorff eta honen pasarteak irakurtzen (24). Bere liburutegian alemanezko liburu asko aurkitzen omen ziren; Espainiako literaturan, Peredaren pasarteak ere bai (25). Literatura apalagoetan, besteok ziren bere hautatuak: Verdarguer, Maragall, Costa i Llobera, Alcover, Mestres, Gimera, Federico Mistral, eta urrutiko literaturetan, Petöfi eta Jokai hungariarrak, eta Kalidasa indiarra (26). Euskal literaturaren baranoan –Estefaniarentzat euskaraz nahiz gaztelaniaz egindakoak halakotzat hartzekoak ziren–, Antonio Trueba, Ramon Basterra, Iturribarria, José M^a Salaverria, Unamuno, Orixe eta Lizardi zitzaizkion gogokoenak. Schiller eta Orixe poeten artean kidetasunak ikusten zituen. Tagore, erabiltzen zituen gaiengatik eta idazteko moduagatik, Orixe bezain euskalduna iruditzen zitzaion. Eskolan sarritan irakurtzen omen zizkien Orixeren poesi zati batzuk (27), inoiz Lizardiren «Xabierto'ren eriotza» poema ere bai (28); batzuetan baita Lauaxetaren poesiak ere, beren gaztelaniazko bertsioan (29).

Estefaniaren zerrenda hautatu horietan nortzuk agertzen diren ikusita, bistan da, ikasleengan eragin handia izan zuela. Orduan jasotako ezagutzengatik izan ez balitz, Jokin Zaitegi batek, adibidez, ez bide zituen euskaratuta argitarara emango *Euzko-Gogoa* aldizkarian Uhland, Eichendorff, Sully-Proudhom-

(23) Andima Ibinagabeitiaren aipua, in Iñigo Ruiz Arzallus, «Sarrera», 1992, IX.

(24) J. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 167.

(25) D. G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156.

(26) D. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 163-164.

(27) D. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 163.

(28) A. C. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 165.

(29) I. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 169.

me, Pascoli eta Costa i Llobera baten poesiak. Era berean, Lauaxetak ez zituen ezagutuko Baudelaire eta Verlaine bezalako sinbolistak, nahiz azken honi ezkerreko begiarekin begiratzen zion, fedegabea omen zelako, garai hartan Estefania bezalako erlijioso zintzo batentzat zerbait serioa zena.

Hara hor, bada, bi irakasle handi, literaturaren irakaskuntzan bi ildo jorratzen dituztenak: batetik, klasikotasuna, jesuiten ohiko pedagogiari lotuagoa, eta, bestetik, modernotasuna, literatur pentsamenduan berrikuntzaren inflexio-puntu gisa har zitekeena, batez ere, garai hartako Loiolako ikastetxe kontserbadore batean. Aukerak aukera, orduan gehienek autore greko-latinoak euskaratzeko erabakia hartu zutela, dio Zaitetik, nahiz xede horri lotu zitzaizkion bakarrak Jokin bera eta Andima izan: «Andimak Bergili aukeratu zuen eta nik Sopokel» (30). Lauaxetak, aldiz, nabarmenki bere bizitza laikoan egindako poesian, azken garaietako poetikaren aldeko hautua egiten du, bere begirada horixe sinbolismoaren eta erromantizismoaren artean kokatzen delarik. Bi irakasle horien eragina, beraz, ezkutuazina da.

3.3. Beste irakasle batzuen itzala

Baina bi horiek ote dira Loiolako irakasletzan nabarmentzen ziren bakarrak? Gehiago ere baziren, maila apalagoan bada ere, beren itzala utziko dutenak.

Horietako bat, Zeanuriko aita Joan I. Goikoetxea izan zen, hau ere aita Estefania bezala Loiolara 1924ko ikasturtean joan zena, ondoko lau ikasgai hauek emateko ardurarekin: Erretorika, Greziera, Geometria eta Aritmetika. Beste lekukoek ez, baina Jokin Zaitetik (1974, 8) esplizituki dakar honen izena, Literaturako eskolan zer erakusten zien zehaztuz, hasierako testu hartan aipatu bezala. Euskaltzalea zelako bakarrik ote? Ez dirudi aski arrazoi izango zenik hori irakasle ontzat hartua izan zedin.

Bestea, aita Rufo Mendizabal donostiarra genuen, Lauaxeta Erdi-Mailako Gramatika ikasten hasitako ikasturtean (1922-23), Latina eta Hebraiera irakasten zituena. Gramatikari trebea zen, hainbat argitalpenen egilea hizkuntzaren sailean. Lagundian errektore gisa edo probintzia zaharreko probintzial bezala gobernu-zereginak bete behar izanak, ordea, maila batean bere irakasle-gaitasuna murriztuta utzi zuen. Alemanian egona baitzen, denboraldi batez –Errandonea etorri arte–, bera izango da aleman akademiaren buru, eta ikasle batzuk berarekin hasi ziren alemana ikasten ostegunetan eta opor-egun txikitetan. Leon Lopetegik (1990, 103) bere *Diario*-n dakarrenez, ez zekien euskararik, hitz solte batzuk besterik, baina ez omen zen hura lantzearen kontrakoa ere.

(30) Zaitegiren aipua, in Velez de Mendizabal, 1981, 39.

4. JESUITEN PEDAGOGI BERRIKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Jesuiten pedagogi berrikuntzaren ezaugarriez jardutean, Loiolako irakasleen taldea, lauko edo bosteko batek osatua bada ere, hemen aita Errandonea eta Estefaniar arituko naiz, hauek baitira, Loiolara iristean, bertako curriculum berrikuntza aipagarri batzuk egin zituztenak, berriro esanda, bakoitzak bere modura eta bere alorrean.

Aita Errandoneari dagokionez, pedagogia jesuitikoan funtsezkoa den greziar humanismoan espezializatutakoaren ohorez zetorren zuzendari berri honek, hasteko, ordurarteko irakaskuntzaren norabidean aldaketak egingo ditu. Aita Lopetegik (1990, 103) hiru berrikuntz mota bederen aipatzen ditu. Lehenik, antolaketaren mailan, gaiak zabaltasun gehiagoz landu ahal izateko, klaseen iraupena luzatu egiten du, gai batzuetan birekin bat eginez. Bigarrenik, didaktikaren mailan, testuak buruz ikasi ordez, gaiak hausnartzera bultzatzen ditu ikasleak, ordurarteko memorismoarekin hautsiz. Hirugarrenik, motibazio eta espektatiben mailan, idealak gaztetatik landu eta etorkizunari begira proiektu handiak egitera bideratzen ditu, baina bakoitzari ondoen dagozkion eta neurriko zaizkion gauza txikietatik hasita. Ikasketetan egindako berrikuntza honek bere eragina izango du berarekin eskolatzen den euskaltzale-talde honengan, kultur proiektu bat eraikitzeko gogoaz pizten baiti⁰ eta berehalakoan lanean hastera bultzatzen baitu. Autore greko-latino klasikoak euskaratzeko hartzen duen erabakiak hor luke bere sorburua. Xede hau zein neurritan betetzen duen, besterik da. Jokin Zaitetik (1974, 8), «ontan porrot egin genuen nolarebait» badio ere, zalantzarik ez da orduko ikasle euskaltzale haiek urrats galanta eman zutela, euskararen etorkizuna kultura landuaren bidetan jarri baitzuten. Ezaugarri hau izango da, nagusiki hau, jesuiten eskola ordurarteko beste guztietatik bereiziko duena. Halere, aita Errandonearen berrikuntza honen mugarik handiena, klasikotasunean geratzen dela izanen da, literatura, bere adierazpen formaletik harago, ez baitu historiaren joan-etorriek busti eta mantxatutako kolorez tindatzen, ez hezur-haragiz janzen, ez haren gorputza arimaren sukarez berotzen. Harenean kontakizuna ahistoriko bihurtzen da. Horixe da, hain zuzen, Emile Durkheim-ek jesuiten pedagogia klasikoaz egiten duen irakurketa bere *L'évolution pédagogique en France* (1938) histori saio bikainean, jadanik aztertua dudana *Orixen eta bere garaia* (1991, 303-336) liburuan. Durkheim-ek esana berretsi egiten da Errandonearen erudian, baita, neurri handi batean, Orixeren estetikan ere.

Aita Estefaniari dagokionez, esan behar da berari beste hainbat ekarpen zor zaizkiola. Lehenik, antzinako eskola klasikoari ukorik egin gabe, horren osagarri gisa, modernotasunari ere atea zabaltasunez irekitzen dizkio, moderno klasikotzat har zitezkeen hainbat autoreri sarbidea emanez. Noski, berak bere gogokoak hautatuko ditu, baina irizpidea jadanik ezarria dago. Berrikuntza hau zerbait funtsezkoa da pedagogia jesuitikoaren historian zehar, zalantzarik gabe, aro berri bati hasiera ematen diona. Lauaxetaren estetika-ere-

duak, hain zuzen, bere maisuaren irizpide eta jokabide honetan du bere oinarria eta bera izanen da seguru asko bere garaiko euskal idazleetatik modernotasunari gehien atxikiko zaiona. Zaitegi, adibidez, lotuago zaio klasikotasunari. Bigarrenik, didaktika-mailan, irakaskuntza klasikoan nagusitzen zen ereduan ez bezala, ikasgelan, ez irakasle orjakitunaren autoritateak, baizik ikaslearen behaketak du lehen hitza. Haren eta honen literatur pasarteak irakurri ondoren, lehenik ikasleari galdegiten zaio zer pentsatzen duen, nola baloratzen duen; gero etorriko dira irakaslearen ohar osagarriak, zuzenketak, eta gaineratiko zehaztapenak (31). Ikasleak harriturik bezala omen zeuden irakaslearen metodo horrekin. Behin batez, literatur egileen idazlanak azaldu ordez, ikasleak zergatik bideratzen zituen haien testu hautatuak zuzenean irakurtzera galdetu zion ikasle bati, erantzun zion esanez euskaldunentzat metodo hori zela onena eta horregatik egiten zuela horrela (32). Eta hirugarrenik, pedagogian betiko ezaugarria izan den eta egun ere orokorrean baliogarritzat jotzen den beste elementu bat ere oso ondo zainduko du aita Estefaniak, zeina ikasle baikoitzarenganako arreta pertsonalizatua izatean baitatza, bereziki eskolaz kanpoko orduetan, zaletuak bere gelan hartuz eta horrela (33).

Lauaxetarengana etorrira, pedagogia jesuitikoaren baitan bi irakasle horiek egindako ekarpenak aurrean, ohar batzuk egingo nituzke:

Lehenik, Lauaxetaren poetika gehienbat adierazpen formalaren lanketan oinarritzen baita, bereziki sinbolistan, alde horretatik begiratuta esan dezakegula uste dut, poeta modernoa dela eta bere garaian euskal literaturari berritu ederra eman ziola, Europako literatur korrante desberdinak ekarriz; baina meritua izan, berak adina edo agian gehiago, bere irakasleak duela, ezagutarazlea eta eragilea bera izan zelako.

Bigarrenik, Estefaniak aldarrikatu bezala, Lauaxeta poetaren osinean Lauaxeta gizona aurkitzen dela, noiz nostalgikoa, noiz minbera, noiz kolpatua, gartzela-denboran egindako poema guztietan islatzen den bezala. Bestela esanda, poeta sinbolistaren ondoan edo, zuzenago esanda, hondoan poeta exis-

(31) «Sería primero el alumno quien por escrito expresara su apreciación comparativa. Después el maestro con sus hondas observaciones, en frases tan concisas como felices que enseñaban a un tiempo a mirar, y a expresar la belleza (...) Con formadores de su talla pienso abundarían más entre nosotros las grandes figuras de la poesía y de la literatura. No olvidar que de su contacto y de mi curso salieron Urquiaga y Zaitegui, a los que no creo fuesen inferiores en virtudes literarias otros posteriores que no se lograron» (D. G. lekukoaren aipua., in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

(32) «Y él me contestó que dada nuestra manera de ser y formación creía que era mucho mejor para nosotros los euskaldunes el avanzar por los caminos que él nos mostraba» (D. G. lekukoaren aipua., in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

(33) «Poesía, pues, lo necesario para ser un gran maestro. Pero no todos los así dotados lo son. Y él lo era, porque a sus cualidades personales añadía la de la consagración y la del saber enseñar, tanto en el aula como en el cuarto» (D. G. lekukoaren aipua., in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

tentzialista ikusten dut, mila zalantzaren artean estekatua. Alderdi honetatik begiratuta ere, badu antzik bere maisuarekin.

Hirugarrenik, Orixeren klasikotasunari Lauaxetaren modernotasuna kontrajarri izan zaio. Eta hau esatean, ikusten edo sentitzen bezala nago Errandonea eta Estefaniaren arteko kontrapuntua. Bi hauen artean osagarritasunaren elementua ezarri beharra dagoelakoan nago, diferentzia honekin ordean: Lauaxetak, antzinako autoreengandik harago, klasikotasunaren zerrenda askoz gehiago luzatzen duela, Orixeren kritikari erantzunez egindako artikuluetan agertzen den bezala. Hor, Orixek aipatzen dituen Dabid eta Fr. Luis Leon-goaz gain, klasiko garbitzat dauzka moderno hauek ere: Frantzian A. M. Chénier, Valéry; Baudelaire; Italian, Foscolo, Leopardi eta Carducci; Alemanian, Goethe, Novalis eta Hölderlin; Ingalaterran, John Keats; Katalunian Maragall, Costa i Llovera, eta abar.

Gai hau lehendik ere aztertua baitut *Orixe eta bere garaia* lanean (1991, 670-680), ez noa deus gehiago eranstera, galdera hau luzatzera baino: Lauaxetak dakartzan autore horiek ez al dira, bada, Estefaniak beren ikasleei azaltzen zizkienak? Eraginez ari garenez, hemen esango dudak bakarra da, klasikotasunaren kategoria zein autore modernori aplika dakioken eztabaida erdi-antzua alde batera utzita, Lauaxetak aurkezten duen autore-hautaketa horren atzean, berriro ere, aita Estefania aurkitzen dela. Artikulu horietako pasarte batean bere izena espreski aipatuz dakarren bezala, bera du literatur irizpideetan gidari, berak aditu du ondoenik bere poesiaren muina: «Neure olerkietan ondoen irakurri dauana, Estefania abea. Aren iritzia nere kutxan daukot. Ez *Razón y Fé* aldizkingian argitaldu ebana. Aren ondoan sakona neuri bialdua. Olerkiz olerki aztertuten dauz. Irizketa orretan ondo igarten dau Estefania abeak, batzutan neure gogoak bake giroan zala, beste batzutan, barriz, larri. Ordu bakoitzari zor jakozan bertsoak urtetan jatazan» (Lauaxeta, 1982, 138). Lauaxeta gaztea ikasle izanda, iraskaleak arrazoi guztiak zeuzkan haren poetika bere osotasunean ikusi eta baloratzeko, kontuan hartuz, ez bakarrik aldiari aldiko adierazpen formalak –noiz zapore garratzekoak, noiz gozoak, noiz milinga-itxurakoak izan zitezkeenak–, baita poetaren barne-giroa ere. Maisuarentzat, arestian esana denez, literatoaren azpian ezkututzen den gizasemea da garrantzitsuena. Eta Estefaniak Lauaxeta baitan gehien estimatzen duena, agian, izan bide daiteke haren lumari darion artegatasuna, darabilan hizkuntza sinbolista baino gehiago.

Laugarrenik, Orixek, inoiz, manierismoaren ukitua ikusi bide zuen Lauaxetaren poetikan, zehazki Carducci-ri eskainitako «Palankari bati» poeman (1932). Orixek ere badu *Euskaldunak* liburuan (1950, 45-57) «Satsi edo balanka» izeneko poema, gai beraren inguruan jorratua. Bistan da, biak garai bertukoak izanik ere, bakoitzak ematen dion trataera poetikoa arras desberdina dela, Orixerena deskriptiboa, artean Euskal Herriko nekazal gizarteko festa-giroan ospatu ohi ziren herri-jokoetan oinarritzen dena; eta Lauaxetarena, aldiz, ahistoriko eta inpersonala, Greziako gazte batengan idealizatzen dena. Lehe-

nari ahats partikularra dario, bertakoa izateak duen hurbiltasuna; bigarrenak, aldiz, janzkera unibertsala du, eta nonahikoa izateak leku batetik bestera, noiz-nongoez haraindi, hegaldi askeak egiteko parada ematen duena. Ez zait iruditzen, ordea, hegaldi hau hitz-joko hutsen haizeak daraman zerbait denik, amaneratua denik, bere mezua baduena baizik. Izan ere, gazte palankari hori ezartzen baitu poetak greziar esklabuak kateetatik askatu dituen sinbolo bezala. Gazte horren palanka izango da, bere jaurtiketan, urdina zulatu eta herriari askatasun-kezka itsasiko diona. Honela bukatzen du:

«Urrin jaurti nai yoguk endaren azkura,
palanka orrek legez oztiñak urratzen».

Jatorrizkoa bezain garden, edo gardenago, ematen du gaztelerazko itzulpena:

«Lejos anhelamos lanzar la inquietud de la raza
como esa palanca, rompiendo el azul».

Poema honetan, urrutiko diskurtso-mota unibertsaletik abiatuta, azkenean, oso labur bada ere, Euskal Herriak daraman borrokaren geroa iradokitzen bezala da, palankariaren egitekoa bideak urratzean zehazten da, zerbait konkretu eta lokalizatuan. Orixeren poemaren kasuan, aldiz, deskribaketaren prozesua justu alderantzizkoa da: dana euskal lurraldean gertatzen da, protagonistak bertakoak dira, horko herri desberdinetan jokatzeko dute, elkarren artean ezagutzen dira. Dena festa-egun batean, herriko plazan, begira bageunde bezala hasi eta burutzen da. Ez da partikularretik unibertsalerako jauzirik ematen. Bi joera hauek, ertzeramanez gero, beren arriskuak dituzte: hizkuntza unibertsalak abstrakzioarena, ezer konkreturi lotzen ez zaionari dagokiona; lokalismoak, berriz, folklorismoarena, giza pasioek bizitza arruntean duten leku kontaktuzuean ez agertzean zehazten dena.

Nolanahi ere, hizkuntza poetikoan molde klasikoak ala modernoak erabili, bada sakonagoko beste maila bat ere, zeinetan, irudimenaren mundua norberaren bizipenekin nahasten den muga ilun horretan, literatoa den gizakiaren baitan bere barne-mintzoa nagusitzen baita eta darion hizkuntza bero-beroa baita, oso hurbilekoa, begiak erre eta bihotza mintzen dituen horietakoa. Lauaxetarenean dimentsio poetiko hau ere oso presente dago, batez ere, kartzeladendboran egindakoetan. Poesia horietan ere, beste behin, ezin da ez ikusi Es-tefaniak hainbeste maite eta laudatu izan zuen poetaren giza dimentsioa.

5. EUSKALTZALETASUNAREN ERAGILEAK LAGUNDIAN

Lehen ere egina izan da aipamena, Lauaxetaren Lagundia uzteko arrazioez jardutean. Berrito puntu berberera gatoz, baina hemen ikasle jesuita batzuen artean loratu eta antolatzen den euskaltzaletasunak bere hurbileko sus-

traiak non dituen aztertuko da. Beren izena anonimatuan gordetzen duten garai hartako lekukoek kolore desberdinetako iritziak eman dituzte. Loiolako komunitatean, Lauaxetak bere ikasketak egin zituen garai hartan –arteana Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadura indarrean zegoen garaian, alegia–, ez zegoen euskararen kontrako jarrerarik, ezta aldekorik ere (34). Ikasleen artean ere, beren etxeetatik zekarten pentsakeraren arabera, kolore denetakoak aurki omen zitezkeen: nor karlista, nor bizkaitarra, nor liberal-zentralista (35). Orokorrean, ordea, euskaldunak gutxiengo-egoeran aurkitzen ziren, hor barruan sartuta, nahiz jatorriz euskaldunak izan, euskara erabiltzen ez zutenak ere, orduan horrelakoak baziren eta. Baina euskaldunek Junioratuan gutxiengoa osatzen zuten, beste arrazoien artean, kanpotik –Burgos, Logroño, Segoviatik eta–, etortitako hainbat ikasle zeudelako han Loiolan (36). Orobat, Lauaxeta Oñara joaten den garaian, atzerrikoek hemen ere talde potoloa osatzen zuten, bertan iparramerikarrak, hispanoamerikarrak, portugesak eta alemanak aurkitzen baitziren (Lopetegi, 1990, 109).

Aurrera baino lehen, hiztegi-oharno bat: Euskaltzaleak esatean, euskara jakin, maitatu eta erabiltzen dutenak dira halakotzat hartzen; hemen, jakina. Loiolako komunitateko euskaltzaleen artean, hiru multzo bereiz zitezkeen Lauaxetak bertan egindako (epealdian zehar: batetik, beren apostoladutzan euskaraz jarduten zuten apaiz jesuitak, bestetik, irakaskuntzan zihardutenak eta, azkenik, soilik edo gehienbat euskarari emanak zeudenak.

Aita Lopetegi da gai honetan gehien sakontzen duena eta, honen ustez, Loiolako komunitatekoen euskaltzaletasunean eragina izan zuten faktore soziopolitiko eta kulturalak aipatzean, Lagundiari kanpokoak zaizkionak eta barrukoak bereizten ditu.

Kanpokoaren artean, nazioarteko mailan, Lehen Mundu-Gerra (1914-1918) eta, oraindik modu argiago batez, Errusiako Iraultzakoan planteatutako nazionalitateen printzipioa nabarmentzen da, kasu batzuetan praktikara eraman zena, orduan berrantolatatu baitzen Europako mapa geopolitikoa, lurralde batzuetan estatu berri batzuk sortuz. Europan ekialdera zein mendebaldera zabaltzen den nazio-mugimendu honek bere oihartzuna Euskal Herrian ere izango du, orduan haizatzen baitira hemen errebindikazio nazionalistak. EAJko ordezkari batzuek, modu sinbolikoan izango bada ere, 1918ko urriaren 15ean telegrama bat zuzentzen diote Wilson iparramerikar lehendakariari, Versailles-

(34) «Dentro de la Comunidad no existía una actitud “anti” contra el euskara. Tampoco se veía un gran trabajo a favor» (A. C. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 164).

(35) «También era parte integrante de nuestro ambiente la composición humana de nuestro grupo escolar: por procedencias familiares, podían connotarse mentalizaciones en la línea carlista, o en la bizkaitarra, o quizás en la liberal-centralista. En lo lingüístico éramos minoría los vascos-parlantes, aun contando a aquellos, no raros entonces, quienes procedentes de familias vasco-parlantes, habían abandonado ya el uso del euskera» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 159).

(36) J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna <prest.>, 1990, 162.

era, nazio bakoitzak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidearen aldeko aldarrikapena eginez. Euforia nazionalistaren garaia zen hura, antza, euskal jesuiten artean ere bere eragina izan zuena.

Euskal Herrian, maila kulturalera etorrira, Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren sorrera daukagu, hau ere urte berean gauzatzen dena, udako ikastaroetan, zeinetan lehen aldiz elkartuko baitira pentsakeraz eta politikaz joera desberdinekoak diren Iparraldeko zein Hegoaldeko euskaltzaleak euskal kulturaren eta euskararen aldeko proiektu komun baten inguruan, nahiz eta orduan ere, egiazki euskaltzaleak izan, karlista eta maurista gutxi batzuen alboan, gehienak EAJko nazionalistak izango diren. Komunitate erlijiosoan aldetik, kaputxinoekin batera, jesuitak dira bazkide gisa gehien babesten dutenak, zehazki Donostia, Azpeitia, Tuteran, Deustu eta Orduñako etxeak (Estornes Zubizarreta, 1983, 54). Erakunde honen zuzeneko emaitza goiztiarra da, halaber, Euskaltzaindiaren gorputzea ere, eta haste-hastetik euskaltzain izendatua izango da aita Erraimun Olabide gazteitar euskaldunberria, ordurako hainbat lan burutuak zituena, bereziki itzulpenetan, besteak beste, *Kisto'ren antz-bidea* eta *Giza-soiña*. Jesuitek bazuten, beraz, Lagundiari ohorea zekarkion norbait erakunde berri honetan sartuta. Horregatik, European nazio-eskubideak aldarrikatu zirelako eta, aldi bertsuan, Euskal Herrian kultur eta hizkuntz erakunde berri horiek sortu eta bideratu zirelako, kanpo-eragin honi esker, hain zuzen, euskaltzaletasuna jesuiten pedagogian zein apostolutzan areagotuz etorriko da euskararen gizarte-ospea handitzen joan ahala.

Barruko faktoreei dagokionez, Gaztelako eta Leon-go probintzien arteko banantzea da guztiz aipatu beharrekoa, hau ere 1918ko martxoaren 12an gertatzen dena, Orixe Carrión de los Condes-en laugarren zigor-urtea egiten ari zela, hain zuzen. Banantze hartatik Aragoi eta Gaztelako probintziak sortu baitziren, hemengo gehienak euskaldunak izaki, euskarak ere gero eta babes gehiago izango du maila instituzionalean. Aita Lopetegi historialariak (1990, 104) dioenez, erabaki honek euskaltzaletasunean bere eragina izan zuen, zeren, nahiz eta Gaztelako probintzia Espainia osoan zehar banatua egon eta berdin Hego Amerikan (37), ez izenez, baina bai gertatzez, euskal probintzia bihurtu baitzen, gehienak –gutzizko kopuruaren bostetik lau–, euskaldunak zirelako. Eta honek, jakina, gazte nahiz zaharren ikuspegi-aldaketa nabarmena ekarri zuen, baina, bere ustez, barruan kutsu politikorik ez zeramana. Lekuko honentzat, geroago aipatuko den *Ami vasco* liburuxkoaren inguruan gertatutakoa, adibidez, diziplina-arazo bat besterik ez zen izan –isilpeko zabalkundea-

(37) Beraz, 1918ko banaketa honetan bi probintzian antolatzen dira jesuitak: batetik Gaztelakoa deituan, hemen sartzen direlarik, penintsulari dagokionez, Euskal Probintziak, Nafarroa, Burgos, Logroño, Soria, Segovia, Avila, gehi Kanariar Irlak, gehi Kolonbia, (Venezuela, Panama eta Txinako etxeak; bestetik, Aragoiko (probintzia jesuitikoan, penintsulan Alikante, Katalunia, Aragoi, Valentzia eta Balearrak, gehi Bonbay-ko etxeak eta Filipinetakoak (*Catalogus provinciae Castellanae*, Oniae, 1919).

ri zegokiona, alegia-, ez inola ere ideologi mailako zentsura-neurriaren ondorio bat (38).

Probintzien arteko banantzearen ondotik eta seguru asko honi lotuta, zuzenean Erromatik datorren jokabide berria da aipatzekoa, (euskararen aldekoa suertatzen dena. Izan ere, aita Pietro Boetto bisitatzailak 1921ean Gaztelako probintziara egindako ikustaldian euskararen sustapenari babes ofiziala ematen dio, urrats garrantzitsua benetan, euskara bertako hizkuntza dela idazten baitu bere Oroitza-Txostenean. Nolahani ere, euskararen tradizioa ez zegoen erabat etenda euskal probintzietan, *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkaria, adibidez, Bilbon argitaratzen baita jadanik 1917an hasita, arestian aipatutako gertaera horiek baino urtebete lehenago.

Bi gertakari horien ondorio bezala, jesuitek beren euskaltzaletasunaren eboluzioa barrutik begiratuta azaltzen duten ikuspegiaren arabera, euskarak bazuen bere onarpena 1920ko hamarkada-hasieran, nolabait esateko ofizialtzat har zitekeena. Honen froga da euskal akademiak egoera berri horretan botatzen dituela bere sustraiak eta izaera instituzionala hartzen duela, bi ikasturte lehenago Oñan Loiolan baino. Han Orixe izango da, hain zuzen, euskal akademiaren lehen prefektua, zeina 1920-1921 ikasturtearen barruan finkatzen baita, berak Teologiako lehen urtea egiten duen urtean. Handik bi urtera, 1922-1923 ikasturtean, ezarriko da Loiolan, aita Frantzisko Apalategi buru dela.

Arestian aztertutako testuinguru horren barruan, bi euskal akademia horien sorrerak badu bere esanahi berezia, eta da, urteroko Gaztelako probintziako Katalogo Ofizialean agertzen den bezala, ohiko hizkuntza klasikoei –zehazkiago esanda, greziera, latina eta hebraierari–, ematen zitzaizela erabateko garrantzia eta hizkuntza modernoak, gizartean eta mundu zientifikoan eragin gehien zutenak, osagarriak baino ez zirela. Honela, Oñan euskal akademia ezartzen den ikasturtean, artean ikasle teologoak ziren alemana, ingelesa, frantsesa eta txineraren akademiak zuzentzen zituztenak. Lauaxetaren Loiolako egonaldian, aldiz, irakasle adituak aurkitzen ditugu horien buru: Errandonea ingelesarena, Dionisio Goikoetxea frantsesarena, lehenik Mendizabal eta gero Estefania alemanarena, etab. Euskara bertakoa delako eta apostoladutzarako beharrezkoa, xede espezifiko horri erantzuteko sortu omen zen euskal akademia, hots, euskaldunentzat, sermoiak euskaraz egoki egiteko presta zitezten (39).

(38) «Muchos lo atribuían a política (hemen probintziak banantzearen ondoko giroaz ari da), pero poco a poco se fue imponiendo el buen sentido, y no hubo choques ni incidentes especiales ni en Oña ni en Loyola, aunque aún hubiera cierta rigidez de criterio para permitir la lectura de determinados libros. Esto hizo que el P. Joaquín Zaitegui, por ej., tuviera alguna dificultad poco después con el P. Ignacio Errandonea, que era el Ministro o Director de los Retóricos en Loyola, pero no tanto por la ideología del libro de un capuchino navarro, cuanto por la falta de disciplina de hacer circular clandestinamente tal libro entre sus compañeros» (Lopetegi, in Patxi Altuna <prest.>, 1990, 102).

(39) «Y los que lo cultivaban era “para predicar”. Es decir, el idioma en sí no valía la pena de ser estudiado» (A. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 168).

Baina horretarako eta gehiagorako ere bazen akademia hori, ikasle gazte haienztzat bederen, bai, hauen asmoa, zinezkoa eta sakona, kultura greko-latinoa euskaraz ematea baitzen, horien geroko emaitzek erakusten duten bezala.

Aita P. Boettok Loiolako bere ikustaldia egin eta hurrengo urtean izendatzen dute Loiolan euskal akademiaren lehendakari aita Apalategi historialari aipatua, donostiarra, Xabier Zubiri filosofoaren osaba, probintzien arteko banantzea burutzean Valladolid-eko ikastetxetik etorri zena. Bera izango da irakasleen artean, ikasle gazteengandik hurbil bizi eta euskaltzaletasuna kutsatuko diena. Historia unibertsala eta Espainiakoa irakasten zituen, Artearen historia eta Aritmetikaren hastapenak. Horretaz aparte, bibliotekaria era bazen. Euskal akademia zenbait urtez –1926. urtea arte bederen bai–, zuzendu zuen eta bertan euskal aditza azaltzen eta eskola-ariketa batzuk egiten jardun zuen, behar bezala erabilia izan zedin. Bere eginkizun honetan aita Olabidek lagundu zion, ordurako landua baitzuen berak (*nor*, *nor-nori*, *nor-nork* eta *nor-norinork* eskema laukoitza, gero, zerbait aldatuta, Patxi Kortak hobetu eta argitaratu zuena Oñako egonaldian (Altuna, 1990, 23). Hemen oparoa izan zen euskal akademia honen emaitza, 1930ean Uranga jesuitak Donostian emandako hitzaldi batean azaltzen duen bezala (40).

Nolanahi ere, Loiolako euskal akademiaren sorreraz, izaeraz eta taldeki-deez denetarik irakurtzen baita, komeni da ohar batzuk egitea. Pako Sodupe, Iñaki Goenaga Alberdiri egindako elkarrizketa batean oinarrituta, euskal akademiaren sorrera 1923an kokatzen du, zeina, gainera, ikasle-talde batek gidatzen baitu, Jokin Zaitegi buru eta Andima Ibinagabeitia idazkari direla (41). Gotzon Garatek (42) ere, ildo bertsutik, juniorrek sortu zutela, dio, aita Apalategi zuzendari eta aita Estefania laguntzaile zituztela. Baliteke hala izatea, ikasle euskaltzaleek beren aktibismo militantearekin protagonismoa izatea, alegia; baina ezin ukatuko da, lehendakariaren babes ofizialaz gain, honen irakasle-lana ere, goian aipatu dena. Horretaz gain, osoki euskaltzale izaki, aita Apalategi ikasleei beti euskaraz egiten zien horietakoa zen, nola eta haiekien elkartzean erdaldunen bat ez zen tartekatzen. Euskal Herriaren egoera politi-

(40) Oña-ko jesuita batek Donostian 1930ean Bitor Garitaonaindiari egindako omenaldian adierazten duen bezala, martxan jarria daukate «Euskal-Ele-Bazkuna» deitua. Oña-ko Joseba Uranga jesuitak Elkarte horren berri eman zuen Donostian 1930eko apirilaren 23an, Bitor Garitaonaindiaren omenez irakurritako hitzaldian. Garai hartan, Oña-ko Ikastetxe Nagusian 270 jesuita bizi ziren, ikastera lurralde desberdinetatik etorriak, hala nola: Kolombia, Venezuela, Peru, Argentina, Estatu Batuetatik. Gehienak, hala ere, Penintsulakoak dira eta, hemen, batez ere, Euskal Herrikoak. Astero bi aldiz batzartzen dira, noberak egindako lanak aztertzeko. Lanerako liburutegi hornitua daukate, baita euskarazkoa ere. Zortzi euskal aldizkari hartzen dituzte («Oña'ko Euskal-Ele-Bazkuna», *Euskal-Esnalea*, 317, 1930, 85-90).

(41) «Euskal Akademiak antolatua zuten Loiolako apaizgaitegian, hortxe 1923-1926 urteetan, Jokin Zaitegi buru, Andima Ibinagabeitia idazkari esango dugu, Plazido Mujika, Argarate, Sarobe, Lauaxeta, Korta anaiak eta Iñaki Goenagak-eta» (Sodupe, (2005).

(42) «Apalategi zuzendari zutela eta Estefania laguntzaile, 1923ana Academia Vasca sortu zuten juniorrek. Euskara lantzeko elkartearen» (Garate, 2003, 12).

koaz nahiz kulturalaz, bereziki Euskal Ikaskuntzak egiten zuenaz, ongi jabe-tua omen zegoen eta erakunde horretako pertsonaia askoren bisitak izaten omen zituen. Jakina, gero ikasleei kontaktzen zien.

Nahiz irakaslea ez izan, aita Apalategirekin ondoan jarri beharrekoa da aita Olabide ere, beste eginkizun jakinik gabe, Itun Zaharra itzultzen ari zena. Euskaltzale biek oso harreman onak zituzten, euskal kulturaz ederki jantzita zeuden, eta elkarrekin joaten ziren paseatzera. Euskararen kontuan bezala ikasketetan ikasle gazte haiek asko ikasi omen zuten haien lan isilari esker, haiengandik datuak, aholkuak eta erraztasunak jasoz (Lopetegi, 103-104). Politikan zein joetarakoak ziren zehazten ez bada ere, esan beharrik ez da biak zirela errotik euskaltzaleak.

Euskal akademia honen inguruan ibilitako ikasle-taldekiek izenak ere iturri askotan agertu izan dira: Zaitegi, Andima, Lauaxeta, Mujika, Argarate, Sagastune, Lasa, Larrañaga, Sarobe, Patxi eta Felix Korta anaiak, Joxe Goenaga eta bere anaia Iñaki. Baziren beste euskaldun batzuk, Lopetegiren (1990, 101) kasuan bezala, noizbehinka bakarrik joaten zirenak, ikasleak beste hizkuntza modernoak, hala nola alemana, ingelesa eta frantsesa ikastera bultzatzen omen zituelako aita Errandonea ikasketa-buruak. Izan zen bere burua elkarre horretatik kanpo ikusi zuenik ere, euskaraz ez zekielako (43). Baina kontaktizun hau euskal akademiak Beljikan –filosofo eta teologoekin Marneffe-n Jokin Zaitegiren gidaritzapean (44) eta juniorrekin Tournai-n Estefaniaren ardurapean (45)–, funtzionatu zuen gerra aurreko epealdiari (1933-37) dagokiona da, desegin ere orduantxe desegin baitzen betiko.

(43) «Como te decía, de la Academia Vasca (así se llamaba, y yo me sentía rechazado...)» (I. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 169).

(44) «En todo caso, los de de mi generación (1924-36?) (gozamos de la batalla ganada por aquel grupo de jóvenes jesuitas que desde Loyola hasta Marneffe (Bélgica) llevaron bien enhiesta la bandera del euskera. Y nosotros, después de Tournai, donde terminamos la Retórica y las Ciencias, pudimos seguir fomentando los estudios euskéricos en tiempo de Filosofía. Con el mismo Zaitegi estudiamos el Mireio de Federico Mistral, traducido al euskera por Orixe y con las notas aclaratorias d preparadas por el P. Raimundo Argarate. Y también seguimos con nuestras homilías en euskera. Y durante el recreo de la noche charlábamos un buen rato en nuestro millenario idioma. Todo se nos hizo fácil gracias al P. José Aguirre-Ceciaga que, de Rector en Tournai, pasó a serlo en Marneffe. Y también por la actividad desplegada por el P. Estefanía» (A. C. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 166).

(45) «Por lo que hace al P. Estefanía y a su influencia directa en la formación vasca de los juniore de la época de Tournai, hemos de añadir a lo ya dicho que, cuando en 1933 se crea junto a la ya instituida Acaemia Vasca una de Oratoria vasca, es el propio P. Estefanía quien la dirige y, según atestigua un junior de aquella época, “con él teníamos los domingo homilía en euskera, ejercicio de redacción y lectura de los trabajos”» (Altuna, 1990, 24). A. C. lekukoak honela deskribatzen du aita-Estefaniak irakasle eta euskaltzale gisa Tournai-n egindako lana: «Creo que el gran cambio vino a la llegada de la República y al encontrarnos den Tournai (Bélgica), sobre todo durante el Rectorado del injustamente desterrado y olvidado durangués, Padre José Aguirre-Ceciaga. Entonces comenzamos a estudiar el *Euskel-aditza* según los paradigmas publicados en Oña por el P. Patxi Korta. Las homilías las componíamos y “echábamos” en euskera. En el

Ezagunak dira horien idazlanak, ez guztiak maila berekoak, baina bai, euskal kultura landuaren historiari dagokionez bederen, epealdi berri bati hasiera ematen diotenak. Bere aitzindari zuzenekoak Orixek eta Olabide izan zituen Lauaxetaren garaiko ikasle-talde hau hasiera hartan aski homogeneoa izan zen, errotik euskaltzalea, eta guztiak ekin zioten euskal kultura igoa lantzeari. Gerora, ordea, batean destinoak zirela eta bestean erbesteratze bortxatuak, hasierako taldeari asko kostatuko zaio berrantolatzea. Gerra ostean horietako batzuk Jokin Zaitetik bereganatuko ditu Guatemalako bere aldizkarian.

Irakaskuntzaren mundutik aparte, apaiz jesuita euskaltzaleen artean, bertako sermoilariak dauzkagu. Loiolako komunitatean, dezente ziren apostoladutzarako izendaduta zeudenak, herriz herri euskaraz sermoiak egiten edota gogo-jardunak ematen, 1920ko hamarkada-hasiera hartan: Bernardo Egaña markinarra, Rufino Berristain azpeitiarra, Eusebio Huarte, Migel Iriarte, Franzisko Lapeira, Joan Laspiur, Jose Antonio Laskibar eta Jorge Agirre. Aita zegamar hau 1925ean etorri zen destinatuta Loiolara, baina lehenago ere Deustutik noizbehinka etortzen zen Loiolako etxera, Azpeitia, Azkoitia eta inguruko herrietan garizumako sermoiak egitera. Aita Lopetegik Biktoriano Huitzi, Bizente Alkorta eta Migel Aizpuru ere aipatzen ditu, baina hauen izenak ez dotoz 1921-1926 epealdiari dagokion probintziako Katalogoan. Hauen garaiko ikasle lekukoek beren iritziak ematen dituzte euskal sermoilarien gainean. Aita Lopetegiri ((1990, 100) hizlari onak iruditzen zitzaizkion Laskibar, Huarte, Agirre, Alkorta, Lapeira, Laspiur eta. Beste batzuen ustez, ordea, orduko sermoilariak, hizlari onak ziren arren, ez zioten hizkuntza berritzeari ekin, aita Huarteren kasuan izan ezik, eta honek ere maila batean. Alderdi honetatik begiratuta, aita Iñaki Goenagaren iritzia biziki zorrotza da: «Lehen sermoilariak-eta, egunduko astakeriak esaten zitiztean euskaraz, ume-umetan sartu ikastetxeetan, pasatu ez dakit zenbat urte euskara entzun ere egin gabe, eta etxeko euskara atzanduarekin gero euskaraz sermoiak egitera bidaltzen zitiztean; nola egingo zitean ba ondo euskaraz!» (46). Nohanahi ere, horien euskara-erabilera nolabaitekoa izanda ere, horien ikasleenganako eraginaz ari baikara, esan behar da, orduko sistemaren arabera irakaskuntzari lotuak ez zeudenez gero, apenas zutela harremanik ikasleekin (Lopetegi; 1990, 105) eta haien eragina ere, ondorioz, ezin izan zitekeela hainbestekoa.

Azkenik, *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkaria ezin da utzi aipatu gabe, Bilbon argitaratzen zena 1917. urteaz geroztik. Orixek ere hor eskaini zituen bere lehen lantxoak eta junior gazte hauek ere beren lankidetzaz hortxe emanez se-

curso 1932-1933, en Tournai, fue nombrado profesor de oratoria vasca el P. Estefanía. Y sobre todo en las "Tertulias" de Navidad, hicimos alguna representación para los euskaldunes (...) Ciertamente las circunstancias que a nosotros nos rodearon no eran las mismas que se dieron en tiempo de los Argarate, Zaitegi, Kortas, etc., cuando ellos estaban de juniors en Loyola. El ambiente predominante era el de la latino-filia y griego-filia. Acaba de llegar de Inglaterra el P. Ignacio Errandonea...» (Patxi Altuna [prest.], 1990, 165).

(46) Pako Sodupe aipatua (2005).

gituko dute. Aldizkari hori zuzentzen zuten Gorka Agirre eta Peli Areitioeren Berri On bateratua eta horrelako batzuk kenduta, («aldizkaria osorik geuk gazteok idatzi izan genuen amar urtetan-edo», hots, 1926-1937 epealdian zehar, dio Jokin Zaitegik (1974, 8). Aldizkariko orrialdeak ordena kronologikoaren arabera pasatuz, jadanik ezagunak zaizkigun hainbat izen agertzen dira: Argarate, Udalaizpe (Zaitegi), M. M. Zubiaga, Joaristi, Andima, Sistiya (Iñaki Goenaga), Abelegi'ko Patxi (P. Etxeberria), Sarobe, Mantzisor, eta ezizenez datozten beste hainbat sinadura. Urkiagaren izena ere hortxe dator, Zaitegiren ondoan, Basaraz bigarren abizenarekin. Hainbat artikulu eta olerki eman zituen hor argitaratu, Maragall-en eta olerki klasiko batzuen itzulpenak barne.

Ikasle gazte hauen orduko olerkien kalitateaz bere iritzia ematera ausartzen denik ere bada. P. E. lekukoari –seguru asko Patxi Etxeberria da izen-abizen horien laburduran ezkututzen den hori–, Loiolan nahiz Marneffe-n egindako poesiak, batzuenak salbu, aski maskalak iruditzen zaizkio: «... junior esaten genienek euskal ekiñaldiak eskeintzen zizkiguten, eta gu ere aien entzuera jeisten giñan. Nik orain ez dakit aien euskal ariketak Estefania'k zuzentzen ote ziztuan, ala Egibar'ek, ala Areitio'k, eta neri aien olerkiak iñolaere ez zitzaizkidan biotzeraño jeisten. Ni beste nonbaitetik nentorren, euskal arazoetan beintzat. Olerkiak mamiz eta joskeraz etaernal-bulkoz bikañak zitezken eta ortan ez naiz sartzen, bañan euskera aldetik nik oso maxkaltzat artzen nituan. Gero ere Marneffe'n alaxe iruditzen neri, an ordurako olerkari onak izan arren: Zaitegi, Argarate, Goenaga Iñaki, Ibinagabeitia, Arin Gotzon eta beste gehiago ere bai. Irure berriz ez makalena. Guztiak Olabide'ren itzalpean zebiltzala? Baietz esango al dizut? Orduan ordean olakorik ez zitzaidan bururatzen» (Altuna, 1990, 169). Aipu honen esanahia hobeto ulertuko da, baldin jarraian esaten bada apaiz jesuita hau Urretxuko Poesi Lehiaketan (1933) «Bost lore» poemarekin saritua izan zela, populismoaren joera indartzen zihoan garai postkultista hartan, zeinetan Aitzolek, ahozko literaturatik hurbil, euskal estetikan oinarritutakoari ematen baitio lehentasuna. Datu adierazgarria hau ere.

P. E. lekukoak dakarrenaren harian, Lauaxeta bezalako ikasle gazteak, euskara-ereduari dagokionez, bi tradizioen aurrean aurkitzen dira. Olabideren itzulpen-lana Larramendi baten jarraipen gisa begiratzen den bitartean –teknizismoari eta purismoari aski lotua, alegia–, sermoilarietak gehiago du Mendiburu eta Kardaberaz aho-hizkuntzatik, freskoagoa eta dotoregoa da (Altuna, 1990, 159). P. E. lekukoari iruditzen zaionez, hain zuzen, Olabideren euskara-eredua da garai honetako ikasle euskaltzaleen artean nagusitzen dena (Altuna, 1990, 169), berak «maxkaltzat» daukana. Tradizio klasikoan izen handikoak diren arren Larramendi, Mendiburu, Larramendi, Kardaberatz eta, (hurbilekonen artean, Loiolako gazte askorentzat Olabide izango da euskararen eredu. Gazteiztar jakintsuak zernolako eragina izan zuen galderari, honela erantzuten dio J. Zaitegik: «Bai, 1921.etik aurrera Loiolan egon zen Olabide. Baina, beste galdera batetan garbi gelditu ahal izan denez, Olabide ez zen gudan euskaltzaletasunaren zuzia biztuzena. Dena dela, urteak eman eta eredutzat hartu genuen josulagun jakintsu hura.

Kontutan izan: 1918.an Eusko Ikaskuntzak sorturiko Euskaltzaindian lehen euskaltzainetakoa genuen aita Olabide. Nolanahi ere, hamabost urterekin ezin genezakeen bereiz nahia errealitatek eta garai hartan gizon bitxi bezala hartzen genuen Olabide. Gizon jakintsu zela, bai, ba genekien baina kontzientziarik ezak ez zigun bere mailan aztertzea uzten. Izan ere, ez zuen gurekin harreman zuzenik euki. Olabideren idazkietan asko ta asko ikasi dugu gure belaunaldikoek. Aurreko josulagunen artean Mendiburu bakarrik izango da gehiena euskaraz idatzi duena. Beranduxeago, eta guztion gainetik, Olabide» (47). Orixek berak ere, euskara-mota arras bestelakoa landuko duen arren, Olabideren defentsa gaitza egiten du. Zaitegik, eskerronez, Olabideri ale monografiko bat eskainiko dio gerora *Euzko-Gogoa*-n (48). Euskara-eredu hori izango da, hain zuzen, Koldo Mitxelena zorrozki kritikatu duena *Egan*-en.

6. LOIOLAKO IKASLE EUSKALTZALEEN SUSTRAIAK

Ikasle horiei nondik zetorkien euskaltzaletasuna, etxetik ala Lagundian sortu zitzaien? Eta zeren edo noren eraginez? Eta Lauaxeta noiz euskaltzaletu zen?

Galdera hauen inguruan azalpen desberdinak eman izan dira, batzuetan kontrajarriak izanik ere, alde z bederen osagarriak izan litezkeenak.

Hasteko, Jokin Zaitegik (1974, 6-7) dakarrenez, aita Ibero kaputxinoaren *Ami vasco* liburuxkoa izan zen Loiolan 1924an Junioratuan aurkitzen zen ikasle-talde aski handia euskaltzaletu zuena: «Kaputxino ospatsu batek idatzitako liburuxka bat irakurri genuen euskaldunei buruz: eta gure buruetaz iabe egin zen euskal-gaia. Leenik Ibinagabeitiatar Andima-k eta biok irakurri genuen. Aurten (1974ean) 50 urte bete dira: Loiola atzekaldeko galbani-iturri bazterrean eseri ginen udako arratsalde batetan biok: irakurri-ala, auxe esan nion gure Andima zenari: gu geu euskaldun gara, izan ere, ta euskera ikasi egin bear dugu (49). Egia esateko, ezkenuen euskera aazturik erabat, galduxe bai-zik. Liburuxka ura izan ezik, eztakit euskaldun bezala iraungo ote genukeen. Euskaldunen artean zabaldu genuen ixilpean. Tarteko ziren Urkiaga, geroko Lauaxeta, Goenaga-tar Iñaki, gero Schiller-en Wilhelm Tell euskeratu zuena, Mujika, geroko euskal-iztegile bikaina, Larrañaga, Karakas-ko Andima Ibina-

(47) Velez de Mendizabalek aipatua (1981, 37).

(48) *Euzko-Gogoa*, iraila-gabonila, 1958.

(49) Pasadizo honen berri ematean, beste bertsio bat ematen du Pako Sodupe (1997, 6), dioena nondik hartua duen esan gabe: «Andima eta Zaitegirentzat, behiala Pablorentzat Damasko izandakoa Txalintxo mendiska bilakatu zen. Zati bat Azkoitiarena eta bestea Azpeitiarena duen mendí horretara txango joaki –nor ote zen hirugarren nobizioa?– Ami vasco irakurri zuten, eta harrezkero bestelako begiez begiratu zioten elkarri, eta geroztik garbi izan zuten zein zen euren aberria, ez jesuitetan irakasten zietena baizik Euskadi». Hemen beste leku bat aipatzen da, baita beste hirugarren lagun bat ere.

gabeitia saria leenik irabazi zuen Azkoiti-ko semea, Argarate, Urretxu-ko seme den Euskal-idazle eta olerkari zoragarria: orren lan eder batzu euskal-langilei buruz Goatemala-ko *Euzko-Gogoan* argitarazi nituen. Sarobe, Lesaka-koa, Estrabon-i buruz azterketa sakona eman zuena. Martikorena, emengo azkengerratean Kapellau ari zelarik il zuten Betelu-ko semea. Azpeiti-ko Korta anaiak, Gaztelumendi, geroko eliz-izlari ospatsua. Gutarteko zen Zubiaga, *Zorion-bidea* liburu zoragarria argitaratu-berri duena ta gerraondoko euskal-izlaririk maitatuena ta zuzenena, nik uste. Azken onek liburuxka au irakurri zue-nik enaiz gogoratzen, egia esateko, baina, gu baino urtebete aurreratuagokoa izan-arren, euskaltzaletasunean iritzi berdineko ginen». Hemezortzi laguneko talde horretan, denak Junioratuko ikaskideak ziren, erdiak urte horretan Erretorikako lehen urtea egiten ari zirenak, hauen artean Andima Ibinagabeitia, Plazido Mujika, Esteban Urkiaga eta Jokin Zaitegi bera, eta beste erdiak, Erretorikako bigarren urtea eta Humanitateak egiten ari zirenak.

Liburu miragarri hori nondik eta nola agertu zen haien eskuetan? Orduko lekuko guztiak ez datoz bat iritzieta. Batzuek diote Andima Ibinagabeitiaren amak sartu zuela Loiolan semeari egindako ikustaldi batean (50); beste batzuek, berriz, aita Apalategi bibliotekariaren laguntzaile izaki, Sagastune izan zela isilpean Liburutegi nagusitik atera zuena (51). Kontua da, eskuz esku ezkutuan zebilen liburu horren berri aita Errandonea ikasketa-buruarengana iritsi zenean, honek estu hartu zuena Jokin Zaitegi izan zela. Honek (1974, 6-7), orduko gertakaria gogoratuz, irakasle gisa hainbeste goratzen zuen apaiz jesuita ospetsu honi buruzko iritzi orokor hau eskaintzen du pasarte honetan: «Arkitu genuen leengo oztopoa gure arduraduna izan genuen, Errandonea gure latin eta eladera irakaslea, alegia. Eztut esker txarreko gizon izan nai. Alare, egiari berea zor diot: ezkenuen arengan elkarrekiko begirunerik arkitu. Salartari-aginpidea zeraman, eta liburuxka ura atzeman zuen: errudun neu egin ninduen. Ark esan zizkidan astakeriek negar onik eragin zidaten: liburuxka ura zela-ta, ogen larririk egin nuela ta abar. Berak uste etzezaken bidez nere burua xuritu aal izan nion, erantzukizun osoa neuk artuta. Errandonea lau erataraz egagutu nuen: leenik euskeraren aurkako amorratua, Oxford-etik etorri berri zenekoan. Gero, errepublikaren garaiean, euskeraren eta euskaldunen arteko gertatu zen. Garai ontan Marneffe-ra etorri, dei egin eta parkeske egin zorionka erabili ninduen, Antigone euskeratu ta argitarazi nuela-ta. Elkarrekin izan genuen burutu-ezina inoren errurik gabe gerta zitekela-ta parkeske egin zidan, eta artuta nuen bidea barrena iarraitzeko. Gertatu bear etzitzaigun zoritxarra euskaldunei gertatzerakoan, *Razón y Fé*-n euskaldunen aurka ixuri ziren irainen erantzukizuna izan zezakeen berak, Errandonea bera baitzen aldizkari aren zuzendari. Azkenik, Madrider utzi ta berriro Donostiratu zenean il arte euskeraren eta euskaldunen aldeko iarri omen zen bearrik. Orrelako gizonak eguz-

(50) Hala dio Iñaki Goenagak, orduan lekuko zuzena izandakoak bere elkarrizketan (Sudupe, 2005).

(51) Altuna, Patxi [prest.], 1990, 23.

kia nora, zapia arakoak omen dira gure erritarren ustez». Beraz, oportunitatearen arabera, batean kontrako, bestean aldeko. Ez hotz eta ez bero. Euskal esakerak dioen bezala, «eguzkia nora, hara zapia». Beste batzuek, azkenik, aita Errandonearen jokabide horretan, ez preseski euskal nazionalismoaren kontrako jarrera, erlijioso bizitzako diziplina-arazo soil bat baino ez bide dute ikusiko (52). Hauek, bada, Zaitegiri egotzen diote liburutxo hori lagunen artean zabaldu izanaren errua.

Baina lehen aipatutako ikaskide horiek guztiak batera euskaltzaletu al ziren, eta euskaltzaletu, hain zuzen, *Ami vasco* liburuaren irakurketa soilari esker? (Eta, zehazkiago esanda, noiztikoa da Lauaxetaren euskaltzaletzea?)

Hor ere iritzi desberdinak daudenez, erantzun zehaztuak ematera behartzen gaitu. Esan izan da Lauaxeta Junioratuan egin zela euskaltzale, batez ere, Jokin Zaitegiren eraginez (Garate, 2003, 13). Ikaskide izan zuen Plazido Mujikaren (1982, 29) azalpena askoz ere zehatzagoa da eta, itxura batean, baita Lauaxeta poetaren izaera aldakorrari egokiago erantzuten diona ere: «Azkar azkarra etzen –dio–. Nere ustez mito bat egiten ari dira. Hoiiek biak, egia esateko, ez Zaitegi ez Lauaxeta etziren euskaltzaleak etorri zirenean. Hemen euskaltzaletu ziren. Biak ziren erdalzaleak. Gero, gainera Lauaxetak boladak izaten zituen. Euskaltzale sutua batzutan ta bestetan epeldu. Zaitegi ez. Zaitegi euskaltzaletu eta gero sutuago, jo ta ke». Patxi Altunaren iritzia ere ildo beretik doa eta, zehazki Zaitegi eta Lauaxetaren euskaltzaletzeari dagokionez, (nolabaiteko eboluzio bat ezartzen du horien Loiolako epealdian. Zalantzarik ez da Andimari familiatik zertokiola euskaltzaletasunaren garra. Badirudi, hasiera batean, Zaitegi eta Lauaxeta euskararen aurrean txepelduta bezala geratu zirela, hotz bezala, gaztelaniazko poesiaren eta literatura orokorraren distirak lilutatuta. Euskal literaturak geroago bereganatuko ditu, lehenago Zaitegi Lauaxeta baino, eta betiko (53). Harritzekoa

(52) Honela dio, adibidez, A. C lekukoak: «Y dista mucho de la actitud que le atribuye Jokin Zaitegi, más, según mi opinión, por razones de orden disciplinar de vida religiosa, que por ninguna otra razón en el asunto del libro que hizo correr entre sus compañeros» (Patxi Altuna [prest.], 1990, 165-166). (Esanak gara aita Lopetegirentzat ere Zaitegiri Errandonearekin gertatua diziplina-arazo bat besterik ez zela izan, ez inola ere zentsura-neurri bat.

(53) «En los tres o cuatro años que el P. Apalategui dirigió la academia tuvo un puñado de discípulos, tales como Ramón Argarate, Guillermo Larrañaga, Plácido Múgica, etc. Por lo que hace a los Ibinagabeitia, Zaitegui y Lauaxeta de los cursos que van de 1923 a 1926, los tres años de su juniorado, los pareceres están divididos. Mientras ninguno de los coetáneos pone en duda el temprano entusiasmo y dedicación al euskara del primero de ellos, de claros antecedentes nacionalistas en la familia, no pocos se muestran reticentes y aun contrarios al papel impulsor de tales aficiones y al protagonismo que Zaitegui se atribuye, y se declaran claramente unánimes en cuanto a la apatía que mostrara Lauaxeta en el primer momento. Según estos testimonios, uno y otro quedaron al principio deslumbrados y aun hechizados por la belleza sin par de la poesía castellana y literatura en general, mostrándose en cambio un tanto indiferentes ante lo euskérico, y sólo más tarde se dejaron ilusionar por la lengua y literatura vascas, antes en cualquier caso Zaitegui que Lauaxeta. Su «conversión» data de todos modos de la época de Loyola, y tuvo en ello no pequeña parte, sobre todo en el caso de Zaitegui, la lectura del libro *Ami vasco* («Biografía», in Patxi Altuna [prest.], 1990, 23).

ere ez da erdal literaturak liluratuta uztea, ez gutxi, agian, atzerritik etorritako irakasle berriek eskainitako (mundu-literatura zabal bezain oparoaren aurrean.

Dena den, azken irakurketa honen arabera, Jokin Zaitegik bere buruari ematen dion protagonismo-irudia zerbait erlatibizatua geratzen bada ere, haren geroko ibilbideak garbi erakusten du bera izan dela jesuiten eskolaren zutabe nagusia. Bestalde, Lauaxetari buruz eman den azalpena ere ezin da erabatekotzat hartu, zeren (egileak berak, («Kirikiño» artikulua aipatuan, Durangon ikasten zegoenean Mañarira egindako bisitaren berri ematen baitu, Loiolara etorri aurreko urtean egin bide zuena. Ordurako, bada, euskaltzaletasunaren hazia ereina zeukan gogoan.

7. NAGUSIEN EUSKARAGANAKO JARRERA

Lehen, Loiolako euskal giroaz jardutean, kolore guztietako ikuspegiak zeudela esan da. Lekuko bat, orokorrean probintzian eta zehazkiago irakasle-taldekoen artean, euskaldungoari buruz ikuspegi desberdinak zeudelakoan dago: «Sobre este grupo operaban las diversas mentalidades dentro de la Provincia de Castilla, que nosotros, desde nuestro estrecho ángulo, podíamos en realidad captar. Quizás existían diferencias en nuestro equipo profesoral... Sabíamos de diferencias en Deusto en tiempos del P. Leza. Nuestro P. Garmendía hablaba con fuerza en toda referencia a la mentalización política de nuestra provincia» (54). Zuhurtzia handiz dio hori, bere esaldian «agian» bat tartekatuz eta aita Garmendiaren aitortzan oinarrituta. Aita Lopetegik (1990, 105) irmotasun gehiago erakusten du bere esanean: «Los superiores locales que conocimos por entonces en Loyola no eran entusiastas de estas medidas, pero cumplieron lo prescrito». Zaletuak izan gabe, agindua bederen bete egin behar. Zentzu horretan uler daiteke aita Bianchi errektoreak, oso erregezale izanda ere, euskaldunak euskaldunekin paseatzera joateko baimena eman izana ikasle gazteei, ez ordurarte bezala hiruko taldeak zozketaz osatuz.

Komunitateko agintaritzan nagusitzen zen jarrera politiko, ideologiko eta linguistikora hurbildu ahal izateko, egunerokotasunaren kutxan ahaztuta geratzen diren anekdota antzeko datu batzuk aipatuko ditut, Loiolako Egunkaririk jasota (55). Izan ere, komunitateko aita idazle on bat izan ohi zen kronistak zein gertakariri ematen zion garrantzia eta zein ezkutatzen zuen ikusiz gero, bertako bizitza ofizialean zein giro arnasten zen gutxi-asko atera daiteke.

Orokorrean komunitate-bizitzako egitarauan sartzen diren gauza xehe eta txikiez ari da Egunkari hau, ikasketa-orduek, elizkizunez, aisialdiez, jai-ospakizunez, aita jesuiten joan-etorriez, eta horrela. Noizbehinka, ordea, agertzen

(54) J. I. Iekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 159-160.

(55) *Diarium Loiolae*, oct. 1919 – oct. 1951

dira ikasleen izen batzuk ere. Lauxetaz hauxe dio 1926ko apirilaren 11ko kronikak: asteartez, Donostiako «Hospital Militar»era eramaten dituztela Esteban Urquiaga, Francisco Ibiricu, Eduardo Alonso, Florentino Garcia de Andoin eta Iñarra anaiak. Azken hau, anaia laguntzailea, egun berean itzultzen da beldurtuta; Ibiricu hurrengo egunean; beste hiruak, berriz, 15ean daude bueltan. Antza, soldaduska kontua zela eta, eraman zituzten, gehiagorik gabe. Hurrengo aipamenak, 1926ko maiatzaren 11koak, boto-ematearekin du zerikusia: larunbatez aita espirituala Ramirez Espinosa Vargas eta maisuak «Zabale» baserri-ra joan zirela eta, hara joan aurretik, guztiek –kronistak berak barne–, Primo de Rivera-ren «Plebiscito nacional»aren aldeko botoa eman zutela, esaten da (56). Hemen, bai, garbiago ageri da beren aukera politiko-ideologikoaren nolakoa. «Zabale» baserria, jesuiten santutegitik kilometro t'erdira, Oñazko bidean, gaintxo batean aurkitzen dena da. Izanak gara ikusten eta oraindik ere zutik segitzen du, ez orduan zen bezala, eraberrituta baino. Handik ederki bisitzen da Azpeitiko bailara osoa (57).

Espainiako Errege-erreginek Loiolako komunitatera egin zuten bisita ere zehaztasun osoz kontatzen da. Gertakari honek, duen izaera ofizialagatik eta ematen zaion handitasunagatik, badu bere garrantzi berezia. Etxeko kronistak, «Adventus SS MM Regun Alf. XIII et Victoriae Eugeniae» izenpean, luze deskribatzen du 1926ko ekainaren 20an Alfonso XIII.a erregeak eta Victoria Eugenia erreginak Loiolara egindako bisita. Latinezko testutik itzultzen ditut egun hartako gorabeherak:

«Opor-eguna. Dena beti bezala. Arratsaldeko 4,30etan (ofizialetan; berez 3,30etan) ... [lerro bat osoa ezin da irakurri, janda dagoelako]... etorri ziren Ansolaga eta aita Oroa, eta Nagusi guztiek egin zieten ongietorria Erregeri automobiletik jaitsi zirenean. Handik Paliopcan sartu ziren Basilikan, «con los acordes de la marcha real» (58), eta han debozio handiz errezatu zuten; gure Erregek, batez ere, errege-maiestatearen itxura hartu zuen. «*Serva regem*» antifona eta «*Marcha de S. Ignacio*» (euskaraz) kantatu ondoren, Basilika bisitatu zuen eta berehala Etxe Saindua ikustera joan ziren. Han Sakristian «album» bat aurkeztu zieten gure errege-erregina txit agurgarriei, eta bertan

(56) «*Rustication ad Zabale. Adfuerunt P. Spiritualis Ramirez Espinosa Vasrgas et magistri. Ante rusticationem omnes votum "Plebiscito nacional" pro Primo de Rivera dedimus*» (Ibid.).

(57) Etxeko Egunkarian askotan aipatzen baita «*rusticatio ad/in Zabale*» (preposizioak bi modutara emanda), esan dezagun delako «Zabale» baserri hau Oñazko auzoan aurkitzen dela, Loiolako etxetik errepidez bi kilometro eta erdira edo; lehengo bidetik, oinez, gutxiago. Bi bizi-zakoa da, goian teiluan harrizko horma batez zatitua dagoena, sutearen kasuan erreketak ekidete-ko asmoz egina. Baserri hau 1890ean eraikitakoa da eta hiru solairu ditu: ikuilua, etxebizitza eta ganbara. Jesuitek, horren jabe egin zirenean, bere beharretara moldatzeko xedearekin berrikuntzako lan batzuk egin zituzten, hala nola zerbitzurako bigarren solairuan areto bat, baserriaren hormaz baliatuz frontoi bat, eta kapera txiki bat, bere bobeda eta guzti. Egun, baserri-lanetarako egokitua izan bada ere, lehengo berrikuntza haien aztarnak agerian daude, zehazki lurreko lauzak eta kaperako kontrahormak, frontoiko ezker paretako zarpeoa, eta abar.

(58) Honela dator jatorrizko testuan, kronistak, antza, latinez jartzeko zailtasunak zituelako.

lehenik gure erregeak ezarri zuen bere izena. Berdin erreginak ere. Errege-erreginaren ondoan zeuden «La Duquesa de Victoria», el «cuarto militar», armadako buruzagiez osatua, hauen artean aurkitzen zirelarik «el Duque de Grove», «General Berenguer», «Ministro de Gracia y Justicia», «Ministro de Guerra», «Duque de Miranda», «General de Marina» [hauek denak horrela gazteleraz emanda] eta, beharbada, beste norbait ere bai. Etxe osoa alderik alde ikusi zuten, aita Errektorea eta beste etxeetako Nagusiak gidari zituztela. Aita Espiritualaren gelan sartu ziren, eta hango gauzen txukuntasunaren handia miretsi zuten. Iritsi ziren –ra [...] (59), sartu ziren lehen gelan, eta pixkanaka-pixkanaka Jantokira hurbildu ziren. Gero «imperiales» edo «de los Papas» deituriko eskaileretatik jaitsiz, gure baratzara joan ziren eta handik Komunitateko Jantokira. Hemen «Tea» hartu zuten, nobizioek eta juniorrek zerbitzatuta. Hemen aski denbora egin zuten. Jantokitik irtetean, Venezuelako Gortesi Nuntzio jaunak bere ohoreak egin zizkion Erregeari, lehenago ezin izan baitzuen «etiketazko» jantziak falta zitzaizkiolako. Bien bitartean, denok zain geunden atarian, errege-erreginaren etorrerako prestatua zegoen lekuan. Agertu ziren bezain laster «Marcha Real»a jo zuten. Errege-erreginak, bien bitartean, tronoan zeuden. «Marcha Real»a bukatu eta gero, aita Errektoreak hitzaldi duin eta bikaina egin zuen, Errege-erreginarentzeko hunkipenez bete. Segidan, anaia Estebanek anaia Gastonek egindako poesia bat deklamatu zuen. Hauek guztiak bukatzean, Erregea bera mintzatu zitzaien guztiei, eta ahoz bihotzean sentitzen zuena adierazi zien. Lagundiari zion maitasuna agerian utzi zuen, laudorioak bota zizkion, eta esker mila emanez bukatu zuen. Erregea hizketan hasi aurretik, Errege-erreginari bi errege-makila oparitu zizkieten, Txinan landuak eta misiolariak hango eskualdeetatik egun horretarako, hau da, Espainiako Errege-erreginarentzat bidaliak. Errege-erreginek ez baitzuten espero horrelako oparirik jasotzea, asko gustatu zitzaien. Honela, behar bezalako duintasunez eman zitzaion bukaera Errege-erreginaren etorrerari. Gauza guztiak burutzean, Erregea zutitu zen eta, «Marcha Real»a kantatu ostean, kanpora irten zen, non herriko jende gehiena baitzegoen zain, eta goraki agurtzen baitzuten txaloka eta bibaka. Automobileen sartu eta berehala urrundu zen. Ospakizun honen ondoren Verdun-era joan ginen, eta han aita Errektorearekin denbora pixka bat egin ondoren, Erregearekin bizi izandako gorabehera batzuez mintzatu ziren».

Goian aipatu den gertakariak agerian jartzen duena da, geroztik ere, Miguel Primo de Rivera jenenalaren diktadura-garaian, Espainiako monarkiarentzat Loiolak etxe kutuna izanez segitzen duela.

Oraintsu, Patxi Altunak (2005, 53-57), «Loiolako bisitariak» artikuluan, 1844-1870 epealdian zehar Loiolako sangutegia bisitatu edo bertan gogo-jardunak egin zituztenen sinadurak jasotzen dituen albuñetako bat aztertzen du eta bertan kausitzen diren hainbat pertsonaia ospetsuren berri ematen. Hor datoz Luis

(59) Testuinguruak erakusten du irakurtezina egiten zaigun hitz bakar horrek etxeko lekuzen bat izan behar duela, baina zehazterik izan ez dugunez, bego bere horretan itzulpenik gabe.

Luziano Bonaparte eta W. Van Eys euskaltzaleen izenak, hor Sabino Arana Goi-riren familia osoarena eta, halaber, Isidro Berriotxoarena, Frai Balentin Berriotxoaren aitarena, Pedro Añibarro, Barbier eta Haristoy idazleenak, eta beste batzuenak. Hau irakurrita, hor ezein ondoriorik ateratzen ez bada ere, bistakoa da Loiolako santutegiak hainbat jende ospetsu erakarri izan duela eta, gainera, mota desberdinetakak izan direla, sinaduren album horretan egiazta daitekeenez.

Hori guztia hala izanda ere, ezingo da ukatu, bestalde, Loiolak aspaldikoa duela bere erregezale-fama. Francisco Rodriguez de Coro historialariak (1980, 198-200) dakarrenez, Loiola goi-buruzagi karlisten babesleku ispirituala izana da liberalen agintealdian. Karlos VII.ak gutxienik hamabi aldiz bisitatu zuen Loiolako komunitatea 1873-1976 epealdian zehar. Azkenekoa, 1876ko otsailaren 14an egin zuen. Lizarraga jeneral karlistak ere urte horretan bertan egin zituen bere gogo-jardunak, baina aurreko hilean, urtarrilaren 8tik 17ra. Errege-bisita horietako batean, 1974ko ekainaren 15/16koan, hain zuzen, aita Gartziarena jesuitak belusaz forratutako kutxa bat oparitu zien Karlos eta Margarita errege-erreginei, errege-armekin apaindu eta erregearen izena urrez bordadutakoa. Era berean, Karlos erregearen ama Maria Beatriz Borbongoak Loiolako santutegirako misal bat oparitu zuen. Oparien harian, Loiolak Errepublik-aurretik karlismoari lotua jarraitzen duela adierazten duen beste datu bitxi bat ere bada, aita Lopetegik (1990, 103) ere Egunkarian kontatzen duena. Museo karlista bat antolatzen jardun omen zuen aita Apalategik, handik eta hemendik gauzak bilduz, hala nola liburuak, armak, pertsonaia desberdinen ezaugarriak eta jantziak, Karlos VII.arenak ere bai. Berak orduan bildutako bigarren gerra kaslistari buruzko datuekin, aita Antonio Zavalak *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak* argitaratu berri du Auspoa sailean (60). Lekukotasunen bilketa-lanetan aita Olabidek ere laguntzen omen zion.

Baina Loiolako komunitate zabal eta anitzean ez zen dena politika espainolaren aldeko lausengu. Izan ere, komunitateko agintaritzak egun hura Errege-erreginak lausengatzen pasatu zuen bitartean, ikasle euskaltzaletu batzuek, Iñaki Goenagak kontatzen duenez, haiei ongi etorria egitera joateko egin zitzaizen deiari uko egin zioten, kanpora hanka eginez: «Gelara abisua, geltokira joan beharra genuela *biba* batzuk esatera. Ezagutzen genuenez geltokiko morroia jakin genian zer biba ziren: *Viva el general Primo de Rivera, Viva Alfonso XIII...* Trena iristen zela, guk mantsoagatik alde egin genian jesuita-etxera eta abantadan bagindoazela gure errektore Bianchiren *Viva Alfonso XIII* hotsak entzuten genituan» (Sudupe, 2005). Talde horretan ote zen Lauaxeta ere? Litekeena, zeren artean, 1926ko ekainean, Loiolan aurkitzen baitzen Erretorikako ikasketak bukatzen.

Aita Iñaki Goenagak berak beste protesta-ekintza baten berri ere ematen du elkarrizketa berean, hau ere Sudupek (2005) jasotzen duena, zeinetan ko-

(60) *Gara*, 2005-X-5, 45.

munitateko Nagusien jokabide politizatua salatzen baita. Gertakari hau 1925. urte-ingurukoa bide da: «Jarri ditek bailarako umeen lehen jaunartzea zela-eta Espainiako bandera handia Loiolako kupula aurreko erlaiztean, tokirik ikusgarriean. Igo gaituk gaeuz Andima eta biok eskailera estu batzuetatik kupulara, kendu bandera eta sartu diagu harako trastelekuan. Goizean, bere onetik aterata errektorea, banderarekin zer gertatu zen galdezka». Gerra osteko aktibismo-mota batekin antzekotasun nabaria duen erresistentzi keinu honek, zalantzarik ez da, Loiolako komunitatean giro politizatua zegoela adierazten du. Aipu horrek datarik ez dakarren arren, ezta Errektorearen izenik ere, seguru asko aita Bianchi da hori, bera baitzen 1924-1925 ikasturtetik aurrera kargu hori zeramana. Orixeri buruzko lanean idatzia dudanez, jadanik Comillas-ko bere agintaldian erakutsiak zituen aita donostiar honek euskaldunen kontrako bere fobiak.

Aita Iñaki Goenagak bere zahartzaroan ezagutzera ematen dituen kontu horiek, bere garaian diziplina-hutsegite larritzat hartuak izango ziren horiek, ez zituen jaso etxeko kronistak bere Egunkarian, nahiz, pentsatzekoa denez, bertako guztiek edo gehienek barra-barra erabiliko zituztela. Orduko gazte gordin haien ausardia ere ez zen makala!

8. BUKATUZ

Lauaxeta ikasle jesuita ohiaren ingurumari egindako ibilaldiaren helmugara iritsi eta gero, esan ote daiteke haren sorkuntza poetikoan eragin berezia izan zuela jesuiten pedagogiak? Ni baiezko irmoan nago. Zenbaterainokoa izan ote zen eragin hori? Zaila erantzuten, bizitzan zehar hasierako eragin batzuk ondoko beste batzuekin nahasten direlako. Nolanahi ere, Lauaxetaren sinbolismoak asko du aita Estefaniaren eskolatik hartua. Beste ikaskide batzuek gehienbat klasikotasunaren alorra hautatu eta jorratu zuten bezala, berak, izaera kezkatuak hartaraxe areago bultzatzen zuelako, agian, azken orduko korronte estetikoetara beste ikaskideek baino irekiagoa egon zen. Hori bai, beti kristau tradizioari fidelki eutsiz, funtsezkoa zitzaien bizi-arrazoi honetan bateratuz, batetik, JEL (Jaun-goikua Eta Lagi-Zarra) sabindarra eta, bestetik, jesuiten espiritualitatearen AMDG (Ad Majorem Dei Gloriam) sigla. Biak dira osagarriak. Azken puntu hau areago zehaztuz, Jon Kortazarren iritzia da, Lauaxeta «modernista eta kristaua» izan zela, biak aldi berean, Espainian modernitatea, Frantzia ez bezala, sinbolismoaren zentzuan eraibili izan zelako, literaturaren sailean bederen (61).

(61) «*Bide barriak* erromantikoa da, eta *Arrats beran*, modernista (...) Estiloari dagokionez, modernitatearen barruan koka daiteke, edo sinbolismoaren barruan, Espainian modernitatea zenari Frantzia sinbolismoa esaten baitzioten. Lauaxetak sinboloen bidez adierazi zuen errealtatea; beraz, poeta sinbolista izan zen. Iñaki Aldekoak ezetz dio, kristaua zelako, baina poeta modernista asko izan ziren kristau» (Kortazar, Jon, *Berria*, 2005-07-13, 34).

Nik puntu horretaz emana baitut neure ikuspuntua eta, bestalde, eztabaida antzua iruditzen baitzait, ohar batzuk eginez emango diot bukaera gaurkoari.

Lauaxeta idazle modernista dela poeta sinbolista delako, horregatik bakarrik? Bai eta ez. Lauaxetaren baitan Lauaxeta gizona eta Lauaxeta poeta bereizi beharra dagoelakoan nago. Lauaxeta gizona, beronen ikusteko, sentitze-ko eta bizitzeko modua osotasunean hartuta, gerra aurreko euskal gizartean eta, zehazkiago oraindik, EAJn nagusitzen den ikuspegi gutxi-asko kontserbadorean kokatzen da, liberalismoak Europan hartzen duen esanahi sekularitutik aski urruti, eta zer esanik ez ezker joerako sozialismo edota marxismotik, edo liberalismo laikotik. Zentzu honetan ulertutako modernismotik deus ez du Lauaxetaren pentsamenduak. Aldiz, Lauaxeta poetaren sorkuntzan elementu anitz dira Europako eta mundu zabaleko literatur korrante moderno eta garai-kidetik hartuak; baina hartu eta beretzen dituenak, batez ere, literatur formak dira, hots, adierazpen estetikoak. Batak ez du bestea kentzen, nor batengan izaera eta maila desberdineko arazoak bereizten baizik.

Lauaxeta ez dela modernista, modernitatea kristautasunarekin etsai delako, horregatik bakarrik? Galdera honek ere ez du zentzu handirik, ez bederen erlijioen soziologian, zeren mota bateko zein besteko fede-bizipenak, berez eta nahitaez, ez baitauka zertan izan kontserbadurismoaren prototipoa, ez lehen ez orain. Kasu askotan, historian zehar, zenbait kristau mugimendu hainbat gizarte-iraultzaren indar-eragileztat hartuak izan dira. Max Weber-ek ez al zuen ezarri puritanismo kalbinista hasierako kapitalismoak ezagututako garapen azkarraren gizarte-faktore nagusi bezala? Azken batean, ez ideologia hutsen aldarrikapenak bakarrik, baizik gizarte-praxiak dira azterketetan aintzat hartu eta baloratu beharrekoak.

Lauaxeta literatoaz aparte, Lauaxeta (idazleaz, intelektualaz, politikoaz eta, balegoke zertaz mintzatu. Baina hau beste hitzaldi baterako gaia denez, bego gaurkoz.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, Patxi (1989): «Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)», *Euskera*, XXXIV, Bilbo; orobat, in Paulo Iztueta (prest.): *Orixek. Mendeurena (1888-1988)*, *Hitzaldiak*, IV, Eusko Jaurilaritza/Etor, Donostia, 1991, 43-86 orr.

— <prest.> (1990): «Biografía», op. cit., 13-26. orr.

— <prest.> (1990): *Jose Maria Estefania Zabala. S. J. (1889-1942). Maestro de vascos*, Mensajero, Bilbao.

— (2005): «Loiolako bisitariak», *Nerekin jaio nun, Txillardegiri omenaldia*, Iker-17, Euskaltzaindia, Bilbo, 53-57. orr.

- ARATXABALETA, B. (1981): «Lauaxetaren Ondartza», *Iker Atalak*, Labayru, 1.
- DURKHEIM, Emile (1982): *Historia de la educación y de las doctrinas pedagógicas. La evolución pedagógica en Francia*, La Piqueta, Madrid.
- ELUSTONDO, M. (2005): «Lauaxetaren mendeurrena: “Goiz eder onetan erail bear nabe...”», *Argia*, 1993, 2005-05-22, 4-7.
- ESTEFANIA, Jose Maria (1931): Lauaxetaren Bide Barriak, *Razón y Fe*.
- ESTORNES LASA, B.: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Literatura, IV, Auñamendi, Donostia, 1997.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia (1983): *La sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko-Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Eusko-Ikaskuntza, San Sebastián.
- Euzkerea*, 1932-03-15, 52. or. «Palankari bati» poemán.
- GARATE, Gotzon (2003): «Lauaxeta Jesusen Lagundian», *Karmel*, 2003, 244, 3-23.
- (2004): «Lauaxetaren alderdi erromantikoa», *Karmel*, 248, 2004, 23-55.
- IBIÑAGABEITIA, Andima (1992): *Bergiliren Unai eta Alor-kantak*, Klasi-koak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- IZTUETA, Paulo (1991): *Orixe eta bere garaia*, V, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia.
- <prest> (2002): *Testu hautatuak euskal estetikaz. Aitzol, Lauaxeta, Orixe, Utriusque Vasconiae*, Donostia.
- JIMENEZ, Edorta (2005): «Lauaxeta. Centenario del poeta y comandante de gudarís», *Zazpika*, Suplemento dominical de *Gara*, 340, 2005-07-31, 18-25.
- KORTAZAR, J. (2005): «Liburutegia autorearen ispilu», *Argia*, 1993, 2005-05-22, 8-9.
- KORTAZAR, Jon (1990): «Sarrera», in *Antzerkia*, op. cit., 9-27.
- (1982): «Aukeraketa eta itzaurrea», in *Azalpenak 1931-1935*, op. cit., 9-34.
- (1986): *Lauaxeta: biografía política*, Ediciones Alderdi, Zarautz.
- (1986): *Teoría y práctica poética de Esteban Urkiaga*, Lauaxeta, Desclée de Brouwer, Bilbao.
- (1991): «Lauaxeta eta Europako poesia», *Hegats*, 4, 85-90.

- (1995): *Lauaxeta, 1905-1937*, Bidegileak, Eusko Jaurларitza, Gasteiz.
- LOPETEGI, Leon (1990): «Diario», in Patxi ALTUNA, <prest.> (1990), op. cit., 99-112 orr.
- MALLONA LEGARRETA, Agurtzane (1991): «Sarrera», in *Azalpenak eta beste, 1932* (op. cit., 9-41).
- MUJKA, Plazido (1982): «Plazido Mujikari elkarrizketa», *Argia*, 944, 1982-09-12.
- ONAINDIA, Santi (1974): «Urkiaga'tar Estepan'en bizi-urratsak», in *Lauaxeta: Olerkiak*, Etor, Donostia.
- <prest.> (1985): *Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta», Olerki guztiak*, Bilbao.
- ORMAETXEA, N. «ORIXE» (1950): «Satsi edo balanka», in *Euskaldunak* liburuan, Itxaropena, Zarautz, 45-57 orr.
- PENADES BILBAO, Josu (1996): *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena: kulturaren eta sinesmenaren arteko elkarrizketarako elkargaita, solidaritza bizi-arrazoi*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.
- RODRIGUEZ DE CORO, Francisco (1980): *Guipúzcoa en la democracia revolucionaria*, CAP, San Sebastián.
- RUIZ ARZALLUS, Iñigo <arg.> (1992): «Sarrera», in *Bergiliren Unai eta Alor-kantak*, op. cit., VII-LIX.
- SUDUPE, Pako (1997): *Andima Ibinagabeitia (1906-1967)*, Bidegileak bilduma, Kultura Saila, Eusko Jaurларitza, Gasteiz.
- (2005): «75 urtera handikiak erdaldun», *Berria*, 2005-06-27
- URKIAGA, E. «LAUAXETA» (1931): *Bide barrijak. Nuevos rumbos*, GEU, Bilbao.
- «LAUAXETA» (1932). «Palankari bati» poema, *Euzkerea*, 1932-03-15, 52 or.
- «LAUAXETA» (1974): *Olerkiak*, Etor, Donostia.
- «LAUAXETA» (1982): *Azalpenak 1931-1935*, Labayru, Bilbao.
- «LAUAXETA» (1985): *Olerkiak*, Erein, Donostia.
- «LAUAXETA» (1990): *Antzerkia*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- «LAUAXETA» (1991): *Azalpenak eta beste, 1932*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari (1981): *Iokin Zaitegi*, Arrasate

ZAITEGI, Jokin (1974): «Urkiaga eta biok. Sarrera bezala», in Lauaxeta: *Olerkiak*, Etor, Bilbao, 5-9. orr.

ZORRILA, J.A. (zuz.); AMIGO, A.; BERNAOLA, K.; GARCIA GALISTEO, Jose: *Lau haizetara. A los cuatro vientos* (Bideoa), Euskadiko Filmategia, Donostia.

ZUBIKARAI, Agustin (1981): *Non-daka*, Geu, Bilbao.